

EKONOMIA ETA ENPLEGUA SUSPERTZEKO
AKORDIOA, ZERBITZU PUBLIKOEN ETA
GIZARTE-POLITIKEN DEFENTSATIK ETA
AUTOGOBERNU HANDIAGOAN ETA
HOBEAN OINARRITUTA

EUSKADI MARTXAN!

Gasteizen, 2020ko irailaren 1ean



A) BERRERAIKITZERAKO OINARRI PARTEKATUAK.

B) KONPROMISO PROGRAMATIKOAK .

LAU ARDATZ EGITURATZAILE

- I. OPAROTASUNA, PREMIAZKOA:**
Enpleguarekiko eta susperraldi ekonomikoarekiko konpromisoa.

- II. PERSTONAK, GARRANTZITSUA:**
Osasuna, zerbitzu publikoak eta gizarte-politikak bermatzeko konpromisoa.

- III. PLANETA, ARDURATSUA:**
Bidezko energia- eta klima-trantsizio batekiko konpromisoa.

- IV. BIZIKIDETZA ETA AUTOGOBERNUA, LORTU BEHARREKOA:**
Autogobernu handiagoa eta hobe lortzeko konpromisoa, giza-garapen jasangarrian aurrera egiteko.



A) BERRERAIKITZERAKO OINARRI PARTEKATUAK.

EUSKADIREN GIZARTE- ETA EKONOMIA-BERRERAIKITZERAKO OINARRI PARTEKATUAK

Covid 19ak eskala globaleko krisi bat eragin du; orain dela hilabete gutxi batzuk, ezin genituen krisi honen osasun-, ekonomia- eta gizarte-ondorioak irudikatu ere egin eta, oraindik ere, krisi honen behin betiko eragina zehazteke dago.

Erakundeek hartutako txoke-neurriek arriskuari berehala erantzutea ahalbidetu dute, gure baliabide guztiak erabiliz osasun- eta gizarte-krisiari aurre egiteko eta enpleguan zein enpresetan izan litzakeen eraginik larrienak arintzen saiatzeko.

Euskadi ez da salbuespen bat izan pandemia honetan, larriki eragin baitio termino sozial, ekonomiko zein emozionaletan. Gainera, koronabirusaren krisiak erakutsi digu, oraindik ere, munduko herritarrak eta, hortaz, euskal herritarrak arriskuan gaudela etorkizunean horrelako osasun-gertakariak pairatzeko.

Aurreko legegintzaldian, bi alderdiok elkarrekin lan egin dugu eta esperientzia hori Eusko Jaurlaritzaren ekintza zentratzeko oinarria izan behar da orain; hala, legegintzaldi honetarako helburu giltzarriak osasun-sistema publikoa ezartzea eta indartzea eta Euskadiko gizartea eta ekonomia berreraikitzea dira, euskal gizartea pandemiak azkartu dituen erronka berri guztietarako prestatu ahal izateko (biztanleriaren zahartzea, trantsizio ekologikoa, digitalizazioa...).

Errealitate hori ezagutzen dugunez eta hartu beharreko erabakiak oso garrantzitsuak direnez, EAJ-PNVk eta PSE-EEK (PSOE) uste dugu beharrezkoa dela krisi hau abagune bat bezala kudeatzen jarraitzea, horretatik ateratzen garenean indartutako ongizate-estatu duen eta desberdintasunak murrizten dituen gizartea kohesionatuagoa izateko. Bidezkoa da aitortzea azkenengo hilabeteotan gizarteak orokorrean eremu desberdinetatik egin duen lan itzela pandemiari aurre egiteko eta, orain, gu euskal gizarteak gugandik espero duenaren altuerara egon behar gara.

Zentzu horretan, bi alderdi politikook adierazten dugu helburu komun hau daukagula: hurrengo gobernuak hartu behar dituen erabakirik premiazkoenak argi eta garbi zehaztea eta erreformak azkartzea, betiere aurreko esperientziaren oinarri aurreratutik, Nazio Batuen 2030 Agendarekin bat eginez eta partekatutako 3 premisa hauetatik abiatuta:

1. Euskal herritar guztien osasuna bermatzea.

Begi bistakoa da Covid 19aren pandemia inflexio-puntu bat izan dela, herritarren osasun-premiei eta patologia, osasun-arrisku eta gizarte-talde desberdinen arabera osasun-politikako lehentasunei dagokienez. Jasandako mehatxu berriak ikusita, ematen du beharrezkoa dela osasunarekin lotutako araudi- zein gobernu-tresnak eguneratzea. Horregatik, gaixotasunaren bilakaeran agertzen diren larrialdien berehalako arretarekin batera, larrialdi-egoerak berriz ere nabarmendu du beharrezkoa dela bi alderdi politikook orain dela bi hamarkada baino gehiago bultzatu genuen paradigma-aldaketan sakontzen jarraitzea.

Bizi izan dugun esperientziak azpimarratu egin du gizarte-zerbitzuek arreta, babesa eta zaintzak eskaini behar dizkietela ahultasun handiagoko egoeran dauden pertsoneri; horrez gain, pandemiaren gizarte-ondorioen aurrean, gizarte-zerbitzuek herritar guztiei erantzun behar diete, sortzen ari diren egoera berriak antzeman behar dituzte eta herritarrei orokorrean babes berriak eman behar dizkiete. Gure Gizarte-zerbitzuen Sistemak bultzada berria behar du euskal gizarteak dituen erronka berrietara egokitzeko, arreta berezia jarriz erronka demografikoan. Izan ere, gure xedea da adinekoentzako gizarte- eta osasun-arreta indartzen eta konektatzen jarraitzea, adineko horiek bere etxean edo egoitzetan bizi diren gorabehera.

2. Ekonomia eta enplegua suspertzea pandemiaren aurreko mailak berreskuratzeko, baina erronka eta premia berrietara egokituta.

Covid 19aren pandemia Euskadiko ekonomian eta enpleguan islatu egin da. EAJ-PNV eta PSE-EE (PSOE) ados gaude helburu partekatu gisa ezarri behar ditugula enpleguak mantentzea, prekarietatearen eta behin-behinekotasunaren aurka borrokatzea eta ekonomia suspertzea, hazkundearen bidera itzultzeko eta gure langabezia-tasa %10aren azpitik kokatzeko berriz ere. Hori guztia kalitatezko enpleguaren eta Gizarte Elkarrizketarako Mahaiaren aldeko apustu partekatu eta irmo batetik; hain zuzen ere, Gizarte-elkarrizketako Mahaia da gizartearen eta lanaren eremuko politika publikoak edo lan-harremanetan eta negoziazio kolektiboan sakontzen duten politika publikoak negoziatzeko eta ituntzeko tresna.

Horrekin, bi alderdi politikook adierazten dugu erabateko konpromisoa hartzen dugula Espainiako Gobernuarekin estuki lan egiteko, Next Generation EU Programaren funts europarrak lortzeko eta kudeatzeko eta Espainiako Estatuak Europara bidaltzeko sortzen duen Susperraldi eta Erresilientziako Plan Nazionalen laguntzeko.

Zentzu horretan eta Espainiako Gobernuaren errekerimenduei jarraiki, horretarako eratzen den Erakunde arteko Batzordeari bidaltzeko trakzio-proiektuen adostutako zerrenda bat egingo dugu eta hori izango da Euskal Autonomia Erkidegoaren ekarpena Espainiako Estatuak kudeatutako funts europarrak jaso ditzaketen proiektuei dagokienez.

Era berean, Gizarte Elkarrizketarako Mahaiarekin eta eragile ekonomikoekin zein gizarte-eragileekin egiaztatu ostean, funtsezko jarduketa-ardatz gisa enplegua eta susperraldi ekonomikoa dituen hazkunde jasangarrirako estrategia bat aurkeztu eta onetsiko dugu premiaz, COVID 19aren pandemiak eragindako ondorio ekonomiko eta sozial negatiboei erantzuteko helburuarekin.

3. Inor atzean ez uztea gizarte kohesionatu bat herrialde-inbertsiorik onena dela definitzen duten parametroetako batean ere.

Covid-19aren eraginaren ondoriozko krisi ekonomikoarekin, txirotasun, bazterkeria eta arriskuko egoerak areagotu egin dira eta, aldi berean, eskuragarri dauden baliabide publikoak murriztu egin dira.

Egoera horren aurrean, EAJ-PNV eta PSE-EE (PSOE) ados gaude beharrezkoa dela zerbitzu publikoak bermatzea, gizarte-politiken aldeko apustu irmoa egitea eta pertsonarik eta kolektiborik ahulenekin solidarioak izatea, krisialdi honetatik inor atzean utzi gabe ateratzeko helburu partekatu hori lortzeko.

Gure ustez, helburu horretarako funtsezko tresnak hauek dira: Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren erreforma; hezkuntza-erkidegoarekin batera hezkuntza egokitzea eta hobetzea; etxebizitzarako eskubidea handitzea eta gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasunaren defentsa irmoa eremu guztietan.

Azkenengo legegintzaldiko esperientziak erakutsi du bi alderdi politikook gaitasuna dugula baliabide publikoak zorroztasunez kudeatzeko eta 2020an berrikusi behar zen fiskalitate progresiboago eta bidezkoago batean aurrera egiteko. EAJ-PNVk eta PSE-EEK (PSOE) adierazten dugu hitzemandako fiskalitatearen berrikuspena egiteko asmoa dugula; hala eta guztiz ere, orain, berrikuspen horrek elementu hauek hartu beharko ditu kontuan: Covid 19aren krisiaren ostean sortutako errealitate ekonomiko berria; enpleguaren balizko bilakaera; gure enpresen gaitasunak eta lehiakortasuna eta Espainiako Gobernuak eta, dagokigun proportzioan, Europar Batasunak aurreikusitako ez-ohiko ekarpenak.

Akordio hau negoziatzerakoan, ez genituen adierazitako aldagai horietako asko ezagutzen eta horrek, hasiera batean, arlo horretan ibilbide-orri zorrotz bat zehaztea eragozten du; hala ere, bi alderdiok konpromisoa hartzen dugu eta eskatzen dugu fiskalitate berri horren diseinuan aurrera egiteko eta egiteke dagoen zerga-erreforma horri buruzko hausnarketa sakona burutzeko erakunde eskudunekin batera. Erreforma hori errealitate berrira egokitu beharko da eta progresibitate handiago batera bideratu beharko da, zerbitzu publikoak indartzeko eta enplegua sortzen duen ekonomia babesteko. Horrez gain, Europako bateratasun fiskalera jo beharko du eta aukera eman beharko du ekonomiara eta sortzen ari diren erroka berrietara egokitzeko, ingurumen-irizpideak barne hartuz.

Legegintzaldiaren hasieran, bi alderdi politiko hauek ados daude, hitzemandako jarduketa politikoei aurre egiteko beharrezko baliabide publikoak bermatzeko, inbertsio publikoa maila guztietan bermatu beharko dela baliabideen berrantolaketa bidez, administrazioen arteko bikoiztasunak saihesteko, berreraikitze eta iruzurraren eta zerga-ihesaren aurkako borroka indartzeko plan europarren bidez hel daitezkeen diru-sarrerara berriak txertatzeko bideak ikasteko eta zorpetze-politika zorrotza aplikatzeko.

Horrekin, bi alderdi politikook zeharkako gehiengo kalifikatua dugula jakinda ere, EAJ-PNV eta PSE-EE (PSOE) ados gaude helburu partekatua izan behar dela, berreraikitze-neurriak hartzeko prozesuan, gizarte-antolakuntza, sindikatu, enpresa-antolakuntza eta alderdi politiko guztien inplikazioa bilatzea, baita herrialdeko gainerako erakundeena ere.

Aurrekoan oinarrituta, bi alderdi politikook Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuekin eta gure errealitate ekonomikoarekin, sozialarekin eta erakundeen errealitatearekin lerrokatutako lau jarduketa-ardatz hauen esparruan proposatzen ditugu gobernu-konpromiso programatikoak:

Lehenengo ardatza: Oparotasuna.

Premiazkoa da enpleguaren susperraldiaren, horren kalitatearen hobekuntzaren eta covid-19aren pandemiaren ondorio negatiboak gainditzeko susperraldi ekonomikoaren alde egiten duen estrategia bat garatzea. Industria aurreratuan, inbertsioan, berrikuntzan eta nazioartekotzean oinarritutako estrategia bat.

Bigarren ardatza: Pertsonak.

Pertsonak dira gobernu berriaren ekintzaren konpromiso politikoaren funtsezko elementua. Pertsonak dira benetan garrantzitsuak, hau da, politika publiko guztien azken xedea. Gure konpromisoa da osasun eta hezkuntzako zerbitzu publikoak finkatzea eta indartzea eta gizarte-politika guztiek euskal gizartearen giza garapenean laguntzen dutela bermatzea.



Hirugarren ardatza: Planeta.

Euskal gizarteak bere ekarpena egin behar du planetaren oreka lehengoratzeko lortzeko eta 2050eko horizontean berotegi-efektuko gasen emisioen neutraltasuna lortzeko, betiere Europar Batasunaren konpromisoekin bat etorritik.

Adierazten dugu konpromisoa dugula bidezko energia- eta klima-trantsizio batekiko, energia berriztagarrien aldeko apustuarekiko, ingurune naturalaren eta biodibertsitatearen kontserbazioarekiko eta ekonomia zirkularraren bultzadarekiko.

Laugarren ardatza: Bizikidetzak, Autogobernua eta Giza Eskubideak.

Azpimarratu nahi dugu beharrezkoa dela pertsonen bizikidetzak, justizia eta segurtasuna finkatzeko eginkizun horretan lan egiten jarraitzea; Giza Eskubideak defendatzea eta eraginkortasunez gauzatzea egoera eta herrialde guztietan; autogobernua defendatzea eta Gernikako Estatutua osorik betetzea eta belaunaldi berri batentzako estatutu-itun berri bat lortzea.

Oinarri horietatik abiatuta, akordio honek pandemiak nabarmendu dituen erronka nagusiei erantzuteko eta Euskadiren berreraikitze sozial eta ekonomikorako oinarriak zehazteko apustua islatzen du. Apustu hori egingo dugu jakinda, larrialdi-fase honetan, erabaki egokiak hartzea berebizikoa izango dela, legegintzaldia amaitzerakoan, Euskadi kohesionatuagoa ez ezik, aurre egin beharko diegun erronka guztiei erantzuteko prestakuntza hobea duen Euskadi bat ere izateko. Horren arabera, honako konpromiso programatiko hauek adierazten ditugu.

B) KONPROMISO PROGRAMATIKOAK.

LAU ARDATZ EGITURATZAILE

I. OPAROTASUNA, PREMIAZKOA:

Enpleguarekiko eta susperraldi ekonomikoarekiko konpromisoa.

II. PERSTONAK, GARRANTZITSUA:

Osasuna, zerbitzu publikoak eta gizarte-politikak bermatzeko konpromisoa.

III. PLANETA, ARDURATSUA:

Bidezko energia- eta klima-trantsizio batekiko konpromisoa.

IV. BIZIKIDETZA ETA AUTOGOBERNUA, LORTU BEHARREKOA:

Autogobernu handiagoa eta hobea lortzeko konpromisoa, giza-garapen jasangarrian aurrera egiteko.

I. OPAROTASUNA, PREMIAZKOA: Enpleguarekiko eta susperraldi ekonomikoarekiko konpromisoa.

JARDUKETA-ARLOAK. KONPROMISO PROGRAMATIKOAK:

1. Lehenetsun bat: Enplegua.
2. Industria lehiakorragoa.
3. Berrikuntzaren aldeko apustua.
4. Azpiegitura eta garraio jasangarriak.
5. Landa-garapenerako eta elikadurako politika.
6. Bikaintasunerako turismo jasangarria.
7. Merkataritza eta ostalaritza suspertzea.
8. Kontsumitzailearen defentsa.

1. Lehentasun bat: Enplegua.

Covid-19aren osasun-krisiak larriki eragin dio gure gizarteari eta jarduera produktiboaren eta ekonomikoaren mailak murriztu egin ditu. Horren ondorioz, langabezia nabarmen igo egin da; beraz, enplegua berriz ere da gizartearen, erakundearen eta politikaren lehentasuna.

Gure xedea da langabezia-tasa berriz ere kokatzea % 10aren azpitik eta hazkundearen bidera itzultzea. Horretarako, enplegurako eta susperraldi ekonomikorako estrategia global bat onetsiko dugu eta Euskal Enplegu Sistema integrala eta aktibatzailea bultzatuko dugu, zeinaren ardatz egituratzailea Lanbide izango den.

Estrategia kalitatezko enplegu jasangarriaren sorkuntza, ekintzailtza, gizarte-ekonomia eta langabeen laneratzea sustatzean zentratuko da, arreta berezia jarriz zailtasun handiagoak dituzten kolektiboengan. Horrez gain, estrategia horrek gizarte elkarrizketan sakonduko du eta enpresa-kultura inklusiboago eta parte-hartzaileago berri bat sustatuko du.

Konpromisoak

1) Enpleguaren eta susperraldi ekonomikoaren aldeko estrategia berria.

Helburua da krisian zehar galdutako enplegu guztia berreskuratzea eta langabezia-tasa berriz ere % 10aren azpitik kokatzen laguntzea. “Enpleguaren eta susperraldi ekonomikoaren aldeko Estrategiak” hazkunde jasangarria bultzatuko du eta 2030 Agendarekin eta Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuekin lerrokatuta egongo da, baita “Sure” eta “Next Generation EU” programa europarren lehentasunekin ere.

Estrategiarekin batera, “Enpleguko Plan Berezi” bat egingo da, enpresa txiki eta ertainak eta autonomoak babesteko berariazko likidezia-neurriak barne hartuko dituena. Enplegurako prestakuntzaren eremuko programa zehatzekin enplegua babestera zuzenduta dago, enplegu berdea sortzea errazten duen bidezko trantsizio ekologiko bat lehenetsiz.

Prestakuntza eguneratzeko plan pertsonalizatuak eta egokituak sustatuko ditugu, bereziki zuzenduta digitalizazioaren erronkara egokitu behar diren 45 urte baino gehiagoko langileei.

Halaber, konpromiso horren barruan sartzen dira tokiko garapen ekonomikoaren bultzada eta autoenpleguaren zein ekintzailtzaren sustapena, tokiko eta eskualdeko enplegu-planak indartuz, batez ere, lehentasunez jardun behar den eskualde horietan.

Konpromisoa da “Gazteen Enplegurako Txoke-plan” bat onestea, lehenengo lan-esperientzia bat eskainiko diena 30.000 gazteri. Planak eremu hauetan guztietan aurreikusten ditu jarduketak: enplegu-eskaintza publikoak; hezkuntza-mundutik lanerako trantsizioa; prestakuntza dualaren bultzada LHn eta unibertsitatean; gazteen ekintzailtza babestea; “Unibertsitatea gehi Enpresa” programa; txanda-kontratuaren sustapena; gazteen itzulerako programak; prestakuntza-bekak kontratazio-konpromisoarekin eta gazteen kontratazioa lehentasunez jardun behar den eskualdeetan.

2) Enplegu-sistema integrala eta suspertzailea, Lanbide ardatz egituratzailea delarik.

Konpromisoa da enplegurako gobernantza integraleko eredu berri bat bultzatzea, zehazki, Euskal Enplegu Sistemaren Legearen bidez. Eredu berriaren ardatz egituratzailea izango den Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bere lan-merkaturako orientazioa indartuko du eta arreta handiagoa jarriko du enpresengan eta pertsonengan, Euskadin enplegarritasuna hobetzeko eta enplegua sortzeko egiten duen ekarpena indartzeko helburuarekin.

Arretako eta esku-hartzeko zerbitzu pertsonalizatuaren garapena indartuko da, teknologia digital berrietan oinarritutako enplegurako prestakuntza-sistema integral batekin.

Eskumen profesionalen eta enpleguen etorkizuneko eskariak identifikatzen dituen behatoki bat garatuko da. Lankidetzaren indartuko da enprekin eta lanbide-heziketako zentroekin, lan-merkatuaren oraingo zein etorkizuneko premietara hobeto egokitutako jarduketak integralak diseinatu ahal izateko.

3) Enpleguaren kalitatearen hobekuntza.

Kalitatezko enplegua sortzea ekonomia berritzailearen oinarritzeko apustu bat da. Hazkunde ekonomikoarekin batera, beharrezkoa da enpleguaren kalitatea ere hobetzea, hau da, soldata hobeak, egonkortasun handiagoa eta lanaldien partzialtasun txikiagoa lortzea eta kontratuen behin-behinekotasuna murriztea.

Gizarte Elkarrikerarako Mahaian eta sindikatu- eta enpresa-eragileekin batera, plan bat abiaraziko da enpleguan behin-behinekotasuna eta lanaldietan partzialtasuna murrizteko.

Konpromisoa da Laneko Segurtasun eta Osasunerako 2021-2025 Estrategia onestea, lanaldian zehar eta in itinere gertatzen diren lan-istripu larriak erdira murrizteko xedearekin. Beste xede gehigarri bat da euskal administrazio publikoa erreferentziazko eredu izatea European lan-arriskuen prebentzioari eta kudeaketari dagokienez.

Generoarekin lotutako soldata-arraila murriztera zuzendutako ekimenak indartuko dira, berdintasun-planen ezarpena gehituz hitzarmen kolektiboetan. Gainera, lana eta familia bateratzea sustatuko da, bai helburu hori erraztera zuzendutako berariazko neurrien bidez, bai telelana edo lan-ordutegiaren malgutasuna bultzatuz, betiere enpresa bakoitzaren premiak eta aukerak kontuan hartuz eta familia-errealitate desberdin guztiak barne hartuz.

4) Ekintzaitzaren sustapena eta autonomoak eta mikro ETEak babestea.

Lanbideren konpromisoa da 4.000 enpresa berri eta 5.500 enplegu berri sortzen laguntzea. Horretarako, ekintzaitzari buruzko prestakuntza-programa berriak burutuko dira hezkuntza-zentroetan beste gizarte-eragile batzuekin elkarlanean eta, horrekin batera, laneratzeko zailtasunak dituzten pertsonen kolektiboak laguntzeko eta babesa emateko jarduketak burutuko dira, mikroenpresak sortzen laguntzeko edo autoenplegua errazteko.

Lehenetsi egingo da ekintzaitzaren eta barne-ekintzaitzaren sustapena, batez ere, honako arloekin lotutako enplegu-hobi berrietan: digitalizazioa; “green economy” bidezko trantsizio ekologikoa; “silver economy” zahartze aktiboa eta zaintzen ekonomia.

Ekintzaitzaren eremuan, erakunde arteko lankidetzak indartuko da, zehazki, udalekin, eskualde-garapenerako agentziekin eta eremu honetako bestelako eragile aktibo batzuekin lankidetzak-akordioak gauzatuz.

Jarraituko dugu zailtasun ekonomikoak dituzten enpresen likidezia errazten eta autonomoak, mikroETEak eta ETEak bere finkapen- eta hazkunde-prozesuetan babesten dituen programa berri bat abiarazi egingo da, hain zuzen ere, oraingo enpleguak mantentzeko eta berriak sortzeko.

5) Gizarte-ekonomiaren papera indartzea.

Euskadin gizarte-ekonomia garatzearen aldeko apustu argia egiten dugu. Izan ere, funtsezko elementu bat da aberastasuna banatzen laguntzen duen errotutako aurrerapen-ekonomia baterako.

Garatuko da 2019an onetsitako Euskadiko kooperatiben lege berriaren arautegia.

Konpromisoa gizarte-ekonomiako enpresen garapena babestea da, horien dimentsioa indartzera, bazkide berriak lortzera eta horien arteko lankidetzak zein gizarte-ekonomiako enpresen arteko asoziazionismoa sustatzera zuzendutako jarduketak erraztuz. Era berean, enpresa-kudeaketaren eta plangintzaren hobekuntza, gobernu onaren eraketa eta sustapena eta gizarte-erantzukizun korporatiboa babestuko dira.

Gainera, sektoreko elkarrekin eta taldeekin elkarlanean, berrikuntza teknologikoko zein ez-teknologikoko proiektuak bultzatuko dira gizarte-ekonomiako enpresetan.

6) Zailtasun handiagoak dituzten langabeen laneratzea sustatzea eta enpleguarekiko sarbidea hobetzea.

Konpromisoa da 140 milioi euro bideratzea tokiko zein eskualdeko enplegu-planetara. Planak foru aldundiekin eta tokiko administrazioekin elkarlanean garatuko dira eta pertsona hauei zuzendutako ekimenak lehenetsiko dira: gizarte-bazterkeria arriskuan dauden pertsonak; dibertsitate funtzionala dutenak; gazteak; 45 urte baino nagusiagoak eta iraupen luzeko langabeak, arreta berezia jarriz lehenetsunez jardun behar den eskualde horietan.

Saihestuko da 45 urtetik gorako pertsonen langabezia kronifikatzea, laneratzeko prestakuntza-ekintza integralekin eta laguntza pertsonaleko ekintzekin. Arreta berezia emango zaie ezgaitasunen bat duten pertsonari.

Proiektu pilotuak eta lankidetzak-proiektuak burutuko dira hirugarren sektoreko enpresa eta antolakuntzekin, langaberik ahulenen gizarteratzea eta laneratzea sustatze aldera.

7) Gizarte-elkarrizketan sakontzea eta euskal enpresan eredu parte-hartzaile inklusibo bat sustatzea.

Lanaren Nazioarteko Erakundearen orientazioei jarraiki, hiruko gizarte elkarrizketa eta etengabeko negoziazioa sustatuko dira eragile ekonomikoen eta gizarte-eragilearen artean, lan-harremanen euskal sistema eta Gizarte Elkarrizketarako Mahaiaren lantaldeak indartzuz.

Honakoaren aldeko neurriak hartuko dira: lan-egonkortasuna eta enpresa-lehiakortasuna; soldata-arrailaren murrizketa; lana eta familia bateratzea; telelana; ordutegi-malgutasuna; lanaren behin-behinekotasunaren murrizketa; nahi gabeko partzialtasunaren murrizketa; langileen etengabeko prestakuntzaren sustapena eta laneko segurtasuna eta osasuna areagotzeko neurriak, bai lantokian, bai in itinere.

Lan-harremenen eredu berri bat sustatuko da, langileek enpresan parte hartuz, horrekiko duten lotura indartuz eta gardentasuna hobetuz. Konpromisoa da Eusko Legebiltzarrean 2018ko irailaren 27an aho batez onetsitako legez besteko proposamenari behar bezala erantzutea, euskal enpresaren eredu inklusibo eta parte-hartzaile batean aurrera egiteko. Helburu horrekin, Oñatiko Adierazpenaren garapena eta aplikazio praktikoa sustatuko dira: 2019ko apirilean Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) mendeurrena zela-eta onetsitako "Lan-harremenen eredu berritu baterako dekalogo".

8) Lan-iruzurraren aurka borrokatzea eta laneko ikuskatzailtza indartzea.

Gure konpromisoa da lan-iruzurraren aurkako borrokarako baliabideak areagotzea, zehazki, laneko ikuskatzailtzaren bidez.

Ikuskatzailtza-plan berezi bat abiaraziko da ezarritako lanaldiak zuzen betetzen direla bermatzeko eta iruzurra behin-behinekotasun eta partzialtasun terminoetan jazartzeko. Xedea da lan-kontratuak erregularizatzea eta mugagabe egitea, batez beste, 7.000 pertsonentzat urtean. Horretarako, ikuskatzeko baliabide materialak eta giza baliabideak indartuko ditugu.

Lan-baldintzen aplikazio zuzena indartuko da eta aurreko legegintzaldian abian jarritako lan-iruzurraren aurkako postontzi anonimoaren erabilera sustatuko da.

Berariazko ikuskatzailtza-kanpaina bat garatuko da, euskal enpresetan gizonezkoen eta emakumezkoen arteko lan-diskriminazioa deuseztatzeko.

9) Lan-osasuna eta prebentzioa.

Lan-arriskuen prebentzian, koronabirusaren kutsadurarekin lotutako osasun-neurriak txertatu behar dira eta egitate horrek ez dauka atzerakorik. Koronabirusaren olatu berriak egon daitezkeenez, uste dugu parte-hartzerako eta akordioetarako bidea mantendu behar dela, prebentzioa sustatzeko lantoki guztietan. Enpresa bakoitzeko prebentzio-zerbitzuek, langileen ordezkariak, ugazaba-antolakuntzek eta sindikatuek Osalanekin, laneko ikuskatzailtzarekin eta lan-agintaritzarekin elkarlanean parte hartzea formularik onena da osasunaren ikuspegitik seguruak diren lantokiak bermatzeko. Hori izango da Laneko Segurtasun eta Osasunerako 2021-2025 Estrategiarako oinarria.

2. Industria lehiakorragoa.

Funtsezkoa da Euskadik industria-egitura indartsua izaten jarraitzea, mundura irekita egongo dena eta produktibitatearen hobekuntzaren alde egingo duena, giza baliabideen trebakuntzaren eta berrikuntzaren bidez.

Industria eta horrekin lotutako zerbitzu aurreratuak euskal ekonomiaren motorra izan behar dira. Baita gure egitura ekonomikoaren bereizgarria ere.

Helburua da industria eta zerbitzu aurreratuak BPGdren % 40ra heltzea. Horretarako, industria aurreratuaren alde egiten duen eta Euskadin errotuta dagoen Garapen Industrialerako Plan Estrategiko bat onetsiko dugu. Industria horrek azpiegituren eta lurzoru industrialaren euskarri egokia izango du, baita nazioartekotzea babesteko zerbitzu eraginkorrak ere. Gainera, plan eta neurri bereziak ezarriko ditugu lehentasunez jardun beharreko guneetarako eta zailtasunak dituzten enpresentzat.

Konpromisoak

1) Garapen Industrialerako Plan Estrategikoa.

“Garapen Industrialerako Plan Estrategiko” bat onetsiko da eta horren helburua industria eta zerbitzu aurreratuak BPGdren % 40ra heltzea izango da.

Besteak beste, planak alderdi hauek aurreikusiko ditu: trantsizio ekologikoa eta digitala; ETEentzako babesa; enpresa-errotzea eta proiektu industrial estrategikoak. Aurrekoen gain, hauek jasoko ditu: zerbitzu aurreratuak industrian; enpresa-azpiegiturak eta lurzoru industrialak; lehentasunez jardun beharreko guneak eta zailtasunak dituzten enpresentzako babesa; enpresa-eredu inklusiboagoa eta parte-hartzaileagoa; enpresa-talentuaren promozioa eta nazioartekotzea.

Plan honen parte gisa, kluster-politika berriz orientatuko da, Euskadin birlokalizazio industrialak eta trakzio-proiektuen garapena bultzatzeko, Europako balio-kateetan eta ekosistema industrialetan integratuta.

Bereziki indartu egingo da euskal osasun-industriaren klusterra, enpresen, zentro teknologikoen eta Osakidetzaren arteko lankidetzak indartuz, hain zuzen ere, osasun-zerbitzuak, ekipamenduak eta produktuak hornitzeko eta gure gizartearen zerbitzura egongo diren teknologia aurreratuak produktu berriak garatzeko.

2) Euskadin errotutako 4.0 Industria.

Gure konpromisoa da, eragile ekonomikoen eta gizarte-eragileen parte-hartzearekin, Gizarte Elkarrizketarako Mahaian, trantsizio teknologikoen eta digitalaren ondoriozko prestakuntza-premiak eta berriz trebatzeko premiak jorratzea, 4.0 industriarako bidezko trantsizioa lortze aldera.

Abian jarriko da Basque Artificial Intelligence Centerra, enpresetan adimen artifizialaren ezarpena sustatzeko; era berean, abiadura handiko komunikazioetako azpiegitura berrien hedapena babesteko da, horiek euskal enpresa guztietara hel daitezen.

Enpresen lehiakortasuna hobetzea sustatuko da, horien digitalizazioa bultzatuz, eta lankidetzaren publiko-privatuko eredu batean oinarritutako Data Center berri bat sortuko da.

Energiaren Klusterrarekin lotutako enpresa-taldearen ekarpena bultzatuko da, bidezko energia- eta klima-trantsizioa dinamizatzeko.

“Produktuen industriatik” “konponbideen industriara” aurreratuko da eta “industria eta zerbitzu aurreratuen” berariazko programa bat abiaraziko da.

Euskadin jarduera industrialak mantentzea eta errotzea errazten duten eta enpresa-proiektu berriak erakartzea bultzatzen duten proiektu industrial estrategikoen garapena indartuko da. Sail arteko beharrezko koordinazioa zaindiko dugu, beharrezko administrazio-izapidetxeei (ingurumenarekin lotutakoak barne) dagozkien enpresa-proiektuak abian jartzeko, betiere indarreko araudi-esparruak eskaintzen dituen aukeren barruan (hala badagokio, oinarritzeko legerian zehaztutako kontsulta publikorako epeak bermatuz...). Horrez gain, deslokalizazio industrialen arriskua murriztuko da.

Gure enpresak Europako balio-kate eta ekosistema industrialetan integratzea erraztuko da, bereziki, Euskadiko RIS3 Espezializazio Adimendunaren Estrategiaren lehentasunezko eremuetan.

Finkatuz Funtzaren zuzkidura handituko da, euskal trakzio-enpresen errotzea eta gure ekonomiarengan duten dinamizazio-efektua bermatzeko.

3) Enpresa txiki eta ertainak babestea.

Konpromisoa da, “Garapen Industrialerako Plan Estrategikoaren” esparruan, ETEak babesteko berariazko programa baten alde egitea, horien lehiakortasuna hobetzeko helburuarekin. Babes-programa horrek berrikuntza teknologikoa eta digitalizazioa txertatzea erraztuko du eta berrikuntza ez-teknologikoa ere indartuko du, negozio-, antolakuntza- eta marketin-eredu berrien bitartez.

ETEen dimentsio txikiaren eta baliabideen eskuragarritasunaren arazoa gainditzeko, handitzeko inbertsioak egiten laguntzeko finantzaketa-tresnak sustatuko dira; beste enpresa batzuekiko eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko zentroekiko lankidetzaren indartuko da eta euskal trakzio-enpresek zuzendutako berrikuntza eta garapen teknologikoko proiektuetan parte hartzea bultzatuko da.

Makineriaren Renove Planak indartuko dira, ETEak robotikara eta digitalizaziora azkar egokitzea errazteko eta, horrez gain, langileen trebakuntzako, prestakuntzako eta birziklapeneko neurriak indartuko dira, betiere aro digital berrira zuzenduta.

4) Enpresa-azpiegiturak eta lurzoru industrialak.

Enpresentzako, eragile zientifiko-teknologikoentzako eta zerbitzu berrientzako espazio industrial berriak eskainiko dira, horiek guztiak lehiakorragoak izan daitezzen. Horretarako, Ezkerraldea-Meatzaldeko Parke Teknologikoa berria garatuko da; Gipuzkoako zenbait gune handitzea eta garatzea babestuko da (Eibar [Erisono]; Galarreta-Hernani, Hondarribia-Irun; Pasaia, ...) lurraldearen premiak asetzeko eta dinamizazioa bultzatuko da Arabako Parke Teknologikoko instalazioen errendimendua hobetzeko eta hori antzemandako premien arabera handitzeko.

Konpromisoa da lurzoru industrialaren promozioa eta nabarmentzea azkartzea, bertan jarduera ekonomikoa sortzeko. Helburu horrekin, “Eskualde-intereseko/Interes estrategikoko Proiektuaren” ideia sortuko da, kanpoko inbertsio produktiboak erakartzea erraztuko duena.

Sail arteko eta erakunde arteko funts bat sortuko da, kutsatutako eta narriatutako lurzoruak nabarmentzea sustatzeko.

Enpresa handiak eta ertainak ixtearen edo lekuz aldatzearen ondorioz erabiltzen ez diren lurzoru eta/edo instalazio industrialak jarduera ekonomikoetarako berrerabiltzea sustatuko da.

Zerbitzu industrialeko bokazioa duten portu-azpiegiturak eta azpiegitura logistikoak indartuko dira, horiek berritzeko eta modernizatzeko plan batekin, trenbide-portuko konexioen hobekuntza barne hartzen duena.

Forondako Aireportuaren VIAP plataforma garatuko da eta digitalizazioa sustatuko da azpiegitura logistikoen kudeaketan.

Era berean, Vialrun Proiektua babestuko da, hirigintza garatzeko eta gune hori jaregiteko.

5) Lehetasunezko jarduketa-guneak eta zailtasunak dituzten enpresak.

Lehetasunez jardun beharreko eskualdetan eta udalerrietan berariazko jarduketa-planak egingo dira eta zailtasunak dituzten edo berreraikitze-prozesuetan dauden enpresei laguntza emango zaie.

Lehetasunez jardun beharreko eskualdeen garapen industrialerako eta sozio-ekonomikorako estrategia bat sustatuko da, jarraitutasuna emango diona 2018-2020 aldiko txoke-planari.

Ezkerraldea-Meatzaldea, Enkarterria-Encartaciones eta Oarsoaldea eskualdeetako plan estrategikoak onetsiko dira eta Aiarako Eskualdera eta gune baztertutzat hartzeko errekerimenduak betetzen dituzten beste eskualde batzuetara ere hedatu ahalko dira.

Eskualde-plan hauek 2030eko horizonterako estrategia komun batean integratuko dira, bost jarduketa-ardatz hauek jasoko dituena: susperraldi ekonomikoa; enpleguaren sorkuntza; enplegurako prestakuntza; gizarte-kohesioa eta hiri- eta ingurumen-berroneratzea.

Zailtasunak dituzten enpresen berregituraketa erraztuko da Bideratu Programa indartuz eta inbertsio teknologikoak egiteko babesak emango da egungo Luzaro Funtsaren partaidetzako maileguekin. Hori guztia ukitutako pertsonen lanpostu berria aurkitzea eta birziklatzea errazten duten ekintzekin osatuta.

6) Euskal enpresen nazioartekotzea.

Konpromisoa 2025 Enpresa-nazioartekotzeko Plan bat onestea da, besteak beste, jarduketa hauek jasoko dituena: nazioarteko abaguneei aurrea hartzen dien adimen “lehiakorrek” eredu bat eraikitzea; Eusko Jaurlaritzaren kanpoko sarea indartzea; alde biko akordioak finkatzea hautatutako eskualdeekin; nazioarteko merkatuetan espezializatutako profesionalen kopurua areagotzea; enpresa-nazioartekotzerako finantza-babeseko programak garatzea eta euskal enpresen kapitalean funts publiko-privatuen bidezko aldi baterako partaidetza izatea, garatzea eta kanpoan hedatzea babesteko.



Enpresa-nazioartekotzeko plan honek Euskadi Basque Country marka indartu eta sustatuko du, euskal enpresek atzerrian aitorpena eta ospea irabazteko tresna gisa.

Nazioartekotzerako babes publikoa finkatzeko, kluster-elkarteen eta Merkataritza-ganberen elkarlana edukiko da. Garapen jasagarriko printzipioak nazioartekotzerako laguntzak ematerakoan kontuan hartu beharreko funtsezko irizpideen artean egongo dira.

3. Ikerketaren eta berrikuntzaren aldeko apustua.

Ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza herrialde baten garapen ekonomikoaren adierazle giltzarriak eta bere produktibitatearen zein lehiakortasunaren baldintzatzaileak dira, baita hazkunde jasangarria lortzeko faktore erabakigarria ere. Berrikuntzaren erronkari erantzuteko, beharrezkoa da baterako esfortzu publiko-pribatu bat egitea eta epe luzearako estrategia bat ezartzea Euskadiko espezializazio adimenduneari oinarrituz, Euskadi berrikuntzaren interesgune europarra bihurtzeko lehentasunezko helburuarekin.

Konpromisoak

1) Espezializazio adimenduna eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plan Estrategiko berria 2030eko horizontearekin.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plan Estrategiko berri bat (PCTI Euskadi 2030) onetsiko da administrazioen, enpresen, klusterren, unibertsitateen eta eragile zientifiko eta teknologikoen parte-hartzearekin; hala, plana Europarekin lerrotatuta egongo da eta Euskadiren erronka sozial eta ekonomikoei aurre egiten lagunduko du.

Espezializazio adimenduneko estrategian sakonduko da eta horrek lehentasunez egingo die aurre trantsizio teknologikoari eta digitalari, energia- eta ingurumen-trantsizioari eta osasun- zein gizarte-trantsizioari.

Horrez gain, dibertsifikazio ekonomikoa eta teknologikoa planteatuko da, Euskadik suspertzen ari diren gaitasunak dituen lau abagune-arlo hauek indartuz: elikadura osasungarria; ekoberrikuntza; hiri jasangarriak eta kultura eta sormen industriak.

I+G+bren orientazioa indartzen da Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuekin lerrotatutako gizarte-erronka handien ebazpena: kalitatezko enplegua; osasuna; klima-aldaketa; digitalizazioa eta genero-berdintasunaren zeharkako erronka.

Enpresen, ikerketa-zentro teknologikoen eta unibertsitateen arteko lankidetzako trakzioko ikerketa-ekimen transbertsalak bultzatu egingo dira zahartze aktiboaren, mugikortasun elektrikoaren eta ekonomia zirkularraren eremuetan.

2) Ikerketaren eta berrikuntzaren eremuko inbertsioak handitzea.

Ikerketa eta garapen zientifiko eta teknologikoa oparotasun ekonomikorako beharrezko baldintza dira. Hortaz, Eusko Jaurlaritzaren konpromisoa da, legegintzaldi osoan zehar, I+G+b bultzatzeko aurrekontuak, batez beste, % 6 igotzea urtean.

Enpresako I+G bultzatzeko programak indartuko dira eta proiektu estrategikoen garapena erraztuko da, liderrak diren trakzio-enpresen, balio-kateko enpresa txikien eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileen parte-hartzearekin. Xedea da 120 proiektu estrategiko bultzatzea legegintzaldian.

Halaber, administrazio publikotik, enpresa-konponbide eta produktu berrien eskaria sustatuko da, erosketa publiko berritzailea indartuz. Helburua da Eusko Jaurlaritzatik edo bere enpresa publikoetatik erosketa publiko berritzaileko edo merkaturatu aurreko erosketa publikoko 12 ekimen abiaraztea.

Euskal Administrazioaren Digitalizaziorako Estrategia bat landuko dugu, Adimen Artifizialeko Estrategia bat barne hartzen duena administrazio publikoan, zerbitzu publikoetan eta gizarte-politikan berritzeko konpromisoen elementu integratzaile gisa, betiere helburu horretarako Europako funtsekin lotuta. Horrez gain, estrategiak hodeiko konponbideak jasoko ditu; big data baliatuko du administrazio-prozesuak hobetzeko eta Datuak Biltegitratzeko Sistema bat sustatu beharko du, behin betiko osatzeko premia publiko eta pribatu guztiak. Horrekin, enplegua eta lehiakortasuna sortzen dituzten gaitasun teknologikoak gehitu ahalko dira.

3) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sistemaren emaitzak eta bikaintasuna hobetzea.

Basque Research and Technology Alliance (BRTA) finkatuko da, euskal eskaintza teknologikoaren tresna integratzaile gisa eta Europan eta munduan gure ikertzeko gaitasuna proiektatzeko helburuarekin.

Ikerketako lankidetzaproiektu estrategikoak babesteko programak indartuko dira Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragile desberdinen eta euskal enpresen artean.

Euskal Unibertsitate Sistematik garatutako bikaintasuneko ikerketa bultzatuko da eta ikerketa zientifikoa indartuko da nazioarteko zentroekin elkarlanean, baita ikertzaileak erakartzea ere, zehazki, Europako Ikerketa Institutuaren bekekin.

4) Berrikuntza indartzea enpresa txiki eta ertainetan.

Konpromisoa da berrikuntza “azkenengo miliara” arte eramatea, hau da, enpresa txikietara eta ertainetara heltzea. Horrela, berrikuntza teknologikoen eta ez-teknologikoen ezarpena sustatuko da produktu eta prozesu desberdinetan, karbono-aztarna txikiagoko produkzio-eredu jasangarriagoetaranzko trantsizioa sustatuz.

Enpresa-berrikuntza babesteko programak indartuko dira, bereziki zuzenduko zaizkienak ETE industrialei eta industriarekin lotutako zerbitzuen ETEei, 5.000 ETE gehitzeko eraldaketa digitalera eta berrikuntzara.

Diseinu industrialarekin, merkaturatzearekin, marketinarekin eta antolakuntzarekin lotutako berrikuntza babesteko programak indartuko dira, marka eta diseinu europarren eskaera bultzatuz.

Finkatu egingo da Lanbide-heziketako Zentroek berrikuntza teknologikoaren eta baliozkotze esperimentalaren eremuan ETEak babesteko duten eginkizuna.

ETE berritzaileak aintzatesteko berezko sistema bat ezarriko da, horien marka-irudia eta ospea hobetzeko.

5) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sistema nazioartekotzea.

Konpromisoa da Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sistema nazioartekotzean eta irekitzean aurrera egitea, euskal lidergoa eta parte-hartzea bultzatuz “Horizonte Europa” esparru-programa europarraren etorkizuneko misioetan.

Babes-programa bat abiaraziko da, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileek proiektu europar gehiago zuzentzea lortzeko.

I+G+b zentroetan eta proiektuetan nazioarteko inbertsio pribatuak erakartzea sustatuko da. Xedea da Euskadi “inbertsiorako leku erakargarria” izatetik, “berrikuntzarako leku erakargarria” ere izatea lortzea.

Euskadi Europako berrikuntza-interesgune gisa kokatuko da, gehiago parte hartuz Horizonte Europa esparru-programaren misioetan eta Digital Innovation Hub sare europarrean eta EIT Food erkidegoan. Horretarako, Euskadin, EIT erkidegoaren euskal egoitzetan sortutako start-upen ezarpena sustatuko da.

6) Talentu zientifikoa eta teknologikoa garatzea eta erakartzea.

Atzerriko ikertzaileen erakarpina mantenduko da nazioarteko bikaintasun-irizpideekin eta arreta berezia jarriz euskal ikertzaileen itzuleran eta laneratzean.

Helburua da, Research fellows de Ikerbasque programaren bidez, esperientzia duten 100 ikertzaile berri gehitzea; horien erdia, nagusiki, Euskadin ikasitakoak izango dira. Azkenean lortu nahi dena da Ikerbasquen bikaintasuneko 400 ikertzaile edukitzea.

Ikertzaileen prestakuntza indartuko da doktorego industrialaren bidez, betiere enpresen premiekin bat eginez.

Basque Research and Technology Alliance (BRTA) aliantzaren bidez, nazioarteko talentu teknologikoa erakartzea bultzatuko da, hori euskal zentro teknologikoetara gehitzeko, hain zuzen ere, berariazko programa bat abiaraziz.

Indartu egingo da talentua erakartzea sustatuko duen BIND 4.0. programa, euskal enpresen lehiakortasuna hobetzen laguntzen duten oinarri teknologikoko start-up enpresak abiaraziz.

Zientzia, teknologia, ingeniari eta matematikekin (STEM) lotutako bokazioen garapena bultzatuko da, hezkuntza zikloaren etapa guztiak barne hartuz eta arreta berezia jarriz emakumearen presentzia areagotzean. Emakumearen parte-hartzea eta lidergoa babesteko dira zientziarekin, teknologiarekin eta berrikuntzarekin lotutako proiektu eta ekimenetan, ikertzaileen artean dituen pisua eta garrantzia handitzeko helburuarekin.

7) Ekintzailtza berritzailea babestea.

Ekintzailtzaiko erakunde arteko plan berri bat onetsiko da, foru aldundiekin, udalekin eta ekintzailtzairen euskal ekosistemako eragilerik garrantzitsuenekin elkarlanean. Ekintzak garatuko dira publikoki aintzatesteko ekintzaileen papera eta gizarteari egiten dioten ekarpena.

Programa bat bultzatuko da hezkuntzaren, zientzia-teknologiaren eta enpresen eremuetan izaera eta kultura ekintzaileak sustatzeko, hori guztia Euskadi ekintzailtzarako gero eta leku erakargarriagoa izatea lortzeko helburuarekin. Horretarako, BIND 4.0 ekimena indartuko da eta enpresa berritzaile berrien eta oinarri teknologikoko enpresa berrien sorkuntza babesteko azpiegiturak eta zerbitzuak hobetuko dira, leihatila bakar gisa jarduten duen atari zentralizatu bat garatuz.



Konpromisoa da, enpresa-ekimen berrien lehenengo faseetan, finantza- eta inbertsio-babeseke tresnak hobetzea, zehazki, Ekintzaile, Aurrera eta Basque Fondo programen bitartez.

4. Azpiegitura eta garraio jasangarriak.

Garraio-azpiegiturak oinarrizkoak dira hazkunde ekonomikorako, bizi-kalitatea hobetzeko, lurraldea egituratzeko eta gizarte-kohesiorako. Euskadi Europako Korridore Atlantikoaren “kate-maila giltzarria” bihurtzearen alde egiten dugu, baita mugikortasun jasangarriko eredu berri bat sustatzearen alde ere, gizarte-eta ingurumen-kostu txikiagoa duten garraiobideak lehenesten dituena. Helburu horrekin, mugikortasun jasangarriko lege berri bat eta plan berri bat onetsiko ditugu, trenbide-inbertsioak indartzen dituztenak, hain zuzen ere, bidaiarien eta salgaien trenbide bidezko garraioa % 20 areagotzeko xedearekin.

Konpromisoak

1) Mugikortasun jasangarria.

Hitzematen dugu mugikortasuna maila globalean gaintitu beharreko erronka nagusiekin lotuta indartuko dugula: klima-aldaketaren aurkako borroka eta berrikuntzaren eta digitalizazioaren aldeko apustua.

Horretarako, Mugikortasun Jasangarriari buruzko Lege bat onetsiko dugu, Lurraldeko Mugikortasun Agintaritza desberdinen eginkizunak finkatzen eta garatzen dituena, Euskadiko Garraioaren Agintaritzarekin koordinazioan. Horren helburua izango da garraio-sistema integratua lortzea, klima-aldaketaren aurkako borrokan eta horren gizarte- eta ingurumen-efektu kaltegarriei aurre egiten laguntzen duena.

Era berean, 2021-2025 Mugikortasun Jasangarriko Plan bat onetsiko da, Euskadiko Garraio Jasangarriaren 2030 Plan Zuzentzailean integratuta egongo dena. Horri esker, mugikortasun jasangarriko eredu berri baten eta berotegi-efektuko gasen emisioetan baxua den garraio baten aldeko apustua indartuko da, ibilgailu elektrikoa sustatuz ibilgailu elektrikoentzako kargaguneak eta zerga-pizgarriak abiaraziz.

Integratutako garraio publiko kolektiboa eta horren intermodalitatea sustatuko dira tarifa-integrazioarekin eta txartel bakarrarekin, Hiri-mugikortasun Jasangarriko Planen garapena sustatuz tokiko eskalan eta garraio publikoaren erabilera intentsiborako hobariak emanez.

Flotak berritzea sustatuko da eta birkarga elektrikorako hobariak emango dira, ibilgailu elektriko arinen (bizikleta barne) bidezko hiri-mugikortasuna bultzatzeaz gain.

Birkarga elektrikoko azpiegiturak sustatuko dira eta potentzia altuko birkarga-sarea hirukoiztuko da, Euskadin birkarga azkarrerako 100 gune lortu arte; horiek “birkarga azkarreko azpiegituren korridore iberiarrean” zein sare europarrean integratuta egongo dira.

Garraio publikoaren elektrifikazioa sustatuko da, flotak berritzea azkartuz, zehazki, foru aldundiekin eta udal erakundeekin elkarlanean. Horrez gain, edukiera handiko autobus elektriko adimenduneko proiektuak hedatuko dira biztanleria-dentsitate altuko hiri-guneetara eta metropoli-guneetara.

Gizarte-sentsibilizazioko jarduketak garatuko dira eta mugikortasun jasangarriaren aldeko gizarte-itun bat proposatuko da.

2) Euskadi “kate-maila giltzarria” Europako korridore atlantikoan.

Euskadin, “European transport networks, TEN-t” salgaien korridore atlantikoaren garapena bultzatuko da. Helburu horrekin, Bilboko hegoaldeko trenbide-saihesbidearen eraikuntza eta Bilboko Portuarekiko trenbide-konexioa dinamizatuko dira.

Lille-Vitoria-Gasteiz tren-autobidearen garapena sustatuko da, Jundizko plataforma multimodala amaituz. Lezoko plataforma logistikoa eta horren trenbide-sarearekiko konexioa garatuko dira, Pasaiaiko Portuaren eraginkortasuna hobetzea ahalbidetuz.

Gainera, Euskadiko eta Akitania Berriko kirol-portuen zerbitzuen eta jardueren baterako eskaintza bat sustatuko da.

3) Trenbide-inbertsioak lehenestea.

Pertsonen eta salgaien trenbide bidezko garraioa Euskadiko mugikortasun jasangarriaren ardatz egituratzaileetako bat bihurtzearen aldeko apustua egiten dugu. Beste jarduketa batzuen artean, “euskal Y” amaituko da, Irun, Donosti, Ezkio, Bilbo eta Gasteizko geltokien eraikuntzarekin. Donostiako lurperatutako trenbide-saihesbidearen obra amaituko da eta Loiolako Erriberetako aldageltokia eraikiko da.

Topoaren trenbide-azpiegituren hobekuntzak amaituko dira Pasaian eta Irunen eta Eibar eta Donostia arteko linean. Trenbide-trazadura hobetzeko obrak egingo dira Aginagan, Eibar eta Donostialdea arteko zerbitzuak hobetze aldera. Era berean, hiri-nukleotan trenbide-bilbearen baterako existentziarako eta integrazioarako ekintzetan aurrera egingo da, udalekin horretarako hitzarmenak garatuz.

Gasteizen, trenbidea Salburua eta Zabalganara hedatuko da eta, Bilbon, Boluetara hedatuko da trenbidea, Abusu auzorako sarbideekin.

Euskal Trenbide Sarea (ETS) Bilboko Metropoli-trenbidearen Hegoaldeko Gunearen eta 4. Linearen inguruko Informazio-azterlanaren zein 5. Linearen eta hori Durango-Bilbao-Txorierri trenbide-linean integratzearen inguruko informazio-azterlanaren gainean egiten ari den informazio-azterlanen ondorioak ezagutzen ditugunean, beharrezko jarduketak burutuko dira, horiek gobernuaren barruan partekatutako konponbide bat aurkitzeko konpromisotik garatzeko.

Halaber, Bilbo-Loiu Aireporturako trenbide-konexioan aurrera egingo da.

4) Garraio-azpiegituren Euskadirako transferentziak osatzea.

Gernikako Estatutua osorik betez eta garatuz, Gobernu Kontseiluak 2017ko irailean babestutako eta Eusko Jaurlaritzaren Autogobernuaren Ponentziara bidalitako Euskal Autonomia Erkidegoari egin beharreko Transferentzien Eguneraketari buruzko 2017ko Txostenak jasotako terminoen barruan eta Espainiako Gobernuak formalki 2020ko otsailaren 20an bidalitako Eusko Jaurlaritzak eskatutako transferentzietan buruzko balizko negoziatioetarako kronograma-proposamen orientagarriarekin bat eginez, dagokion akordioa adostu beharko da “trenbideekin”, “portuekin” eta “aireportuekin” lotutako gai-zerbitzuen transferentziak egiteko.

5. Landa-garapeneko eta elikadurako politika.

Euskal lehen sektorea funtsezko aktibo bat da, kultura-, gizarte- eta ingurumen-balioen transmisiorako elementu gisa. Tokiko nekazaritzak, kalitatezko elikadura-produkzio jasangarria bermatzeaz gain, enplegua eta aberastasuna sortzen dituen sektore bat da, baita ingurumena babesten duen aktibo bat ere.

Ingurune naturala mantentzea eta klima-aldaketaren aurkako borroka ezin dira ulertu aberastasuna eta enplegua sortzen dituen euskal lehen sektore irmo eta berritzaile bat gabe.

Jasangarriagoa den nekazaritza- eta arrantza-eredu baterantz aurrera egitearen alde egiten dugu, euskal landa- eta kostalde-espazioa babestuz eta jarduera ekonomikoa sustatuz. Gure xedea da Euskadi Europako hegoaldeko bioekonomiaren erreferente bihurtzea, baita nekazaritza ekologikoaren eta klima-aldaketaren aurkako borrokaren eredu ere.

Konpromisoak

1) Tokiko elikadura ekologiko eta jasangarria lortzea.

Nekazaritza-politika komunaren (PAC) Landa-garapenerako Plana eta Plan Estrategikoa onetsiko dira Euskadirentzat, jasangarria den eta ingurumenarekiko errespetua duen XXI. mendeko nekazaritza baterantz aurrera egiteko xedearekin. Horretarako, adostasuna bilatuko da erakunde-eragile desberdinen, hau da, Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien eta erreferentziatzko eragile sektorialen artean. Planak elikagaiak xahutzearen aurkako ekimenak jasoko ditu, elikagaiak lehengoratzeko eta berriz erabiltzea erraztuz.

Horrez gain, nekazaritza ekologikoa lehenetsiko da, nekazaritza ekologikoaren ekoizpenerako 7.500 hektarea gehitzeko helburuarekin.

Ziurtatuko da belaunaldi-erreleboa eta neurriak sustatuko dira gure lehen sektorearen modernizazioa eta lehiakortasuna hobetzeko, berrikuntza, inbertsioa, lankidetzeta eta nazioartekotzearen bidez.

Euskadiko mahastizaintza eta ardogintzako guneen garapen integrala babestuko da, kalitate handiko ardoen produkzioa eta merkaturatzea sustatuz eta familia-bodegen eredu babestuz.

2) Arrantza-baliabideen kudeaketa jasangarria.

Euskadiko Itsas eta Arrantza Funts Europarraren (FEMP 2021-2027) Programa Operatiboa onetsiko da, sektorearen lehiakortasuneko eta baliabideen jasangarritasuneko printzipioen pean. Gainera, berezko Arrantza Erakunde Ordaintzaile baten sorkuntza sustatuko da.

Espainiako Gobernuarekin elkarlanean, euskal presentzia indartuko da arrantzako nazioarteko akordioetan. Era berean, hala badagokio eta eskumen-eremuaren barruan, dagozkion lankidetzahitzarmenak sinatuko dira, arrantza-kuoten berezko kudeaketa ahalbidetzeko, bereziki lehenetsiz antxoia eta hegaluze espezieak.

Konpromisoa da uretako eta arrantzako prestakuntza-zentroen talentua erakartzea eta mantentzea sustatzea, hain zuzen ere, aginte-postuetarantz. Belaunaldi-erleleboko neurriak erraztuko dira arrantza-sektoreko enpresen titulartasunean, Euskadin errotzea eta etorkizunean hemen jarraitzea bermatzeko tresna gisa.

Akuikultura eta, bereziki, itsas-akuikultura jasangarria sustatuko dira, ikerketa eta proiektu berritzaile berriak sustatuz ekonomia urdinaren eta zirkularraren eremuan.

3) Euskal landa- eta kostalde-espazioaren babesa.

Ondare naturalaren kontserbazioa eta landa-inguruneko jardura sozioekonomikoen garapena sustatzen dituzten neurriak bultzatuko ditugu. Helburu horrekin, Landa-garapeneko Lege berria osatuko da eta plangintza parte-hartzaileko tresnak sustatuko dira, landa- eta kostalde-guneetan garapen-eragileen sarea eta Tokiko Ekintza-taldeak indartuz.

Bizi-kalitate erosoan bermatzen duten zerbitzu integralen hornidura eta azpiegiturak hobetuko dira. Enplegua eta hazkundea suspertuko dira landa- eta kostalde-guneetan, dibertsifikazio ekonomikoa bultzatuz gizarte-berrikuntzaren bidez, turismoarekin, osasunarekin, ongizatearekin eta teknologia berriekin lotutako eremuetan garatzeko potentziala duten proiektuak babestuz.

Landa-eremuan, enpleguaren sorkuntza eta aukera-berdintasuna sustatuko dira, arreta berezia jarriz emakumeentzako, gazteentzako eta enplegurako sarbide-zailtasunak dituzten kolektiboentzako berariazko programen garapenean.

4) Euskal nekazaritzako elikagaien sektorea, ekintzaitzaren, berrikuntzaren eta klima-aldaketaren erreferente gisa.

Nekazaritzako elikagaien sektorean, proiektu berritzaileen garapena bultzatuko da, batez ere, ekonomia zirkularrarekin, urdinarekin eta gizarte-ekonomiarekin lotutako proiektuena. Elikagaien eta zuraren balio-katean, transferentzia teknologikoa eta 4.0 konponbideen garapena sustatuko dira.

Ekintzaitzeta sustatuko da BIND 4.0. programa indartuz eta Euskadin EIT Food (European Innovation Technology) erkidegoaren euskal egoitzan sortutako start-upen ezarpena bultzatuz.

Konpromisoa da proiektu berritzaileak sustatzea lankidetzan; horiek bitarteko eragileen eta nekazaritzako elikagaien berrikuntzaren brokeren babesa izango dute. Elikagaien eta zuraren balio-katean ezarriko diren estrategia eta politika guztietan klima-agindua txertatzea proposatuko da.

Euskadin, produkzio ekologikoa bultzatuko da, 7.500 hektareetara heldu arte. Horrekin batera, kalitatezko eta ingurumen-aztarnako ziurtapenak garatuko dira eta, abeltzaintza-produkzioen kasuan, animalia-ongizatekoak.

5) Euskadi Europako hegoaldeko bioekonomiaren interesgunea.

Euskadin Europako Bioekonomiako Estrategia aplikatzea sustatuko dugu. Helburu horrekin, "Bioekonomiako Euskal Estrategia" garatuko da eta "Bioekonomiarako Euskal Aliantza" bat bultzatuko da, Bioeskualeen Europako Sarearen lider izateko xedearekin.



Garapen jasangarriko printzipioen pean, baliabide natural fosilekiko menpekotasuna murriztea sustatuko da, biodibertsitatea galtzea saihestuz eta hazkunde ekonomikoan eta enpleguan lagunduz.

Ekintzailletza eta enpresa-jarduera berrien sorkuntza sustatuko dira bioekonomiaren eremuan, lehen sektorean eta elikaduraren industriaren jarduera eraldatzaileetan zentratuz.

6. Bikaintasuneko turismo jasangarria.

Turismoak Euskadiren hazkunde jasangarrian laguntzen du eta gure ekonomiaren dibertsifikazioa babesten du, baina egungo osasun-krisiaren eraginak gehien pairatzen ari den sektoreetako bat da. Neurriak ezarriko ditugu sektoreko enplegua eta jarduera mantentzeko, enpresen likidezia babestuz, bereziki, ETEen eta autonomoen kasuan. Horrez gain, neurriak hartuko ditugu ostalaritzan eta zerbitzu turistikoetan kontsumoa bultzatzeko.

Turismo jasangarria eta arduratsua bultzatzearen alde egiten dugu, Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) txertatuz. Xedea da sektorea ahalik eta lasterren lehengoratzea eta 2025erako 6,5 milioi ostatu-gau turistiko lortzea. Horretarako, Turismo Jasangarrirako Euskal Estrategia berria onetsiko da, “Euskadi Basque Country” marka bultzatzen duena norako turistiko, jasangarri eta arduratsu batekin lotuta, hain zuzen ere, Euskadi turismo bikain, adimendun eta lehiakor bati dagozkion ezaugarriekin lotzeko ekintzak garatuz.

Konpromisoak

1) Turismo Jasangarrirako Euskal Estrategia berria.

Konpromisoa da “2020-2030 Turismo Jasangarrirako Euskal Estrategia” berria onestea; horrek epe laburrerako agertokia jasoko du, Covid-19aren pandemiak eragindako krisi-egoerari erantzuteko. Estrategia horrek enplegua eta jarduera mantentzeko neurriak nabarmenduko ditu, baita Covid-19aren osteko egoerari aurre egiteko epe ertainerako eta luzerako agertokia ere, sektorearen erronka eta joera nagusietan jarriz arreta. “Turismoaren eremuko mugikortasun-plan jasangarria” proposatuko da, interes-talde guztiak sentsibilizatzeko eta kontzientziazteko zerbitzu eta produktu turistikoen jasangarritasunaren garrantziaren inguruan.

2) Euskadi-Basque Country norako turistiko segurua, jasangarria eta arduratsua.

Nazioarteko arauen arabera ziurtatutako kudeaketa-sistemen ezarpena sustatuko da, sektore seguruagoa eta jasangarriagoa bultzatzeko, enpresa-erantzukizun sozialeko printzipioak txertatzeko eta sektoreko langileentzako lan-baldintza duinak bermatzeko. Sektore turistikoan, kode etiko bat eta Garapen Jasangarrirako Helburuen aplikazioa sustatuko dira.

Halaber, genero-berdintasuna bultzatuko da sektorean, zehazki, “Enpresa turistikoetako berdintasun-plan” bat garatuz.

3) Euskadi-Basque Country bikaintasuneko norako turistikoa.

Euskadiko turismoa lehenasunezko merkatuetan sustatzearen aldeko apustua egiten jarraitzen dugu; ildo horretatik, berriazko protagonismoa emango zaie gure erreferentziazko merkatu nagusietan erakartzeko gaitasun handiagoa duten produktuei, besteak beste, hauei: mendi-ibiliak; bide berdeak edo turismo industrialaren aldeko apustua, berezitasun eta dibertsifikazio turistikorako elementu gisa. Horrez gain, murgiltze-errealitateko tresnak sustatuko ditugu, nazioarteko turistek Euskadiko paisaiak eta baliabideak esperimentatzeko, gure herrialdera itzultzeko eta zuzenean egiteko aukera izan arte.

Sektoreko enpreekin elkarlanean, jardunbide egokien gida bat egin eta sustatuko da, gure produktu eta zerbitzu turistikoaren kalitatea eta bikaintasuna bermatzeko aldera. Sektorearekin batera lan egingo da, bidezko xedapenak sustatzeko eta kontsumitzailearen erabateko babesa bermatzeko.

Konpromisoa hartu dugu eskaintza turistikoaren bikaintasuna sustatzeko, hori norakoen dibertsifikazioarekin lotuz eta bestelako eskaintzekin uztartuz: gastronomikoa, enologikoa, kirolekoa eta kulturala. Aurrekoaz gain, familia-, ongizate- eta negozio-turismoarekin uztartuko da. Helburua da bidaiariak eta horien segurtasuna jartzea estrategiaren erdigunean.

4) Euskadi-Basque Country norako turistiko adimenduna.

Turismoaren adimen lehiakorreko sistema bat garatuko da, eragile publikoen eta pribatuen lankidetzarekin eta koordinazioarekin.

Inguruko jarduera eta joerak monitorizatuko dira, erabakiak hartzeko informazio erabilgarria lortzeko, arreta berezia jarriz Covid-19aren osteko agertokian eskaria sustatzeko estrategien diseinuan.

Sektorearen trebakuntza digitalaren diagnostikoa egingo dugu eta eraldaketa digitalerako egokitzapen-plan bat bultzatuko dugu, turismo-bulegoak “XXI. mendeko turismo-bulegoaren” eredura egokitzea eta diseinatzea barne.

5) Euskadi-Basque Country norako turistiko lehiakorra.

Konpromisoa da Marketin Turistikoko 2024 Plan bat onestea eta turismoan adituak diren pertsonen diziplina anitzeko foro bat sortzea, euskal sektore turistikoaren lehiakortasuna hobetzeko eta eskaria sustatzeko estrategiak diseinatzen lagunduko duena. Prestakuntza-plan bat ezarriko da, sektoreko profesionalak trebatzeko, bereziki, digitalizazioaren, negozio-eredu berrien, berrikuntzaren eta turismo jasangarriaren eremuetan.

Era berean, Lanbiderekin koordinatuz, trebakuntza profesionaleko ziurtapenen programa bat sustatuko da eta ekintzailetza eta belaunaldi-erreleboa errazten dituzten neurriak sustatuko dira.

7. Merkataritza eta ostalaritza suspertzea.

Merkataritza- eta ostalaritza-jarduera gure gizartearen eta hirietako bizitza-ereduaren oinarriko elementu bat da, tokiko hazkunde ekonomikoan eta enpleguaren sorkuntzan laguntzeaz gain. Osasun-krisiaren eragin larriaren ostean, merkataritza eta ostalaritza galdutako enplegu guztia berreskuratzearen alde egiten dugu. Horretarako, Merkataritza eta Ostalaritzako Plan berri bat onetsiko dugu, sektorearen erronka nagusiei erantzungo diona, bere lehiakortasuna hobetuz eta saltoki txikiei eta tokiko ostalaritzari arreta berezia emanez.

Konpromisoak

1) Merkataritza eta Ostalaritzako 2024 Plan berria.

Konpromisoa da “Merkataritza eta Ostalaritzako 2024 Plan” berri bat onestea eta abian jartzea, bi fase desberdinetan egituratuko dena. Epe laburrerako lehenengo faseak pandemia amaitu arte iraungo du; fase horretan, enpresen likidezia sustatzeko eta enplegua suntsitzea saihesteko neurriak bultzatuko dira, espazio eta establezimendu seguruen protokoloak ezarriz. Bigarren fasea pandemiaren osteko agertokiarekin lotuta egongo da, itzuli beharrik gabeko laguntzen eta abaldun kredituen laguntza-pakete batekin, sektoreko enpresa txikiek bizirautea ahalbidetzeko. Era berean, sektoreko erronka eta joera nagusiei erantzuten dizkieten neurriak ezarriko dira, hain zuzen ere, ingurumenaren, ekonomiaren eta gizartearen eremuetako jasangarritasuna bultzatuz.

2) Merkataritzaren eta ostalaritzaren lehiakortasuna hobetzea.

Kudeaketa aurreratuko eredu baten ezarpena sustatuko da, sektoreko enpresen lehiakortasuna hobetzeko. Horrekin batera, merkataritza eta ostalaritza eraldaketa digitalera egokitzeko plan bat abiaraziko da.

Zaintza lehiakorreko sistema bat garatuko da, sektorearen bilakaera aztertzen duena eta nazioarteko joerak zein jardunbide egoki berritzaileak identifikatzen eta zabaltzen dituena.

Konpromisoa da merkataritza eta ostalaritzarako prestakuntza-plan berri bat onestea. Sustatuko ditugu “e-learning” plataforma eta prestakuntza-eredu berriak, profesionalen gaitasunak indartzeko, betiere lehenetsiz eraldaketa digitalarekin lotutakoak.

Merkataritzaren eremuko berriazko lanbide-heziketa aurreratuko zentro bat abian jartzea proposatuko da, eskumen berriak izango dituzten profesional berriak trebatzeko. Gainera, sektorearen atrakzioa eta berritzea indartuko dira, gazteak kontratatze laguntzak emanez.

Gainera, programa bat abiaraziko da bere jardura Merkataritzako Bulego Teknikoetan garatzen duten pertsonen trebakuntza indartze aldera.

3) Tokiko merkataritza eta ostalaritza sustatzea.

Foru aldundiekin eta udalekin elkarlanean, saltoki txikietan kontsumoa sustatzeko erakunde arteko kanpaina bat garatuko da tokiko kontsumoa bultzatzeko bonuekin. Kanpaina horrek hurbileko merkataritza eta horrek ekonomian eta enpleguan duen garrantzia nabarmenduko ditu.

Tokiko ekonomia eta produktuak babesten dituzten saltokien zein ostalaritza-establezimendu berezien ikusgarritasuna indartuko da eta areagotuko da.

Merkataritza suspertuko da auzoetan. Merkataritza hobetzeko barrutiak (Business Improvements Districts) abiaraziko dira, lankidetzaz zonalak eta enpresen eta erakundearen arteko aliantza sustatzeko, zehazki, lankidetzaz publiko-privatuko ingurune batean.

Lan-mahaiak sortuko dira merkataritza-hirigintzaren irizpidea txertatzeko herrien eta hirien diseinuan, hori guztia udalekin koordinazioan eta udalen mugikortasun-planaren esparruan, merkataritza-guneetarako irisgarritasuna hobetzeko helburuarekin.

Ekintzailertza eta merkataritza-negozioko eredu berrien sorkuntza babestuko dira, hutsik dauden lokalak merkataritza-erabilera baterako berreskuratzea bultzatuz.

4) Erakunde arteko gobernantzan sakontzea eta aliantzak indartzea.

Xedea da merkataritzako erakunde arteko mahai bat sortzea Eudelen parte-hartzearekin; bertan, ostalaritzaren jarduerak bultzatzeko estrategiak eta planak erabakiko dira, erakunde desberdinen jarduketak koordinatuz.

Udalekin batera, jarduketak bultzatuko dira, eraginkorrak ez diren araudiak identifikatzeko eta beharrezko jarduketak eta erreformak bultzatzeko.

Turismoaren eta merkataritzaren arteko aliantzak indartuko dira, merkataritza-eta ostalaritza-eskaintza indartuz hiriaren atrakzio turistikoko ardatz gisa. Euskal Ganberen Legea eta Merkataritza-jardueraren Legea idatziko eta onetsiko dira.

8. Kontsumitzailearen defentsa.

Kontsumo-modu eta bide berriek kontsumitzaile berriak ere sortzen dituzte eta horiek gero eta gehiago erabiltzen dute teknologia produktuak eta zerbitzuak erosteko. Guk apustua egiten dugu kontsumitzaileen eskubideak errespetatzen dituen kontsumo arduratsua bultzatzearen alde, bereziki kontuan hartuz kolektiborik babesgabeenen eta zaugarrienen eskubideak. Horretarako, Kontsumobide kontsumo- eta ordainketa-modu berrietara egokitzea proposatzen da, kontsumitzaileen informazioa eta prestakuntza indartuz, enpresetan jardunbide egokiak sustatuz, gatazkak bikaintasunez ebartziz eta lankidetzaren eta elkarlan-sareak hobetuz. Era berean, Kontsumitzaileak Babesteko Lege bat onetsiko dugu.

Konpromisoak

1) Kontsumobide egokitzea kontsumo- eta ordainketa-modu berrietara, kontsumitzaileen informazioa eta prestakuntza indartuz.

Kontsumobiden, joeren eta gatazka- zein iruzur-mota berrien analisia indartuko da, analisirako eta prebentzio-neurriak hartzeko beharrezko tresnak gehituz. Kolektiborik ahulenak identifikatuko dira eta informazio- eta prestakuntza-kanpainak egingo dira. Prestakuntza eta informazio hobekak dituzten kontsumitzaileak edukitzearen alde egingo da, hau da, bere eskubideak eta betebeharrak ezagutzen dituztenak eta kontsumo arduratsua lortzeko duten paperaz eta garrantziaz kontziente direnak.

2) Enpresetan kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideekiko errespetuzko jokabideak sustatzea.

Konpromisoa da enpresa-jardunbide egokien kodeen ezarpena sustatzea, akordioak lortuz elkarte profesionalekin eta enpresa-elkarteekin, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideen babesa hobetze aldera. Zorroztasunez jardungo da merkatuan jardunbide desegokiak eta legeen urraketak jazartzeko eta deuseztatzeko.

Enpresen erantzukizuna eta gardentasuna sustatuko dira, kontsumitzaileen eskubideak errespetatzeko borondatezko mekanismoak garatuz. Eusko Jaurlaritzak kontsumo etikoa eta arduratsua eta arbitrajeko borondatezko sistemarako atxikipena txertatuko ditu laguntza, diru-laguntza, sari eta enpresa-babeseko beste edozein modalitatearen emakida-irizpideetan.

3) Bikaintasunerantz lan egitea kontsumo-gatazken ebazpenean.

Konpromisoa da kontsumitzaileen erreklamazioak eraginkortasun handiagoarekin kudeatzea eta Kontsumoko Sistema Arbitrala optimizatzea, administrazio-prozedurak sinplifikatuz.

Erreklamazioen izapidetze elektronikoa eta telematikoa bultzatuko da, KontsumoNETen erabilera bakarra areagotuz eragile guztientzat. Bitartekaritza sustatuko da kontsumo-arbitrajearen aurretik gatazkak ebazteko bide gisa.

4) Lankidetza- eta elkarlan-sareak hobetzea kontsumo-politiketan.

Konpromisoa hartzen da kontsumitzaileak defendatzen lan egiten duten organismo guztien jarduketak koordinatzeko, horrela horien eskubideak babesteko ekintzak indartzeko. Kontsumitzaileen babes integrala bermatzea lehenetsiko da, sail zein erakunde arteko lankidetza hobetuz. Akordio berriak diseinatuko dira eragile giltzarriekin eta kontsumo-politikekin lotutako eragile guztien erantzunak homogeneizatuko dira.

Nazioarteko sareetan parte hartzea sustatuko da, bereziki, eremu europarrean, lankidetzan eta elkarlanean kontsumitzaileen babesa hobetzera zuzendutako jarduerak bultzatuz.

II. PERSTONAK, GARRANTZITSUA: Osasuna, zerbitzu publikoak eta gizarte-politikak bermatzeko konpromisoa.

JARDUKETA-ARLOAK. KONPROMISO PROGRAMATIKOAK:

9. Osasun publikoa indartzea.
10. Bidezko kalitatezko hezkuntza-sistema.
 - 10.1. Haur, lehen eta bigarren hezkuntza.
 - 10.2. Lanbide-heziketa.
 - 10.3. Bikaintasuneko unibertsitatea eta ikerketa.
11. Gizarte-politikak bermatzea.
 - 11.1. Gizarteratzea. Gizarte-zerbitzuen eta zerbitzu soziosanitarioen euskal sistema.
 - 11.2. Etxebizitza, Hiri-berroneratzea eta Hiri-agenda.
 - 11.3. Adinekoak.
 - 11.4. Familiak eta haurrak.
 - 11.5. Migrazioa.
12. Gazteria.
13. Genero-berdintasuna. Indarkeria matxistaren aurkako borroka.
14. Kultura, Euskara eta Kirola.

9. Osasun publikoa indartzea.

Covid19aren pandemiak agerian jarri du beharrezkoa dela gure osasun-sistema indartzea, herritarrek aurre egin behar dizkieten osasun publikoko mehatxu berriei erantzun egokia emateko. Berresten dugu osasuna gizakiaren funtsezko eskubide bat dela. Zentzu horretan, sistemaren kudeaketa publikoa indartuko dugu eta osasun-zentroen eta zerbitzuen titulartasun publikoa mantenduko dugu. Guretzat, pertsonak osasun-sistemaren ekintzaren ardatz nagusia dira. Kalitatezko eta bidezko osasun-sistema unibertsala eta publikoa defendatzen dugu. kalitatezko osasun-zerbitzuetarako irisgarritasuna eta horien estaldura bermatuz Euskadin bizi diren pertsona guztiei, Osasun-antolamenduari buruzko Legean oinarrituta. Halaber, osasun-sistema haurtzarotik ohitura osasungarriak hartzearekin eta indartzearekin lotuta egon beharko da.

Koronabirusaren mehatxuari aurre egiteko eta euskal osasun-sistema publikoa arreta unibertsal, eraginkor eta zuzenaren erreferente europar gisa finkatzeko partekatutako oinarriak hauek dira:

- Lehen mailako arreta indartzea laguntza-integrazioan aurreratuz, batez ere, eremu soziosanitarioan.
- Osasun-instalazio eta ekipamenduak modernizatzea eta egokitzea.
- Osasun-zerbitzuen eta ekipamenduen produkzio industrialeko eta ikerketako berezko ekosistema bat sustatzea.
- Langileen kopurua handitzea, horiek berritzea eta finkatzea eta osasun-profesionalen prestakuntza eta aitorpena hobetzea.
- Pertsonen zerbitzura dagoen osasun hurbilagoko estrategia bat garatzea.

Oinarri horiei jarraiki, konpromiso hauek proposatzen ditugu.

Konpromisoak

1) Lehen mailako arreta indartzea laguntza-integrazioan aurreratuz.

Koronabirusaren pandemiari erantzuteko, osasun publikoko gailuen integrazioa hobetu behar da osasun-arretako zerbitzuetan.

Hala, 2013-2020 Osasun-planaren ebaluazioa egingo dugu eta, prozesu horretatik abiatuta, 2021-2028 Osasun-plan berria zehaztuko dugu; horretan, osasunarentzako mehatxu berrien arabera Osasun Publikoko Estrategia berria txertatuko da, erkidego-osasunaren ideia garatuz eta teknologiaren eta ikerketaren aldeko apustua eginez, prebentziozko elementuak eta elementu zuzentzaileak diren aldetik. Ondorio horietarako, osasun publikoko lege bat onetsiko da, alertako eta erantzun azkarreko sistemak indartzeko, erkidegoaren osasunerako arriskuak prebenitzeko, babesteko eta detektatzeko.

Lehen mailako arreta lehenetsiko da, fakultatiboen kopurua eta barneko erizaintza egoiliarreko plazak handituz eta medikuen zein erizainen lana desburokratizatuz.

Covid19aren kutsapenak detektatzeko eta horien segimendua egiteko teknologia berriak ezarriko dira, Osasunaren Mundu Erakundearen gomendioei jarraiki eta segimendu-testak egitea bultzatuz lehen mailako arretako zerbitzuetatik.

Lehen mailako arretako azpiegitura berriak irekiko dira eta behar duten lehen mailako zentroak birmoldatu eta eraberrituko dira, antzemandako beharren eta horretarako ezarritako plangintzaren arabera.

Arreta soziosanitario integrala emango da eta, horretarako, gizarte-politiketako eta osasuneko sailen arteko baterako gobernantza soziosanitarioko dekretu bat argitaratuko da; horrek lehen mailako arreta soziosanitarioaren garapena jasoko du ardatz egituratzaile gisa.

2) Osasun-instalazio eta ekipamenduen modernizazioa eta egokitzapena.

Osasun-instalazioak eta ekipoak hobetzeko eta modernizatzeko berariazko plan bat onetsiko da legegintzaldi osorako.

Besteak beste, plan honek neurri hauek aurreikusiko ditu: Lehen mailako arretako zentroak eta ospitale-zentroak berritzeko plana. X izpien ekipamenduen eta anestesia-ekipoen berritze mailakatua. Bloke kirurgikoak, endoskopia-gelak, hemodinamikoa, erradioterapia eta ospitaleetako gainerako ekipamendu medikoak eta instalazioak modernizatzea eta handitzea. Bereizmen handiko zentro bat eraikitzea Tolosan.

3) Osasun-ikerketako berezko ekosistema bat garatzea eta osasun-eremuarekin lotutako enpresa-multzoa bultzatzea.

Osasun-ikerketako plan estrategiko berri bat onetsiko da Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Planaren eta Euskadiko RIS3 Espezializazio Adimendunaren Estrategiaren esparruan. Horrez gain, osasun-ikertzaileen estatutu berri bat sustatuko da, horien eta sistema zientifiko-teknologikoaren eta enpresa-sistemaren arteko harremana eta lankidetzaz errazteko.

Osasunaren eremuko I+g erakundeen sareko funtzionamendu koordinatua indartuko da, bere egitura sinplifikatuz eta estatu mailako zein nazioarteko mailako aliantza estrategikoak indartuz.

Berariazko laguntza-programa berri bat abiaraziko da, produkzio zientifikoa eta emakumeek osasun-ikerketan parte hartzea bultzatze aldera.

Osasun-ikerketako sistemarekin elkarlanean, kluster biosanitarioa eta osasun-ekipamenduekin eta zerbitzuekin lotutako euskal enpresa-egituraren garapena bultzatuko dira, osasun-sistemaren premiei erantzun hobea emateko eta osasun-material estrategikoaren produkzioa bermatzeko, baita osasun-materialaren erreserba estrategikoko stocka zehazteko ere.

4) Langileen kopurua handitzea, horiek berritzea eta finkatzea eta osasun-profesionalen prestakuntza eta aitorpena hobetzea.

Konpromisoa hartzen dugu Osakidetzako langileak berritzeko eta horien kopurua zein egonkortasuna handitzeko, 2020-2024 aldian 4.000 plaza deituz enplegu-eskaintza publikoetan, Eusko Legebiltzarrean aurkeztutako eta onetsitako hautapen-neurriak aplikatuz.

Egungo lanpostuen zerrenda berrikusi egingo da, profesionalen kategoria berriak txertatzeko eta beharrezkoa baino zuzkidura txikiagoa duten kategorien zuzkidurak areagotzeko, betiere gure inguruko konparazio-parametroekin bat eginez. Langileak hautatzeko eredu berriak eta langileen promozio pertsonalerako eredu berriak aplikatuko ditugu, Eusko Jaurlaritzak osasun-sistema publikoko plazarako sarbidean gardentasuna, justizia eta zuzentasuna bermatzeko onetsitako neurriak txertatuz.

Fakultatiboen eta erizainen artean, berariazko prestakuntza-programak bultzatuko dira, bereziki, gaixotasun infekziosoen detekzio, segimendu eta tratamenduaren ingurukoak.

Gai Epidemiologikoetarako Batzorde Iraunkor bat sortuko dugu, Espainiako Gobernuarekin eta Europar Batasunean horretarako erutzen den koordinazio-organismoarekin koordinatuta. Gainera, osasun publikoko gailuak lehen mailako arretako zerbitzu guztietan hobeto integratzeko eta koordinatzeko lan egingo da.

Mugikortasun-sistema ireki bat eta osasun-langileen kontziliazio erantzunkideko programak sustatuko dira, zehazki, ordutegi-malgutasuneko eta telelaneko neurriekin.

5) Pertsonen zerbitzura dagoen osasun hurbilagoa.

Konpromiso honek osasun-jarduketako programa hauek garatzea eskatzen du:

- Pazientearen autonomia sustatzea, osasun-profesionalek dagokien informazio, segimendu eta kontroleko protokoloa burutu ostean.
- Itxarote-zerrendak hobetzeko plana garatzea.
- Osasunaren behatoki bat abian jartzea, herritarren osasunari buruzko informazio guztia jardunbide klinikora gehitzea ahalbidetzen duena. Behatoki honek dagoeneko existitzen diren antolakuntza-egiturak eta giza baliabideen egiturak baliatuko ditu eta berariazko sail bat izango du, Euskadin suizidioari buruz dauden errealitateen eta datuen segimendua, analisia eta azterlana egiteko, suizidioa delako hilkortasun-kausarik garrantzitsuenetariko bat. Horrekin batera, estrategia suizidioa prebenitzera zuzenduko da.
- Arreta berezia osasun mentalari.
- Bizitzaren amaiera duin bati aurre egiteko programa.
- Plan bat garatzea Covid19ari erantzutea lehenesteagatik eta konfinamenduagatik proben eta baheketen garapenean atzerapenak jasan dituzten gaixoak berreskuratzeko.
- Mendekotasun berrien prebentzioa eta tratamendua.

Era berean, pazientearekiko hurbiltasuna hobetzeko konpromisoa hartzen dugu, telelaguntzako eta e-osasuneko programekin eta telemedikuntzako eta adimen artifizialeko aplikazio berriak garatuz, osasun gero eta pertsonalizatuago batean aurrera egiteko.

10. Bidezko kalitatezko hezkuntza-sistema.

Hezkuntza da garapen jasangarrirako helburuak lortzeko funtsezko motorretako bat. COVID 19aren pandemiak nabarmendu du beharrezkoa dela euskal hezkuntza-ereduaren hobekuntzan sakontzea, testuinguru ekonomiko eta sozial berriari aurre egiteko. Berritutako hezkuntza-eredu bat landuko dugu, gaitasuna duena disrupzio teknologikoko testuinguru azkartu batean murgilduta dagoen gizarte batera egokitzeko. Izan ere, testuinguru horrek, eskumen digitalak ez ezik, pentsamendu kritikoa, sormena eta prestakuntza humanista ere indartzeko eskatzen du.

Hortaz, hezkuntza herrialde-erronka handia da. Hazkunde jasangarria eta integratzailea lortzeko tresnarik onena da kalitatezko hezkuntza inklusibo eta bidezko bat bermatzea. Funtsezko hiru elementu dira hezkuntza-ziklo guztietarako, haur, lehen eta bigarren hezkuntzatik lanbide-heziketara eta unibertsitate-sistemara.

10.1. Haur, lehen eta bigarren hezkuntza.

Konpromisoak

1) Bidezko kalitatezko hezkuntza-zerbitzua indartzea, euskal eskola publikoaren funtsezko izaera aitortuz.

Hurrengo legegintzaldi honetarako lehentasunezko helburua da alderdi eta eragile desberdinen arteko akordioa sustatzea eta Hezkuntzaren Euskal Lege bat onestea, gure hezkuntza-sistemaren etorkizuneko erronkei erantzuteko, eskola publikoaren funtsezko papera eta izaera laikoa aitortu eta sustatzeko eta aukera-berdintasuna bultzatzeko irakaskuntza-maila guztietan ikasteko, pertsonen bizitokia, egoera pertsonala, soziokulturala eta ekonomikoa edo eskolatuta dauden zentroa gorabehera, hezkuntza-zentro guztien bikaintasuna bilatuz.

Lege honek aurreko legegintzaldian lortutako oinarrizko akordioa hartuko du kontuan eta abiapuntua euskal eskola publikoaren funtsezko izaera aitortzea izango da. Horrez gain, hauek izango dira bere ezaugarririk garrantzitsuenak:

- Euskal hezkuntza-sistema modernizatzea eta horren egonkortasuna hobetzea.
- Eleaniztasunean aurrera egitea.
- Aukera-berdintasuna bermatzea, ikaskuntza bultzatzeko irakaskuntza guztietan.
- Gure hezkuntza-sistemaren finantzaketa berrikustea, hezkuntza-zentroek benetan egiten duten gizarte-eginkizunarekin eta eginkizun hezitzailearekin lotuz.
- Zentroen autonomia areagotzea, arreta berezia jarriz zuzentasunean eta bikaintasunean, bizikidetza positiboko esparru batean.

Ildo beretik, 2 eta 16 urte bitarteko hezkuntza-ibilbidea duten zentro publiko integratuen ezarpenean aurrera egingo da.

Gainera, hezkuntza-azpiegiturak hobetu eta modernizatu egingo dira onetsitako azpiegituren planarekin bat etorri; hain zuzen ere, planak 200 jarduketa baino gehiago aurreikusten ditu, besteak beste, hauek: Tolosako Orixe, Gasteizko Salburua eta Leioako Barandiaran institutu berriak; Muskizko bigarren hezkuntzako institutua handitzea eta Dantzertiren egoitza berria.

2) Eleaniztasunean aurrera egitea, euskara hartuz ardatz nagusitzat.

Gure ustez, posiblea eta bateragarria da euskararen eta gaztelaniaren erabilera eta ezagutza finkatzen jarraitzea eta hezkuntza-sistema eleanitz baterantz aurrera egiten jarraitzea. Sistema horrek euskara edukiko ardatz nagusi gisa eta hobekuntza eta aurrerapen nabarmenak jasoko ditu ingelesaren prestakuntzari dagokionez, sare publikoaren eta itunpeko sarearen arteko oreka bilatuz.

Helburu horrekin, zentro guztietan hedatuko dira hizkuntza-proiektu eleanitzak, horien errealitate soziolinguistikora egokituz eta euskara hartuz ardatz nagusitzat.

Horrez gain, konpromiso hori gauzatzeko, beharrezkoa da irakasleen atzerriko hizkuntzen prestakuntzarako eta prestakuntza metodologikorako berariazko plan bat garatzea. Ingelesko berariazko prestakuntza emango zaie, hizkuntzen didaktikan dituzten eskumenak eta hizkuntzen tratamendu integratua hobetzeko. Zehazki, ingelesaren irakaskuntza hedatzeko plana eguneratu eta indartuko da, lehen hezkuntzako 4. mailatik aurrera, gutxienez irakasgai bat ingelesez emateko helburuarekin. Halaber, ikasleen ingelesaren ezagutza-maila hobetzeko jarduerak indartu egingo dira.

3) Bikaintasunerantz aurrera egiten duen eskola inklusiboa, zuzena eta berritzailea.

Konpromiso lauhoitz hori ekimen hauetan gauzatuko da:

- Aurrera egitea 0 eta 2 urte bitarteko haurren eskolatze goiztiarrean, 2 urteko haurren eskolatzea ia-ia %100era heltzea lortzeko eta, horrekin batera, adin txikiagoetan dagoen eskari osoari erantzuteko.
- Gizarte-kohesioa sustatzea dibertsitatearen eta kulturartekotasunaren aurrean, atzerriko ikasleen ehuneko altua duten ingurune baztertuetakoz zentroak lehenetsiz.
- Ikaskuntzarako aukera-berdintasuna bultzatzea irakaskuntza guztietan eta hezkuntzarako sarbidean dagoen edozein oreka edo desberdintasun deuseztatzea.
- Haurren zailtasunei arreta goiztiarra emateko programak indartzea, oraingo protokoloa eta horren aplikazioaren kudeaketa hobetuz. Horrez gain, zaurgarritasun-egoeran dauden ikasleentzako eskolaz kanpoko babes-programak indartu beharko dira.
- Eskola-mapa eguneratzea, hezkuntza-sistamarako sarbidea bermatzeko orekaz, zuzentasunez eta gardentasunez.
- Plan bat sustatzea euskal hezkuntza-adierazleen sisteman oinarritutako emaitzak hobetzeko, antzemandako hobekuntza-arloekin lotutako prestakuntza-ekimenak txertatuz.
- Balio-hezkuntza indartzea, hezkidetzeta eta prebentzioa eta eskola-jazarpenaren deuseztapena errazten dituen bizikidetzeta positibo baterako.
- Gaitasun handiko ikasleentzako hezkuntza-arretako plana garatzea.

Bestalde, eskola berritzaile, moderno eta sortzaile bat eraikitzeke, beharrezkoa da hezkuntza-sistemaren eraldaketa sustatzea, hori eraldaketa teknologiko eta digitalera egokitzeko. Gure xedea da hezkuntza-zentro guztiek edukitzea digitalizazio-plan bat, berezko ikaskuntza-plataforma birtual bat garatzeko, beharrezko neurriak hartuz teknologia hauetarako sarbide eraginkorra errazteko baliabide gutxiago dituzten ikasleei. Gainera, STEM bokazio zientifiko-teknologikoak sustatuko dira hezkuntza-etapa guztietan, batez ere, emakumezkoen artean, eten teknologikoa eta soldata-arraila murrizteko.

4) Autonomia gehiago ematea zentro publikoei eta irakasleen papera indartzea eraldaketaren eragile nagusi gisa.

Zentro publikoen autonomian sakonduko dugu, zentro bakoitzaren ikasleen, horien familien eta ingurunearen ezaugarrietara egokitutako berezko proiektuak ahalbidetzeko helburuarekin.

Horretarako, zuzendaritzen lidergo pedagogikoa indartuko da, zuzendaritza-eginkizunaren prestakuntzaren eta profesionalizazioaren bidez, zuzendaritzaren lan burokratikoetatik eta administrazio-lanetatik deskargatuz.

Era berean, zentroen sareak sustatuko dira, lidergo-esperientzia positiboak partekatzeko. Horrekin batera, hezkuntza-proiektuan oinarritutako hezkuntza-zentroen eta administrazioaren arteko erantzunkidetasun-akordioak ezarriko dira.

Horrez gain, irakasleen papera eta protagonismoa indartuko dira, horiek direlako hezkuntza-sistema osoaren eraldaketarako eragile nagusiak. Helburu hori lortzeko, besteak beste, ekimen hauek garatu behar dira:

- Irakasleen hasierako prestakuntza zein etengabeko prestakuntza sustatzea, apurka-apurka txertatuz txandakako prestakuntza duala unibertsitate-hezkuntzan.
- Irakasle-eginkizunaren ebaluazioan aurrera egitea, irakasle-profilaren eskumenak hartuz erreferentziatuz.
- Hezkuntza-babeseko zerbitzuak ebaluatzea.
- Irakasleen eginkizunaren ospea indartzea.
- Irakasleen eta hezkuntza-langileen egonkortasuna finkatzea, egiturako bitartekotasuna 10 puntu murrizteko helburuan aurrera eginez.
- Zentro publikoetako irakasleen jarraitutasun-tasa hobetzea, zehazki, % 80tik gora.

10.2. Lanbide-heziketa.

Konpromisoak

1) Euskal Lanbide-heziketaren gaitasunak hobetzea.

Gure konpromisoa da errendimendu altuko lanbide-heziketa bateratu batean sakontzea, laneratzeko eta kalitatezko enplegu baterako palanka gisa. Ondorio horietarako, errendimendu altuko prestakuntza-zikloen ereduaren ezarpena hedatuko da, pertsonen eskumen-garapena hobea izan dadin.

Aplikaturako berrikuntza teknologikoa eta 4.0 industria adimentsurako trantsizioa sustatuko dira.

Lanbide-heziketaren eta euskal enpresen arteko loturak estutuko dira, LH duala prestakuntza-ziklo guztietara hedatzeko eta 5.000 euskal enpresa sistema dualera atxikitzea lortzeko helburuarekin.

Enpresetan, berrikuntza aplikatuko proiektuak indartuko dira Tkguneren bidez eta, horrekin batera, lortutako ezagutzak elkarri transferitzea sustatuko da.

TKNIKA indartuko da, Euskadiko LHren Ikerketa eta Berrikuntza aplikatuko zentro gisa.

2) Etengabeko ikaskuntza sustatzea lanbide-heziketaren bidez, guztiontzat irisgarria den irakaskuntzen eskaintza malguago eta bateratuago baten bidez.

Horretarako, irakaskuntza erdipresentziala eta online irakaskuntza indartuko dira, baita tituluen deialdia ere modalitate horretan.

Eskaintza laugarren iraultza industrialaren premiei erantzuten dizkieten eskumen eta titulazio berriekin eguneratuko da. Horrez gain, lanean dauden helduen etengabeko ikaskuntza indartuko da, horien birziklapen profesionala erratzeko.

Lanbide-heziketa osoa (hezkuntzako eta enplegurako heziketa) barne hartzen duten LHko zentro integratuak sustatuko dira, inguruko produkzio-sektore desberdinen antzeko espezialitateak garatuz. Gainera, gizarte- edo lan-eremuan eskuratutako eskumenen akreditaziorako prozesuak bultzatuko dira.

Hezkuntza- eta lan-eremuen artean koordinatutako lanbide-heziketa integratu batean aurrera egingo da, LHko politika publiko guztiontzat komuna den zuzendaritza-organo batekin, hain zuzen ere, ekainaren 28ko 4/2018 Legearekin bat etorritik.

3) Garapen jasangarrirako helburuekin lerrokatutako lanbide-heziketa inklusiboa.

Sortzen ari diren gizarte- eta osasun-erronka berriei erantzuten dien eta Euskadiko espezializazio adimentsuko estrategiarekin lerrokatuta dagoen lanbide-heziketa baten alde egiten dugu. Zehazki, gai hauekin lotutako jardueraz eta eskumenez ari gara: bioekonomia, elikadura jasangarria, ingurune naturala eta itsas-ingurunea, biozientziak eta osasuna, ekonomia zirkularra eta eraikuntza adimentsua eta jasangarria.

Gainera, konpromisoa hartzen dugu lanbide-heziketan inklusibitatea areagotzeko, migratzaileen eta ezgaitasunen bat duten pertsonen presentzia sustatuz, horien laneratzea errazteko.

4) Talentua, emakumearen presentzia eta enpresa berrien promozioa sustatzea lanbide-heziketaren ingurunean.

Talentua sustatuko da honela: “eskumen-kontzeptutik” “talentu-kontzepturako” trantsizioa sustatuz, pentsamendu sortzailea garatuz eta Euskadin lanbide-heziketaren talentuaren mapa bat eginez.

Gainera, ERASMUS beka indartuko dira lanbide-heziketan, ikasleen trebakuntza eta esperientzia hobetze aldera.

Enpresen sorkuntza sustatuko da lanbide-heziketaren eremuan, “Urratsbat” programa garatuz eskualde-garapenerako agentziekin elkarlanean.

Lanbide-heziketak gainditzeke duen erronka bat da emakumeen presentziarekin lotutakoa, batez ere, eremu industrialetan. Horretarako, emakumea lanbide-heziketa industrialean sartzeko berariazko programa bat garatuko dugu, emakumezkoen enpleguaren kalitatea hobetzeko eta soldata-arraila murrizteko tresna gisa.

5) Etorkizunari aurrea hartzen dion nazioarteko lanbide-heziketa eleanitza.

Etorkizunari aurrea hartzen dion lanbide-heziketa berritzaile baten aldeko apustua egiten dugu.

Helburu horrekin, etorkizuneko ikaskuntzen behatoki bat abiaraziko dugu enpresa-multzoarekin batera eta lanbide-heziketako zentroak apurka-apurka bihurtuko ditugu berrikuntza eta aldaketa kudeatzeko gai diren antolakuntza adimendunak.

Konpromisoa hartzen dugu eleaniztasunean aurrera egiten duen eta ikasleak euskaraz prestatzea sustatzen duen lanbide-heziketa batekin, bigarren hezkuntzaren hizkuntza-jarraitutasunerako eta integrazioarako elementu gisa. Horrez gain, lanbide-heziketa horrek apurka-apurka txertatuko du ingelesa irakaskuntza profesionalen erreferentziarako hizkuntza gisa, ikasleen lan-aukeretarako sarbidea errazteko eta enpresen nazioartekotzean laguntzeko.

6) Euskal lanbide-heziketaren nazioarteko proiektzioa indartzea eta loturak eta transferentzia estutzea unibertsitatearekin eta alderantziz.

Horretarako, hauxe sustatuko da: Europako erakundeekiko lankidetzak; LHrekin lotutako ikerketako nazioarteko proiektuak eta LHko euskal sistemaren prestakuntza-jardueren eskaintza beste herrialde batzuetan.

Ildo beretik eta euskal LHren berezitasun-elementu gisa, titulazio bikoitzak eta norabide bikoitzeko transmisio-uhala sustatuko dira lanbide-heziketaren eta unibertsitatearen artean, apurka-apurka ezarriz baterako azterlan desberdinak ibilbide integratuen testuinguru batean.

10.3. Bikaintasuneko unibertsitatea eta ikerketa.

Konpromisoak

1) Euskal unibertsitate-ekosistema indartzea.

Hurrengo legegintzaldirako helburuetako bat da zientziaren eta unibertsitatearen aldeko itun bat lortzea, erreferentziatzat hartuko dituen eredu europarrak aurreratuenak eta euskal unibertsitate-ekosistema indartzen lagunduko duena. Bikaintasunerantz orientatzen den eta talentua eta ezagutza aurreratua sortzen laguntzen duen unibertsitate-sistema baten alde egiten dugu, horiek baitira erronka teknologiko-digitalari eta Euskadiren garapen ekonomiko eta sozialari erantzuteko palankak.

2) Euskal unibertsitate-sistemaren plangintza eta kudeaketa estrategikorako tresna den unibertsitate-plan berri bat onestea.

Unibertsitate-plan berriak euskal unibertsitate-sistemarentzako baliabide publikoak areagotuko ditu eta horrek, baliabide lehiakor eta baliabide pribatuen erakarpina areagotzearekin batera, aukera emango du ikasle bakoitzeko unibertsitate-gastua Europako herrialderik aurreratuenen artean kokatzeko, prestakuntzarako, ikerketarako eta ezagutzaren transferentziarako baliabideak hobetuz.

3) Zuzentasuna, berdintasuna eta euskara sustatzea euskal unibertsitate-ekosisteman.

Horretarako, beken berezko sistema indartuko da, ikaslerik ahulenen egoera sozioekonomikoan eta aukera-berdintasuneko politikan oinarritutako lehentasun-irizpideak ezarriz.

Indartuko dira unibertsitate-prestakuntzan eta ikerketa zientifikoan gizonetzkoen eta emakumezkoen arteko berdintasun errealak bermatzeko estrategiak, unibertsitatearen eremutik, STEM Euskadi strategiaren garapenean lagunduz.

Euskarazko prestakuntza eta ikerketa bultzatuko dira eta online prestakuntza-eskaintza euskaraz, gaztelaniaz zein ingelesez bultzatzen duten programak indartuko dira, graduatan eta graduondokoetan titulazio eleanitzen ezarpena sustatuz.

4) Unibertsitatea+Enpresa Estrategia, unibertsitateko prestakuntza duala eta LH+unibertsitatea prestakuntza indartzea.

Jakin badakigu enpresaren eta unibertsitatearen arteko harremanak funtsezko elementu bat direla unibertsitate-sistema eguneratzeko. Ondorio horietarako, egungo txandakako prestakuntza dualeko eskaintza handituko da 50 titulazioetara heldu arte; 4Gune kluster berriaren lana indartuko da eta unibertsitate-kluster berri bat abiaraziko da kultura eta sormen industriaren arloan. Halaber, LH+Unibertsitatearen baterako titulazioen eskaintza handituko da.

Era berean, irakasleen hasierako prestakuntza eta etengabeko prestakuntza sustatuko dira, prestakuntza dualeko eta lankidetzak-ikerketako programen bidez.

5) Politika zientifikoan eta bikaintasuneko ikerketan sakontzea eta Europarekin zein Euskadiko RIS3 Espezializazio Adimendunaren Estrategiarekin lerrokatzea.

Adierazi nahi dugu konpromisoa hartu dugula unibertsitateko zientziaren eremuan egiten diren I+G inbertsioen urteko batez bestekoa % 6 igotzeko.

Euskal unibertsitate-sistemaren parte-hartzea bultzatuko da Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plan berrian, zehazki, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren bidez. Halaber, ikerketako proiektu europarrak sustatuko dira, bikaintasuneko ikerketa-taldeak jarduerak bultzatuz.

Bestalde, doktoregoaren aurreko eta osteko ikertzaileen prestakuntza-programak indartuko dira, horiek euskal politika zientifikoaren strategiara egokituz. Gainera, Ikerbasquen bidez bikaintasuneko ikertzaileak erakartzeak lehentasuneko izaten jarraituko du, bikaintasuneko ikerketa-taldeak eta Basque Excellence Research Centers (BERCS) zentroen arteko lankidetzak bultzatuz.

6) Euskal unibertsitate-ekosistemaren nazioartekotzean aurrera egitea.

Gure konpromisoa da euskal unibertsitate sistemaren eta bikaintasuneko unibertsitate-sistemen arteko lankidetzak sustatzea, arreta berezia jarritz Euskadi-Nafarroa-Akitania Berria lankidetzan eta, orokorrean, Europako lankidetzan.

Helburu horrekin, ikasleen nazioarteko mugikortasuna bultzatuko da egungo beken sistema indartuz; doktorego-tesiak nazioarteko aipamenarekin egitea sustatuko da eta nazioarteko ikasleak erakartzeko gaitasuna duten masterren eskaintza indartuko da.

Erronka da euskal unibertsitate-sisteman nazioarteko eskaintza bat izatea, legegintzaldiaren amaierarako, gutxienez ere, nazioarteko aipamena duten 40 titulazio lortzeko. Horrekin lotutako beste erronka da irakasleen heren bat nazioarteko titulazioetan irakasteko gai izatea.

11. Gizarte-politikak bermatzea.

Euskal Autonomia Erkidegoa aitzindaria izan da gizarteratzeko, txirotasunaren aurka borrokatzeko eta gizarte-zerbitzuak garatzeko politikak abian jartzeari dagokionez. Aurrerapen garrantzitsuak lortu badira ere, jakin badakigu desberdintasuna eta bazterkeria areagotzen dituzten faktoreek latente jarraitzen dutela eta, orain, une erabakigarri batean gaudela. Adierazi nahi dugu gure konpromisoa dela desberdintasuna eta bazterkeria deuseztatzeko prozesuan aurrera egitea, horrela gizarte gero eta zuzenagoa, bidezkoagoa eta solidarioagoa lortzeko, inor atzean utzi gabe.

Konpromiso horri erantzuteko, gizarte-politikak bermatu eta indartuko ditugu, bereziki, gizarteratzearen, gizarte-zerbitzuen eta etxebizitzaren eremuan sakontzen dutenak eta eragin nabarmena dutenak txirotasunaren aurkako borrokan, adinekoengan, familiengan eta haurren eta migratzaileengan.

11.1. Gizarteratzea. Gizarte-zerbitzuen eta zerbitzu soziosanitarioen euskal sistema.

GIZARTERATZEAREN EREMUAN

Konpromisoak

1) Bazterkeriaren aurkako diru-sarrerak bermatzeko sistema garatzea eta hobetzea.

Legebiltzarrari aurreko legegintzaldian bidalitako Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren erreforma-proposamenaren arabera eta bizitzeko gutxieneko errentaren errealitate berria ikusita, hobekuntza hori hiru jarduketa-ardatz hauetan oinarritzen da:

- Unibertsalizazioan sakontzea, oraindik behar besteko estaldurarik ez duten herritarren segmentuetara helduz eta arreta berezia jarriz ardurapeko seme-alabak dituzten familia ahulengan.
- Kudeaketa hobetzea, izapidetzean arintasuna handituz eta prestazio eta laguntza ekonomikoaren zorrotasuna eta kontrola indartuz.
- Lan egin dezaketen eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren onuradunak diren pertsonen jarduera ekonomikoa eta gizarteratzea zein laneratzea sustatzea.

2) Bazterkeria-arriskuko egoeran dauden pertsonen arreta emateko lurralde-sareen finkapena babestea.

Estrategia integral bat abiaraziko da, babes egonkorak behar dituzten eta bazterkeria-arriskuan dauden pertsonentzako arreta bermatzeko, zehazki, gizarteratzearen eta esku-hartzearen eremutik.

Era berean, aurreratuko da lurralde bakoitzean gizarte-zerbitzuen sarea hedatzeko, gizarteratzeko ibilbide desberdinekiko modu koherentean eta integratuan.

3) Zaurgarritasun eta babesgabetasun bereziko egoerei arreta ematea.

Etixerik gabeko pertsonekin, energia-txirotasunarekin eta bereziki ahulak diren pertsonen eragiten dizkieten bestelako egoera batzuekin (adinekoak, gazteak, haurrak, desgaituak...) lotutako prebentzio- eta kudeaketa-jarduketak indartuko dira, arreta berezia emanez diskriminazio anitzeko egoerak jasaten dituztenei eta/edo gizarte-babeseko sarerik ez duten pertsonen (nahi gabeko bakardadea...).

Europar Batasunaren gomendioei jarraiki, haur-bermeko programa sustatuko da, haurren txirotasunaren aurkako estrategia globalaren funtsezko elementu gisa, ardurapeko seme-alabak dituzten familientzako diru-sarrerak bermatzeko errenta hobetuz.

Horrez gain, Diskriminazioaren Behatoki bat abiaraziko da.

4) 2022-2025 Gizarteratzeko V. Euskal Plana onestea.

Gizarteratzeko V. Euskal Planak aurretik aipatutako erronka berriei erantzungo die eta zikloaren aurkako neurriak aurreikusiko ditu, krisialdi ekonomikoko aldien eraginari aurre egin ahal izateko, arreta berezia jarritz gizarteratzearen eremuan genero-ikuspegia txertatzeari.

GIZARTE-ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMAREN EREMUAN

1) Gizarte-zerbitzuen euskal sistema garatzea erkidego-ikuspegia kontuan hartuz eta kalitateko, berrikuntzako, zaintzen oreka berriko eta eraginkortasuneko printzipioetan oinarrituz.

Horretarako, Gizarte-zerbitzuen II. Plan Estrategikoa egingo da eta gizarte-zerbitzuen erakunde arteko funtsa finkatuko da, gizarte-zerbitzuen zorroari buruzko dekretuan aurreikusitako prestazioak eta zerbitzuak bermatze aldera.

Esparru honetan, 2015eko zorroari buruzko dekretuaren ebaluazioa egingo da; gizarte-zerbitzuen euskal sistemaren katalogoko zerbitzuen eta prestazioen plangintzan, koordinazioan eta araudi-garapenean aurrera egingo da eta erakunde arduradunek adostutako eta hornitutako finantzaketa jasangarriko eredu bat ezarriko da bere eskumen eta baliabideen arabera. Horretan, gizarte-zerbitzuen euskal sistemaren berrikuntza, kohesio eta kalitaterako erakunde arteko egungo funtsa, behin baliabideak banatzeko barne-ereduan txertatuta, honekin lotuta egongo da: ikerketa, teknologia, zaintzekin lotutako lanpostuen sorkuntza eta Europar Batasunak sustatutako proiektuak.

Gizarte-zerbitzuen euskal sistemaren prestazioen zorroa ebaluatzea eta amaitzea proposatzen dugu, batez ere, adinekoentzako arretari dagokionez, zaintzaren, laguntzaren, ostatuaren eta arretaren eremuetan.

Egoitza-zentroak arautzen dituen dekretua egokitu egingo da. Horri dagokionez, COVID-19aren ondoriozko neurri operatiboak aztertu ostean, zerbitzuak ituntzeko araubidea arautzen duen araudi bat sustatuko da, horien garapenerako baldintza egokiak bermatzeko eta gizarte-zerbitzuak egonkortasun, sarbide-eskakizun, hornidura, prezio eta konkurrentziari dagokienez homogeneoa den esparru egoki batean emateko.

2) **Gizarte- eta erkidego-garapena.**

Hurbiltasun handieneko prestazioak eta zerbitzuak indartuko dira, arretako erkidego-ereduan eta kalitatezko boluntariotzaren esparru europarrean sakonduz, hain zuzen ere, erabiltzaileen parte-hartzearekin eta horien eskubideen errespetutik zein sektoreko profesionalen lanaren kalitatearen bermetik abiatuta.

Programa integral bat abiaraziko dugu gizarteratzerako babesak antolatzeko, hobetzeko eta bermatzeko, zehazki, gizarteratze-hitzarmenen bidez eta erreferentziazko profesionalak esleitzuz, betiere diru-sarrerak bermatzeko politikaren eta bestelako politiken (gizarte-zerbitzuak, gizarte-lanekoak, soziosanitarioak...) arteko osagarritasuneko berariazko premien arabera.

Halaber, arreta-piramidearen inbertsioaren segimendua egingo da eta estrategia integral bat planifikatuko da, bere ohiko etxebizitzan bizi diren pertsonentzako zerbitzuak indartuz, bizitzeko erabateko autonomia bermatzeko.

3) **Gizarte-zerbitzuen berrikuntza eta ebaluazioa eta kalitatea sustatzea, emaitza-irizpideekin eta erabilgarritasun publikoko irizpideekin.**

Gizarte-berrikuntzako sistema bat eta I+G+b sistema bat abiaraziko dira gizarte-zerbitzuen eremuan.

Helburu horrekin, erantzukizun publikoko gizarte-zerbitzuen ebaluazioa indartu egingo da, arreta berezia jarriz pertsona hartzaileengan eta horien familiengan. Aurrekoaz gain, ezagutzaren sistematizazioa eta transferentzia indartuko dira.

Saiatuko da eten digitala murrizten eta etxeko arretarekin eta erabiltzaileen zein horien zaintzaileen eta senideen zaintzarekin lotutako teknologia eta aplikazio digital berritzaileen sarbidea, garapena eta ezarpena errazten dituzten proiektuak sustatuko dira.

11.2. Etxebizitza, Hiri-berroneratzea eta Hiri-agenda.

ETXEBIZITZAREN ETA HIRI-BERRONERATZEAREN EREMUAN

Konpromisoak

1) 15 urterako etxebizitzaren aldeko gizarte-itun berria eta legegintzaldiko Etxebizitza Plan Zuzentzaile berriaren onespina.

Gizarte-itun honen helburua izango da etxebizitzarako eskubide subjektiboa garatzea eta, horrenbestez, etxebizitza duin, egoki eta irisgarri baterako sarbidea bermatzea hori lortzeko beharrezko baliabideak ez dituzten pertsonen, etxebizitzaren eginkizun soziala, alokairuko etxebizitzaren promozio publikoa eta birgaitzearen bultzada sustatuz, hutsik dauden etxebizitzak aktibatzeaz gain.

Ondorio horietarako, parametro eta konpromiso hauetan oinarrituko den Etxebizitza Plan Zuzentzaile berri bat onetsiko dugu:

- Alokairura bideratzea etxebizitza publikoko promozioaren % 100a.

- Etxebizitzarako eskubide subjektiboaren araudi-garapena burutzea, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren egungo Etxebizitzarako Prestazio Osagarritik Etxebizitzaren Legean aurreikusitako etxebizitzarako prestazio ekonomikorako trantsizio eta kudeaketa antolatuak bermatuz. Hori guztia, horretarako egokiak diren akordioen eta zuzkiduren bidez.
- Araudi-esparrua garatzea bizigarritasun-dekretuari dagokionez; non honekin lotutako oinarritzko irizpideak ezarriko diren: telelanerako espazioak, osasun-ikuspegia (aireztapena), balkoiak eta familia-kontziliazioa (haurrak eta adinekoak). Horrekin batera, aldi baterako etxebizitzaren (Ada) araudi- eta kontzeptu-berrikuspena egin beharko da.
- Etxebizitza publiko berriaren eta zuzkidura-bizitokien promozioa sustatzea.
- Merkatuan hutsik dauden etxebizitzak gizarte-alokairurako hartzea, Bizigune Programa eta arrazoizko prezioan alokatzeko ASAP Programa indartuz.
- Era berean, planak eta programak garatuko ditugu hutsik dauden lokalak eta lonjak etxebizitza bihurtzeko, hori guztia udalekiko elkarlan estuan.
- Etxebizitza ordaintzeko laguntzen sistema indartzea eta gizarte-alokairuko parkea handitzea.
- Aldundiekin eta udalekin elkarlanean, zerga-neurriak artikulatzea, hutsik dagoen parkea murrizteko eta hutsik dauden etxebizitzak alokairu-eskaintzan txertatzea sustatzeko.
- Hobetzea etxebizitzak esleitzeko prozedurak eta horietarako sarbide-eskakizunak, kolektiborik behartsuenen etxebizitzarako sarbidea errazte aldera, bereziki, hauena: gazteak, adinekoak, seme-alabak dituzten guraso bakarreko familiak eta genero-indarkeriaren biktimak, edonola ere, ghettoak sortzea saihestuz.
- Etxebizitza parke publikoaren kudeaketa aurreratua eta integrala sustatzea, energia-eraginkortasuneko eta digitalizazioko irizpideekin, txirotasun energetikoari aurre egiteko estrategia barne. Hori guztia etxebizitza parke publikorako berezko kudeatzaile energetiko bat sortuz.
- Pertsona ahulak babestea utzarazpen-prozeduretan.
- Eraginkortasuna hobetzea babestutako etxebizitzaren parkearen kudeaketan, Alokabideren erkidegoko esku-hartze programa zabalduz eta hirugarren gizarte-sektorearekiko lankidetzara indartuz.
- Etxebizitzarako sarbidea erraztea berariazko kolektibo hauei: emakumeak, gazteak (Gaztelagun Programa), adinekoak eta desgaituak.
- Etxebizitzarako sarbiderako aukera berritzaileak abian jartzea, cohousinga, erabilera-lagapeneko kooperatibak eta erosketa eta alokairuaren arteko bitarteko aukerak garatuz. Horrez gain, ekimen pribatuarekiko eta udalekiko lankidetzara indartuko da, eraikinetan eta auzoetan bertan belaunaldi arteko bizikidetzara-formulak sustatzeko.

2) Birgaitzea, hiri-berroneratzea eta etxebizitza-berrikuntza, irisgarritasuna, energia-eraginkortasuna eta eraikuntza jasagarria hobetuz.

Proposatzen dugu birgaitzerako laguntza-programak hobetzea eta handitzea, etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko Renove Plan berri bat onetsiz, zehazki, irisgarritasuna (igogailuak eta arkitektura-hesiak kentzea) energia-eraginkortasuna eta kanpo-bizigarritasuna lehenetsiz.

Eraikinen Ikuskapen Teknikoak (EIT) egiteko emandako bultzada berrituko dugu. Hutsik dauden etxebizitzak birgaitzeko programak sustatuko ditugu, arreta berezia jarriz gazteentzako, 55 urtetik gorakoentzako eta iraupen luzeko langabeentzako enpleguaren sorkuntzan.

Aurreko legegintzaldian Hiri-zaugarritasunaren Inbentarioa eguneratu ostean, eguneratzeko eta ebaluatzeko prozesu bat garatu egingo da.

Egiaztatu egin da desfasea dagoela Birgaitze Integraleko Guneen arauketan; hala, Etxebizitzaren Legearen VII. Kapitulua garatzen duen dekretu berri bat sustatuko da, besteak beste, birgaitzearen kudeaketa bateratua errazteko, narriatutako guneen eta lehentasunez esku hartzeko guneen adierazpena sinplifikatuz.

Arkitektura-berrikuntza eta ikerketa-proiektuak sustatuko dira eraikuntza jasagarriaren, ekoberrikuntzaren eta energia-eraginkortasunaren eremuetan, hain zuzen ere, Espezializazio Adimenduneko RIS3 Euskadi Estrategiarekin bat etorritik, Hiri-agenda – Bultzatu 2050en ezarpenaren eta hiri-berroneratze integraleko proiektuen esparruan.

Lanbide-heziketa dualaren bidez, prestakuntzako lankidetzaren planak abiaraziko ditugu, hutsik dauden etxebizitzak birgaitzeko eta gazteentzako enplegua sortzeko.

Euskadiko Epe Luzerako Birgaitzerako Estrategia landuko dugu, arreta berezia jarriz honekin lotutako alderdietan: energia-eraginkortasuna, osasuna bermatzeko baldintzak, erosotasuna edo txirotasun energetikoaren arriskuaren deuseztatzea.

Erakunde kudeatzaile baten sorkuntza sustatuko dugu eta horretan parte hartuko dugu (Europako HIROSS4all proiektuaren garapen gisa); horren misioa izango da Birgaitzeko eta Hiri-berroneratzeko politikaren ezarpenean eta garapenean laguntzea, bere ekintza Euskadiko lurralde osora hedatuz. Halaber, hiri-berroneratze integraleko jarduketak bultzatuko ditugu, ingurumen, gizarte, ekonomia, hiri eta gobernantzako alderdiak jorratuz, auzo zaugarrietan epe luzera esku hartzeko programa baten esparruan.

HIRI-AGENDAREN EREMUAN

COVID 19aren pandemiaren ondorioz hartutako neurriek joan den legegintzaldian onetsitako eta Europako Hiri Agendarekin eta NBERen Habitat III Hiri Agenda Berriarekin lerrokatutako Euskadiko Bultzatu 2050 Hiri Agenda Berrian identifikatutako erronken gaurkotasuna eta irismena nabarmendu dituzte.

Bultzatu 2050 agendaren lehenetasun estrategikoetan oinarrituz eta Lurraldearen Antolamendurako Gidalerroak onetsi ostean, onartzen dugu erronka Euskadiko hirien eredu berri bateranzko bilakaeran oinarritzen dela. Hiri horiek garapen jasangarria eta inklusiboa bermatu eta ahalbidetu behar dute, adimenduna ere badena, gai izateko etengabe aldatzen diren aldagaiak kudeatzeko eta Europan erreferentia den lurralde inklusibo, seguru, erresiliente eta jasangarri gisa kokatzeko. Horretarako:

-) Euskadiko Bultzatu 2050 Hiri Agenda Berria hedatu eta ezarriko dugu, maila anitzeko gobernantza-sistema bat garatuz Bultzatu 2050 Foroa abiaraztearen inguruan.
-) Genero-ikuspegia integratzea hiri-garapenaren eremuan.
-) Hiri-izaera edo dimentsioa duten politika publikoen osagarritasuna eta osotasuna aztertzea eta indartzea.
-) Ebaluazio- eta segimendu-sistema bat ezarriko dugu, Euskadiko egoeraren aldizkako txostenak egingo dituen eta aurreikusitako helburuen betetze-mailaren irismena ebaluatuko duena.
-) I+G+b prozesuak bultzatuko ditugu hiri jasangarrien eremuan.

Era berean, jarduketa horiekin batera, legerian eta araudian beharrezko egokitzapenak egingo dira, jasangarritasun-paradigma berrietara egokitzeko.

11.3. Adinekoak.

Jakin badakigu errealitate demografikoa eta gure gizartearen zahartze azkartua kudeatu beharreko erronkak zirela eta, orain, pandemiaren ondorioz, are premiazkoagoa dela horiei aurre egitea. Gainera, pentsio publiko duinen defentsa berretsi nahi dugu. Hortaz, gure eskumenen eremuan, konpromiso hauek hartzen ditugu:

Konpromisoak

1) Bultzada estrategikoa ematea zahartze aktiboari eta adinekoen autonomia pertsonala, parte-hartze soziala eta bizitza osoa sustatzea.

Bizi-itxaropena areagotzea aldi berean da albiste on bat, erronka bat eta gizartearentzako aukera bat. Erronka demografikoa eta erretiro-adinaren eta 75-80 urteen arteko bizitza-etapa berri baten larrialdiak, bizitza osasuntsuaren itxaropenaren egungo horizonte gisa, adinekoek begiratzeko modu berri bat eskatzen du, hau da, herritar aktibo eta bere patuaren protagonista gisa ikusi behar ditugu. Zentzu horretan, menpekotasun-egoeren prebentzioa, autonomia pertsonalaren promozioa eta adinekoen talentuaren sustapena bereziki garrantzitsuak dira orain, adinekoek ahalik eta bizitzarik aktiboena, osoena eta integratuena garatzen jarraitzeko bere ingurunean, zehazki, bere egoerara egokitutako babesekin.

Ondorio horietarako, ekimen hauek proposatzen dira:

- Euskadi osora hedatzea adinekoekin lagunkoia diren herrien eta hirien sarea: "Euskadi Lagunkoia Sustraietatik".
- Euskadi Langunkoia Sustraietatik Sarean integratzea zahartze aktiboko estrategia eta pertsonen talentuaren garapena, bizitza osoa (bere premiak asetzea) sustatzeaz gain, berezko gizarte-premiei edo hirugarrenen premiei erantzuteko prozesuan aktiboki parte hartzea bultzatuz.

- Proiektu pilotuak garatzea, egokitzapen digitala edo gazteekiko belaunaldi arteko ekintzak bezalako eremuetan zahartze aktiboa sustatzeko.
- Adineko herritarrak aholkatzea eta ahalduntzea interesatzen zaizkien gaitan eta eremuetan: oinarrizko finantza-prestakuntza, jaraunspenak eta bizi-testamentua.
- Zahartze aktiboko indize europarrarekin lerrokatutako zahartze aktiborako euskal estrategia bat onestea.
- Hirugarren adinerako trantsizioa prestatzeko programa berri bat sustatzea.
- Gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrerak bermatzea pentsiodunik ahulenei.
- Adinekoen talentua baliatzea eta sustatzea, politika publiko guztietan parte har dezaten babestuz.
- Adinekoen eta gazteen belaunaldi arteko harremana eta solidaritatea indartzen laguntzen duten programak eta jarduerak sustatzea.
- Adineko pertsonen etxebizitzaren irisgarritasuna eta energia-eraginkortasuna hobetzea. Ondorio horietarako, irisgarritasun-jarduketak burutzeko laguntza-programa zehatzak bultzatuko ditugu (igogailuak eta arkitektura-oztopoak kentzea). Obrak egingo dira horien etxebizitzaren energia-eraginkortasuna hobetzeko eta, beharrezkoa den kasuetan, adinekoek bizitza duin eta egoki batez goza dezaten errazteko.

2) Bakardade-egoeran dauden adinekoak laguntzea.

Nahi gabeko bakardadearen aurka borrokatzeko erakunde arteko plan bat abiaraziko da aldundiekin, udalekin eta hirugarren gizarte-sektoreko antolakuntzekin elkarlanean, hain zuzen ere, gizarte-sektore ugariari eragiten dizkieten egoera hauen begirada zabal eta global batetik abiatuta. Gainera, plan honek etxez etxeko bisitak indartzea jasoko du adinekoen kasurako.

Telelaguntzako zerbitzua 80 urtetik gorako adineko guztietara zabalduko da eta bakarrik dauden pertsonari arreta profesionala emateko berariazko linea bat abiaraziko da telelaguntzako zerbitzutik. Apurka-apurka, zerbitzu hori 65 urtetik gorako pertsonetara hedatuko da.

Gizarte-zerbitzuetako profesionalekin koordinazioan, lehen mailako solidaritateko eta gizarte-boluntariotzako berariazko programa bat garatuko da, adinekoen gizarte-isolamendua txirotasun, menpekotasun eta/edo gaixotasuneko egoerekin elkartzen den egoerak goiz detektatzeko.

3) Laguntzaren kalitatea bermatzea eta arreta indartzea adinekoen etxeetan zein horien ingurune hurbilean.

Oinarrizko gizarte-zerbitzuak indartuko dira, adinekoei etxean ematen zaien arreta hobetzeko. Horrez gain, zaintzaileentzako arnas-programak indartuko dira.

Bere etxeetan edo egoitzetan bizi diren adinekoentzako arreta soziosanitarioko eredu integral berri bat sustatuko da, osasun-laguntzako lehen mailako sarearekin koordinatuta egongo dena.

Zaintzaileak babesteko euskal estrategia bat abiaraziko da eta zaintzaileen estatutua onartuko da, gizonezkoen erantzunkidetasuna sustatuz adineko senideen zaintzetan, zehazki, sentsibilizazio-, kontziliazio- eta trebakuntza-neurrien bitartez.

Esperientzia pilotu gisa, adinekoei arreta emateko bulegoak irekiko dira hiru lurralde historikoetan.

4) Adineko pertsonen zerbitzurako jarduera ekonomikoa eta gizarte-berrikuntza sustatzea.

Konpromisoa hartzen dugu hiru foru aldundiekin eta udalekin batera zilarrezko ekonomia edo “silver economy” bultzatzeko programa bat garatzeko. Ondorio horietarako, gizarte-berrikuntzako interesguneak finkatuko eta indartuko dira adinekoentzako arretaren eremuan: Adinberri Gipuzkoan, Nagusi Intelligence Center Bizkaian eta zahartze aktiboari buruzko Berrikuntza-zentroa Araban.

“Silver economy” delakoaren eremuan enpresa-ekimenak eta gizarte-berrikuntza bultzatuko dira, lerro hori indartuz egungo deialdietan eta laguntza-programetan.

Espezializazio Adimenduneko RIS3 Euskadi Euskal Estrategiaren esparruan, ikerketa aplikatuko proiektuak sustatuko dira adinekoekin lotutako produktuetan eta zerbitzuetan.

11.4. Familiak eta haurrak.

Konpromisoak

1) Seme-alabak dituzten familiak laguntzeko eta jaiotze-tasa sustatzeko estrategia integrala garatzea.

Konpromiso hori burutzeko, besteak beste, ekimen hauek garatuko dira:

- Eusko Jaurlaritzaren lidergoa indartzea Euskadi osorako familia-politika integratu eta koherente baten garapenean, zehazki, aldundiekin eta udalekin elkarlanean.
- Seme-alabengatik ematen diren laguntzak apurka-apurka areagotzea eta horien administrazio-sinplifikazioa lortzen saiatzea, Europar Batasunarekiko konbergentzian aurrera egiteko helburuarekin, 13/2008 Legean aurreikusitakoaren arabera.
- Foru aldundiekin batera, hausnarketa bat abiaraztea, seme-alabengatik ematen diren zerga-kenkariak handitzeko eta progresibitate handiagoko elementuak txertatzeko familien zerga-tratamenduan.
- Sektore pribatuan, gutxienez 16 asteko aitatasun- eta amatasun-baimen berberak eta besterenezinak sustatzea.
- Sustatzea 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako arreta- eta eskolatzeko zerbitzuak eta Haur-eskolekiko osagarria den adingabeak zaintzeko plan bat garatzea.
- Kontziliazio erantzunkidea indartzea, lan-bizitzaren eta aitatasun positiboaren kontziliazioa sustatzen duten neurriekin, etxeko lanen eta zaintzen gizonezkoen eta emakumezkoen arteko banaketa zuzen eta berdinkidean aurrera egiteko.

- Gizartean zaintzen ekonomiari ospe ona ematen dioten sentsibilizazio-kanpainak egitea, jarduera ekonomikoan egiten duten ekarpena ikusaraziz.

2) Haurren babeserako, prebentziorako eta promoziorako plan integrala.

Haurren eta nerabeen eskubideei buruzko lege bat onetsiko da, haurtzaroaren eta nerabezaroaren babes, prebentzio eta sustapeneko sistema arautze eta garatze aldera.

Haurren aurkako indarkeriaren detekzio eta kudeaketa goiztiarrerako programak garatuko dira, bereziki, jazarpenari eta haurren sexu-esplotazioari dagokienez. Horri dagokionez, erakunde arteko protokolo bat onetsiko da, detekzio eta esku-hartze eraginkorrak ziurtatzeko, kasu guztietan bermatuz biktimaren babesa eta horren kaltearen konponketa.

Haurrak babesteko sareak hedatuko dira, hirugarren sektoreko antolakuntzen eta sektore publikoaren arteko lankidetzaz bultzatuz. Horrekin batera, irakaskuntzan, hezkuntza afektibo-sexuala landuko da adin goiztiarretatik, baita Interneten erabilera segurua eta prebentzioa ere.

11.5. Migrazioa.

Konpromisoak

1) Migrazio-egitatearen aurreko harrera-, integrazio- eta erantzunkidetasun-kultura zibikoa sustatzea eta hedatzea.

Konpromiso honek esan nahi du kulturartekotasuna onartu behar dela dibertsitatearen kudeaketa positiboko paradigma gisa, identitateen eta kulturen bizikidetzarako.

Xedea da migratzaileak integratzeko eredia sendotzea. Horretarako, erakunde-gaitasuna indartu behar da eta, bestalde, euskal gizartearen eta bertako elkarte-egituraren integratzeko potentziala garatu behar da, giza legezko integrazio egokia finkatze aldera.

Horri dagokionez, konpromisoa hartzen dugu “Migraziorako Euskal Itun Soziala” zabaltzeko eta garatzeko, baita “Share Proposamena” Euskadin, Estatuan eta Europan sustatzeko ere, erantzunkidetasun-printzipioa aplikatzeko mekanismo gisa.

2) Migratzaileak hartzeko estrategia global bat finkatzea.

Konpromiso hori gauzatzeko, Euskadira heltzen diren migratzaileak hartzeko euskal eredia onetsi eta ezarri behar da. Eredu hori herritarren, kulturartekotasunaren eta immigrazioaren eremuko IV. Jarduketa-planaren bidez garatuko da, inplikaturako erakundeen eta gizarte-eragileen lankidetzatik eta Herritar immigranteen gizarteratzerako eta parte-hartze sozialerako Foroaren bidez.

Horrez gain, migratzaileen jatorrizko herrialdeetan pilotu esperientziak sustatuko dira, migrazio-fluxuen kudeaketan laguntzeko, erakundeen eta enpresen arteko lankidetzako alde biko proiektuak barne hartuz. Aurrekoarekin batera, migratzaileek Euskadiko lan-merkatuan eta aberastasunaren sorkuntzan egiten duten ekarpena nabarmendu egingo da.

3) Asilo-politikaren euskal eredu bat zehaztea eta sustatzea.

Legegintzaldian zehar eta asiloaren gaiari dagokionez, Gobernu Kontseiluak 2017ko irailean babestutako eta Eusko Jaurlaritzaren Autogobernuaren Ponentziara bidalitako Euskal Autonomia Erkidegoari egin beharreko Transferentzien Eguneraketari buruzko 2017ko Txostenak jasotako terminoen barruan eta Espainiako Gobernuak formalki 2020ko otsailaren 20an bidalitako Eusko Jaurlaritzak eskatutako transferentziei buruzko balizko negoziazioetarako kronograma-proposamen orientagarriarekin bat eginez, dagokion akordioa adostu beharko da errefuxiatuak eta nazioarteko babes-eskatzailleak hartzeko eta integratzeko politikak gure gain hartzeko.

Esparru horretan eta bere eskumenen eremuan, Eusko Jaurlaritzak, Espainiako Gobernuarekin elkarlanean, harrerako eta integrazioko berezko eredu bat zehaztuko du. Eusko Jaurlaritzak azkenengo legegintzaldian garatutako erkidego-babeseke formulak espazio garrantzitsua izango du eredu horren barruan. Horretarako, azkenengo urteotan eremu honetako jarduketa koordinatu duen Erakunde arteko Batzorde Soziala finkatuko da.

4) Zaurgarritasun-egoeran dauden migratzaileentzako babesa, estaldura eta laguntza.

Adingabe eta gazte migratzaileei dagokienez, Eusko Jaurlaritzak erakundeen arteko lankidetzak bultzatuko du, bakarrik dauden haur migratzaileei behar duten babesa bermatzeko, horrela gizarteratzeko ibilbideak egin ahal izateko. Gainera, heldutasunerako trantsizioan babesgabetasuna saihesten saiatuko da. Helburu horrekin, "Euskarri Estrategia" sustatuko da, ahultasun-egoeran dauden adingabe eta gazteak gizarteratzeko eta laneratzeko.

Gainera, Eusko Jaurlaritzak, Gobernu Kontseiluak 2017ko irailean babestutako eta Eusko Jaurlaritzaren Autogobernuaren Ponentziara bidalitako Euskal Autonomia Erkidegoari egin beharreko Transferentzien Eguneraketari buruzko 2017ko Txostenak jasotako terminoen barruan eta Espainiako Gobernuak formalki 2020ko otsailaren 20an bidalitako Eusko Jaurlaritzak eskatutako transferentziei buruzko balizko negoziazioetarako kronograma-proposamen orientagarriarekin bat eginez, proposamen bat aurkeztuko dio Espainiako Gobernuari, lan-baimena errazteko adingabe migratzaileak 16 urte betetzen dituenean, gainerako nerabeek dituzten baldintza berdinak edukitzeko.

Iragaitzako migratzaileei dagokienez, Eusko Jaurlaritzak urtero eguneratuko du iragaitzako migratzaileei arreta humanitarioa emateko kontingentzia-plana.

Era berean, laguntza-azpiegitura balioaniztunen plan bat egingo da, migrazio-errealitate desberdinek sortzen dituzten harrera-premiei erantzuteko.

12. Gazteria.

Gazteria da gure gizarte-kapitalik onena. Euskadik lehenbailehen azkartu behar du belaunaldi-ordezkapena; izan ere, gazteriaren “gizarteratzerik ezak” duen kostu sozial, ekonomiko eta kulturala itzela da.

Politika komun eta koordinatu bat proposatzen dugu, euskal gazteriari bere emantzipazioa eta berezko familia-proiektua garatzea errazten dizkion zeharkako ekintza bat eskainiz.

Proposatzen dugun gazteria-politikaren lehentasunezko bi jarduketa-ardatz enplegua eta etxebizitza dira; izan ere, horiek dira gazteen oztopo nagusiak bitzitza-proiektu independente bat garatu ahal izateko.

Konpromisoak

1) Konpromisoa gazteria-politika integrala garatzeko.

Gazteriarekiko konpromisoa Gazteriaren Euskal Lege batean artikulatuko da; lege horrek gazte-ikuspegia txertatuko du politika publiko guztietan eta bere helburu nagusiak izango dira gazteen laneratzea, Euskadiren gizarte-kapitalerako ekarpenik onena delako, eta gazte-etxebizitzako plan bat egitea, gazteak familia-etxebizitzatik emantzipatzea errazteko.

2) Gazteen Enplegurako Txoke-plana.

Gazteen Enplegurako Txoke-plan bat abiaraziko da, lehenengo lan-esperientzia bat eskainiko diena 30.000 gazteri.

Plan hori “Enpleguaren eta Susperraldi Ekonomikoaren Estrategia Globalean” sartzen da eta bere jarduketa-ardatzak hauek izango dira: prestakuntza duala gazte-enplegurako. Hezkuntza-mundutik lanerako trantsizioa. Prestakuntza-bekak eta esperientzia profesionala kontratazio-konpromisoarekin. Gazteen laneratzeko eta enplegurako berariazko programak. Ekintzaitzaren, autoenpleguaren eta gazteen start-upen garapena. Tokiko zein eskualdeko enplegu-planak. Enplegu publikoko eskaintzak. Eta gazteen kolektiboan enplegu-prekarietatea murrizteko programak.

3) Gazte-etxebizitzako plana.

Gazte-etxebizitzako programa berezi bat garatuko da, familia-etxebizitzatik emantzipatzea errazteko eta bitzitza-proiektu independenteak erabat garatu ahal izateko.

Horretarako, alokairu-araubideko babeseko etxebizitzaren lehentasunezko erreserba bat ezarriko da gazteen kolektiboarentzat. Gaztelagun Programa indartuko da, horretan sartzeko betekizunak malgutuz. Gazteek etxebizitza bat lortu ahal izateko aukera berritzaileak abiaraziko dira, besteak beste, hauek: cohousing, erosteko aukera ematen duten alokairuak eta partekatutako pisuen programak. Gainera, zuzkidura-bizitokiak gazteen kolektibora bideratuko dira eta proiektu pilotuak garatuko dira erabilera-lagapeneko kooperatibak bezalako gazte-etxebizitzak errazteko, herrialde nordikoen esperientziak kontuan hartuz.

13. Genero-berdintasuna. Indarkeria matxistaren aurkako borroka eta diskriminazio afektibo-sexualaren aurkako defentsa.

GENERO-BERDINTASUNA

Berdintasuna aldaketarako palanka bat da eta aukera ematen du arinago egiteko aurrera ongizate handiagoa eta pertsona guztientzako bizi-kalitate hobea izango dituen gizarte inklusiboago baterantz. Beraz, berdintasuna da gure gobernu-ekintzaren funtsezko ardatzetako bat. Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasun-harreman baten, emakumezkoen bidezko ikusgarritasunaren eta matxismoa desagerraraztearen alde egiten dugu, zehazki, konpromiso eta ekimen hauetan oinarrituta:

1) Indarkeria matxista desagerraraztea eta emakumezkoen indarkeriarik gabeko gizarte bat eraikitzea.

Horretarako, aurreko legegintzaldian emakumeen eskubideen alde lan egiten duten elkarteekin batera egindako lanean oinarrituta, Berdintasunaren Lege berriaren onspena arinduko dugu, beren-beregi aurreikusten dituen indarkeria matxistaren prebentzioa eta horren aurkako borroka. Halaber, indarkeria matxistaren aurkako herritarren itun sozial bat proposatzen dugu.

Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei ematen zaien arreta hobetzeko erakunde arteko akordioa eguneratuko dugu eta biktimei eta horien seme-alabei lehentasunezko arreta bermatuko diegu, integrala, doakoa eta kalitatezkoa, zehazki, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak identifikatzeko berdintasun-eragileen programak sustatuz, geroago emakume horiekin esku hartzeko tresna berriak sortuz.

Leihatila bakarra abiaraziko da indarkeria matxistaren biktimei arreta eta babes emateko, horrela pertsonalizatutako ekintza-programak ezarri ahal izateko.

Laguntza ekonomikoen programa eta gizarteratzeko eta laneratzeko programak indartuko ditugu, biktimei indarkeriarik gabeko bizitza berri bat hastea ahalbidetzeko.

2) Soldata-arrailaren aurkako konpromisoa.

Adierazi nahi dugu soldata-arrailaren aurkako txoke-planari jarraitutasuna emateko asmo irmoa dugula eta, Gizarte Elkarrizketarako Mahaiarekin batera, onetsitako 2030 Estrategia garatzen jarraituko dugula. Helburu horrekin, ekimen hauek garatuko ditugu:

- Berdintasun-planak bermatzea 50 langile baino gehiagoko enpresetan eta, 50 langile baino gutxiagoko enpresetan, berdintasun-planen negoziazioa sustatzea, betiere Gizarte Elkarrizketarako Mahaian lortutako akordioei jarraiki.
- Euskadiko laneko ikuskatzailertzan, berdintasun-unitateak indartzea.
- Itun sozial eta politiko bat bultzatzea, ordutegiak arrazionalizatzeko eta enpresa-kultura berri bat abiarazteko, laneko eta familiako bizitza bateratzea ahalbidetuko duena.

- Hezkuntzaren eremuan, STEM bokazioak (zientzia, teknologia, ingeniari eta matematikak) indartzea emakume gazteen artean, enpleguaren kalitatea areagotzeko, etorkizunean eskari handiagoa izango duten lanbideetan lan egitea erraztuz.
- Era berean, konpromisoa hartzen dugu zaintzak berdintasun-politiken erdigunean jartzeko, gero eta erantzunkideagoa den gizarte-antolakuntza batean aurrera egiteko eta “kontziliaziotik erantzunkidetasunerako” trantsizioa egiteko.

3) Ahalduntzea, hezkuntza eta balio-aldaketa.

Horretarako, berdintasun eta hezkidetzako programak indartuko dira adin goiztiarretatik, “Nahiko Programa” indartuz, lau urtetik beherako haurrei zuzendutako material berriekin.

Emakumeen elkarte-mugimenduaren eta mundu feministaren ekimenak sustatuko dira ahalduntze-proiektuetan eta balio-aldaketako proiektuetan.

Aurrera egingo da interseksionalitatean, emakumeen premia desberdinei erantzuteko.

Gizonduz Programa indartuko da, gizonezkoen benetako inplikazioa lortzeko berdintasunaren aldeko borrokan.

Emakumezkoen laneratzea sustatuko da nagusiki gizonezkoek egin izan dituzten lanetan.

DISKRIMINAZIO AFERTIBO-SEXUALAREN AURKAKO DEFENTSA

1) Berdintasunaren aldeko konpromisoak sexu-orientazioarekin lotutako diskriminazioaren aurka ere borrokatzea dakar.

Horri dagokionez, ekimen hauek proposatzen ditugu:

- Dibertsitate-berdintasunari eta sexu-orientazioaren ondoriozko bereizkeriaren aurka borrokatzeari buruzko lege integral bat onestea.
- Hezkuntzaren eremuan, sexu- eta familia-dibertsitatearen aitorpena ezartzea, haurrek bere nortasuna eta sexu-orientazioa garatu ahal izateko askatasunez eta diskriminaziorik gabe.
- Diskriminazio-egoerak jasaten dituzten LGTBI pertsonak babesteko “Berdindu Programa” indartzea.
- Osasunaren eremuan, programak garatzea, bere sexu-orientazioagatik, pertsonen osasuna gutxitzen duten kalteak eta bestelako gizarte-faktoreak murrizteko.

14. Kultura, Euskara eta Kirola.

KULTURA

Kultura nortasuna eraikitzeke elementu bat da, baita pertsonengan eta gizartean izaera kritikoa indartzeko ere. Gainera, enplegua eta aberastasuna sortzen dituen jarduera bat da, kohesiorako eta gizarteratzerako faktorea izateaz gain. Garatuko ditugun politika kulturalak kulturaren balio horiek guztiak orekaz indartzera bideratuta daude, sorkuntza eta produkzioa babestuz, eskaintza kulturala demokratizatuz eta kulturaren kontserbazioa-transmisioa bultzatuz, bi elementu hauen presentzia nabarmenarekin: emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna eta euskaraz sortutako eta adierazitako kultura.

Konpromisoak

1) Euskadin sorkuntza eta produkzio kulturalak sustatzea, euskal sortzaileak babestuz.

Helburu hori betetzeko, lehenik eta behin, gure herrialdean kultura sortzen eta ekoizten duten profesionalak eta artistak babestu beharra dago. Politika publiko kulturelek jarduketaren eremu hori lehenetsiko dute, oraingo laguntza-lerroak hobetuz eta indartuz, arreta berezia jarritz honetan: sortzaileen lan-baldintzak, digitalizazioa, nazioartekotzea, emakume sortzaileen parte-hartze aktiboa eta euskarazko sorkuntza eta zabalkunderako berariazko babesa.

Gainera, sorkuntza eta produkzioa babesteko forma berriak aztertuko dira, zehazki, mezenasgoaren eta mikromezenasgoaren bidez.

Foru aldundiekin elkarlanean, profesionalen lan-baldintzak hobetuko dira eta sorkuntza errazten duten zerga-pizgarriak berrikusi egingo dira. Diru-laguntzen deialdietan, zuzeneko arteen eremuan ezarritako murrizketak eta egoera berria aurreikusiko ditugu.

Haurren, nerabeen eta gazteen diziplina artistiko desberdinetarako atxikipen goiztiarra sustatuko dugu, hezkuntza-sisteman transmisio artistikoko programak bultzatuz, betiere Hezkuntza Sailaren, hezkuntza-erkidegoaren, gurasoen elkarrekin eta beste euskal erakunde publiko batzuen arteko adostasunarekin.

Trantsizio digitala sustatuko da politika kulturaletako lehentasunezko lan-ildo gisa. Era berean, Kultura eta Sormen Industrien aldeko apustua indartuko da, Euskadi Europako erreferentziako lurraldea bihurtzeko helburuarekin, Basque District of Culture and Creativity (BDC2) barrutia eta "Euskadi Sortzailea" marka finkatuz.

Azkenik, profesionalizazioan eta lankidetzan aurreratuko da eta erakunde publikoekiko elkarriketarako bideak berriz zehaztuko dira eta hobetuko dira, hain zuzen ere, Kulturaren Euskal Kontseiluaren, Kultura Auzolanean ikuspegiaren eta Hakoba Kulturaren bidez.

2) Euskadiko eskaintza kulturala indartzea eta konektatzea, tokiko eta nazioarteko publikoarentzat gero eta erakargarriagoa bihurtuz.

Euskadiko museoen araudia garatuko dugu, museo-sare desberdinak hobetzeko eta horien baliabide teknikoak eta ekonomikoak eta giza baliabideak optimizatzeko. Era berean, museoen, arte-zentroen eta eragile artistikoen lankidetzeta eta osagarritasuna indartuko ditugu, nazioarteko proiektzioa duen artearen euskal sistema bat eratuz.

Euskal hiriburuekiko lankidetzeta bultzatuko dugu, antzerki, dantza, literatura eta musikako jaialdiak eta zirkuitu kulturalak nazioartekotzea bultzatzeko, hain zuzen ere, horietan tokiko artisten presentzia sustatuz.

Jaialdi, erakunde eta zentro kulturalen harremana indartuko da tokiko sortzaileekin eta herritarren ekimenekin.

Kontsumo kulturala bultzatzeko politikak indartuko ditugu, tokiko enpresak eta saltokiak babesteko, zinema-aretoetatik eta zuzeneko musikatik liburutegietara, zehazki, Euskadiko gainerako erakunde publikoekiko koordinazioa areagotuz.

3) Euskadiko ondare kulturala babestea eta hori nabarmentzea sustatzea.

Euskal Kulturaren Liburutegi Digitala jarriko da martxan errepositorio bakar gisa eta kulturaren alderdi guztietarako sarbide-atarik gisa (literatura, dokumentuak eta fitxategiak, ondare ukigarria eta ukiezina, artea eta irudiak, arte eszenikoak, musika eta soinu-dokumentuak, ikus-entzunezko dokumentuak.). Proiektu handizale eta berritzaile honen helburua da Europa mailan erreferentzia bat izatea, baita Europako Liburutegi Digitalean (Europeana) euskal kulturaren presentzia bermatzen duen hornitzailea izatea ere.

Ondare ukiezina babestea eta nabarmentzea sustatuko dira, arreta berezia jarriz emakumeen legatuan. Halaber, Euskadiko ondare industrialaren babesean aurrera egingo dugu.

4) Euskararen eta euskal kulturaren nazioarteko presentzia indartzea.

Ettxepare Institutuaren bidez, euskararen eta euskal kulturaren nazioarteko zabalkunde- eta proiektzio-programak indartuko ditugu katedren eta irakurletzen sarearen, Euskara Munduan programaren eta jarduera kulturalen antolakuntzaren bitartez.

Horrekin batera, alde biko programa kulturalak garatuko ditugu Euskadirentzat estrategikoak diren herrialde eta eskualdeekin, euskal sortzaileen eta artisten presentzia sustatuz atzerrian.

EUSKAL IRRATI TELEBISTA

Azkenengo lau hamarkadetan, EITB funtsezko eragilea izan da euskal herritarrentzako berezko informazio- eta entretenimendu-espazio bat sortzeko. Informazio gehiegiko eta ikus-entzunezko edukien globalizazioko egungo testuinguru orokor honetan, berresten dugu konpromisoa dugula euskal irrati-telebista publiko indartsu, profesional, plural eta berezko batekin, mundura irekita dagoena eta herrialde gisa aurrera egiten jarraitzea ahalbidetzen diguna.

Konpromisoak

1) EiTBen zerbitzu publikoaren izaera mantentzea eta bermatzea, komunikazio pluralerako eta hizkuntzaren normalizaziorako bitarteko gisa.

Gure konpromisoa EiTb euskal gizarte osoarentzako erreferentziatzeko, lidergoko eta ospe oneko komunikazio-talde gisa finkatzea eta indartzea da. Adierazi nahi dugu gure asmoa dela EiTb kalitatean eta eskaintza berezian zentratutako zerbitzu publiko gisa finkatzea eta aurrera egitea. Horrez gain, EiTb bere profesionalen gaitasunen alde egin beharko du eta euskal ikus-entzunezko industriaren motorra zein aniztasunaren bermea izango da.

Horretarako, konpromisoa hartzen dugu beharrezko erreformak burutzeko, EiTb benetako zerbitzu publikoa izan dadin, ikus-entzunezkoa, modernoa eta herritarren premia eta eskari berrietara egokitutakoa, objektiboa, lehiakorra eta eraginkorra. Hala, horren oinarritzko helburuetako bat izango da errealitate soziolinguistikoa kontuan hartzea eta euskararen normalizazioa sustatzea, berdintasun-printzipioa eta aniztasun politikoa, erlijiosoa eta kulturala errespetatuz.

Erreforma horiek egiteko xedearekin, Eusko Jaurlaritzak, berariazko ponentzia baten bidez, proposamenak aztertzeko eta proiektatzeko lan sakon bat garatu egin du XI. Legegintzaldian zehar; horretan, ikus-entzunezko sektoreko adituek parte hartu dute eta herritarrek zein taldeko profesionalak ere parte hartzeko aukera izan dute. Hitzematen dugu hasitako bidean jarraituko dugula, ponentziako presidentziak proposatutako testuari jarraiki.

Erreforma horiek gauzatzen ez diren bitartean eta programa-kontratua 2019an iraungi zenez eta 2020an luzatuta dagoenez, berri bat sinatuko da; hori inguruabar ekonomiko berrietara egokituko da eta ebalua daitezkeen irizpideekin zehaztuko ditu zerbitzu publikoak bermatu behar dituen helburuak.

EUSKARA

Euskara suspertzeko prozesua nazioarteko eredua da beste hizkuntza gutxitu askorentzat eta prozesu horrek erakutsi du urrats handiak eman direla euskal herritarren hizkuntza-eskubideen errespetuari dagokionez. Ibiltako bideak baieztatzen digu norabide onean gaudela. Gure xedea da hizkuntza-eskubide horien erabateko bermerantz aurrera egitea eta euskara gure bizitzako eremu guztietan erabili ahal izatea ahalbidetzea. Eremu sozioekonomikoa eta lan-eremua, ingurune digitala eta aisialdia eta familia-transmisioa dira hurrengo urteetako erronka handiak euskararen normalizazioa lortzeko.

Erronka horiei erantzuteko, adierazi nahi dugu asmoa dugula konpromiso hauei aurre egiteko.

Konpromisoak

1) Euskararen ezagutza areagotzen jarraitzea eta, batez ere, euskararen erabilera azpimarratzen jarraitzea.

Helburu horrekin, ekimen hauek sustatzea proposatzen dugu:

- Euskararen ezagutza handitzeko programak eta laguntzak areagotzea, oro har, egiaztatutako B2 mailara arteko doakotasuna ezarri eta C1 mailara arteko doakotasuna eskainiz 16 eta 30 urte bitartekoentzat.

- Helduen kontziliazio-premietara hobeto egokitutako eskaintza bat sustatzea, ikaskuntza-modalitate erdipresentzialen bidez eta plataforma birtualen erabileraren bidez, betiere euskaltegiekin elkarlanean.
- Helduen euskalduntze-sistemaren finantzaketa indartzea eta handitzea, irakasleen lan-baldintzak hobetzeko euskaltegien finantzaketarako ohiko deialdien bidez.
- Migratzaileei zuzendutako euskara ikasteko eta hobetzeko programak areagotzea, bai eremu sozioekonomikoan, bai hezkuntzaren eremuan, horien gizarteratzean eta laneratzean laguntzeko xedearekin.
- Euskararen erabilera sustatzeko programak indartzea Euskaraldia bezalako ekimenen bidez eta euskara beste eremu hauetan ere erabiltzea sustatuz: aisialdia eta denbora libre; familia; ingurune digitala eta eremu sozioekonomikoa.
- Horretarako, Euskara Eremu Sozioekonomikoan Normalizatzeko Plan Estrategikoa 2023 garatuko dugu eta adostasunetan, hitzaldi positiboetan eta gizartearen aktibazioan lan egingo dugu, herritarrak motibatuz eta erakartzeko, bere bizitzaren eremu guztietan erabil dezaten euskara.

2) Hizkuntza-eskubideen erabateko errespeturantz eta normalizatutako hizkuntza-bizikidetzak baterantz aurrera egitea.

Horretarako, administrazio publikoetan Euskara Normalizatzeko VII. Plana (2022-2026) diseinatu eta ezarriko dugu, herritarrek administrazioarekin duten harremanean hizkuntza-eskubideak errespetatzeko helburuarekin; edonola ere, pertsonak nahi duten hizkuntza ofiziala erabiltzeko daukaten erabateko askatasuna bermatuko da. Planaren beste xede bat izango da euskararen erabileraren normalizazioan aurrera egitea, hain zuzen ere, sektore publikoaren lanerako hizkuntza gisa. Hori lortzeko, administrazio publikoetan euskararen erabilera sustatzeko dekretua garatu eta ezarriko da eta Sozietate Publikoentzako Normalizazio-plana abiaraziko da.

3) Erakunde arteko lankidetzak indartzea euskararen lurralde guztietan.

Euskararen lurraldeen arteko lankidetzak eta elkarlana indartzen jarraituko dugu, 2017an adostutako Hiruko Itunaren bidez.

Nazioartean hizkuntza desberdinen arteko lankidetzak sustatuko dugu, eleaniztasunarekin eta hizkuntzen arteko bizikidetzarekin lotutako nazioarteko programetan eta foroetan parte hartuz.

JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA

Jarduera fisikoa eta kirola herritarren garapenerako eta ongizaterako elementuak dira, osasun fisikoan eta mentalean eta bizi-kalitatearen hobekuntzan laguntzen dutelako.

Horrez gain, gizarte zuzenago, bidezkoago eta kohesionatuago baterantz aurrera egiteko bidea dira. Pertsonen osasunetik harago, jarduera fisikoa eta kirola pertsonen arteko elkarrekintzarako espazioak dira eta, bertan, banakako oztopoak eta oztopo kolektiboak gainditzen dira eta gure erkidego-identitatea garatzen da. Adierazi nahi dugu prest gaudela kirolaren gizarte-kapital hori zein horren nazioarteko proiektioa sustatzeko.

Konpromisoak

1) Jarduera fisikoa eta bizitza-ohitura osasungarriak sustatzea euskal herritarren artean eta Euskadi Europako gizarterik aktiboenen artean kokatzea.

Horretarako, kirol-txartel bakarraren eredia hedatuko dugu Euskadi osora, herritarrek jarduera fisikoa egitea sustatzeko tresna gisa, zehazki, kirol-instalazio publikoen erabileraren bidez. Era berean, kirol-jarduera Mugiment proiektuaren bidez sustatzeko helburua duten programak indartuko ditugu, batez ere, txikien eta adinekoen artean.

2) Jarduera fisikoak eta kirolak berdintasunerako eta gizarteratzeko duten potentziala baliatzea eta euskara sustatzea.

Konpromisoa hartzen dugu maila guztietako kirolean eta kirolaren eremuko erabaki- eta ordezkari-organoean emakumeak babesteko eta ikusarazteko programak indartzeko, baita emakumezkoen kirol-politikan Europa mailan erreferentziazkoa den zentro aurreratu bat abiarazteko ere.

Neurriak garatuko ditugu kirol inklusiboa eta egokitua babesteko, pertsona desgaituei edo dibertsitate funtzionala duten pertsonen jarduera fisikorako-kirolerako sarbidea bermatuz eremu guztietan.

Kirolaren bidez, kultura arteko bizikidetzeta eta migratzaileen eta gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden kolektiboen gizarteratzea sustatuko ditugu eta jarduera fisikoa eta kirola indarkeriarik, desberdintasunik eta arrazakeriarik gabeko espazioak izatea defendatuko dugu.

Euskararen presentzia eta erabilera indartuko ditugu kirol-espazioetan eta jarduera fisikoko espazioetan, aisialdia eta errealizazio pertsonala euskararekin lotzeko ingurune egokia delako. Era berean, euskal kirolarien hizkuntza-eskubideak defendatzeko egingo dugu lan.

Esfortzuak areagotuko ditugu Euskadira nazioarteko lehenengo mailako kirol-ekitaldiak erakartzeko, hori guztia foru aldundiekin eta udalekin koordinazioan.

“Basque Team” bultzatuko da maila altuko euskal kirolaren erreferente gisa, kirolarien presentzia areagotzeko nazioarteko lehiaketetan eta Joko Olinpiko eta Paralinpikoetan.

Euskal selekzioei ematen zaien babes indartuko da, bi alderdiok Eusko Legebiltzarrean 2017ko urtarrilaren 22an sinatutako baterako emendekinarekin bat eginez. Horrez gain, nazioartean lehiatzen diren maila altuko kirolari eta taldeentzako babes indartuko da, Euskadi Basque Country marka kanpoan proiektatzeko elementuak baitira.

Halaber, gure kirol autoktonoak sustatuko dira (pilota, herri kirolak eta arrauna), euskal gizartearen ohituren eta identitatearen adierazgarri gisa.

3) Euskal kirol-sistemaren antolakuntza hobetzea eta etorkizuneko erronketara egokitzea.

Foru aldundiekin elkarlanean, euskal federazio-sistema berrantolatuko dugu, horren kudeaketaren eraginkortasuna areagotzeko eta kirolean duen eragina handitzeko.

Horrez gain, Kirol arloko Lanbideetan Sartzeari eta Jarduteari buruzko Legea onesteko eta garatzeko konpromisoa hartzen dugu, baita sektorearen erronkei eta premiei erantzuten dien jarduera fisikoaren eta kirolaren lege berri bat onesteko ere.

III. PLANETA, ARDURATSUA: Bidezko energia- eta klima-trantsizio batekiko konpromisoa.

JARDUKETA-ARLOAK. KONPROMISO PROGRAMATIKOAK:

15. Energia-estrategia berria. Berriztagarrien aldeko apustua.
16. Klimaren aldeko ekintza. Euskadi Green Deal.
17. Ingurune naturalaren eta biodibertsitatearen kontserbazioa.
18. Ekonomia zirkularraren bultzada.

15. Energia-estrategia berria: Eraginkortasunaren eta energia berriztagarrien aldeko apustua.

Mantentzen dugu euskal sistema energetikoaren deskarbonizaziorantz eta jasangarritasunerantz aurrera egiteko erabaki irmoa. Nahitaezkoa da eredu ekonomiko eta energetiko berri batera aldatzea, erregai fosiletatik aldentzearen alde eta 2050erako berotegi-efektuko gasen emisioen neutraltasunaren alde egiten duena, Europar Batasunaren konpromisoekin bat etorritz.

Berresten dugu haustura hidraulikorik gabeko Euskadi bat nahi dugula, Eusko Legebiltzarrak 2015ean onetsitako ingurumena babesteko neurri gehigarrien legearen arabera. Ikuspegi horretatik eta Klima eta Energiako Europako Esparruarekin bat eginez, 2030 Euskadiko Estrategia Energetikoa eguneratuko dugu, hain zuzen ere, hauxe lortzeko: eraginkortasun energetikoa areagotzea; energia berriztagarrien erabilera handitzea eta ikerketa energetikoko euskal estrategian sakontzeko, bidezko trantsizio energetiko baterako palanka giltzarriak direlako.

Konpromisoak

1) Energia-eraginkortasuna handitzea autokontsumoa eta banatutako sorkuntza sustatuz.

Konpromiso horri erantzuteko, besteak beste, neurri eta ekimen hauek proposatzen dira:

- Sorkuntza banatu berriztagarriko eta kogenerazioko proiektuak bultzatzea, banakako autokontsumoa eta autokontsumo kolektiboa sustatzen duten laguntza-lerroekin.
- Autokontsumorako elektrizitatearen sorkuntza sustatzea eraikinetan eta etxebizitzetan, zehazki, teknologia fotovoltaikoa, eolikoa eta biomasakoa bezalako teknologien bidez.
- Hornidura termikoko sistema zentralizatuak aukeratzen dituzten hirigintza-garapen berriak sustatzea.
- Lurralde-antolamenduan eta hirigintza-plangintzan energiaren ikuspegia apurka-apurka txertatzea, udalak aholkatzeko eta babesteko neurriekin, horiek energia-eraginkortasuneko planak gara ditzaten.
- Batez ere, eremu publikoko etxebizitza eraikien parkea berritzeko politika bat garatzea, energia-eraginkortasuneko eta aurrezpeneko irizpideekin. Hiri-guneak eta auzoak birgaitzea, ekoauzo jasangarrien sorkuntzarantz aurrera eginez.
- Etxebizitza berriak eraikinak ia-ia energia-kontsumorik gabe eraikitzeko 2010/31-Ec Europako Zuzentarauaren (“NZEB-Nearly Zero Energy building”) parametroen pean eraikitzearen aldeko apustu irmoa.
- Eraginkortasun energetikoko irizpideak garatzea obren eta horniduren erosketa publikoan.
- Eraikinen birgaitze energetikoari buruzko berariazko prestakuntza, bidezko trantsizio energetikoa eta enplegu berdeen sorkuntza errazten dituenak.
- Foru aldundiekin elkarlanean eta Zerga-koordinaziorako Organoaren bidez, zerga-pizgarriak sustatzea sektore industrialaren, merkataritzaren eta zerbitzuen energia-eraginkortasuneko inbertsiorako.

2) Iturri berriztagarrien erabilera areagotzea energiaren azken kontsumoan.

Helburua da, 2015. urtea oinarritzat hartuz, energia berriztagarrien erabilera bikoiztea. Horretarako, jarduketa-eremu hauetan lan egingo da:

- Sorkuntza energetikoko parkea handitzea iturri berriztagarrien instalazioen bidez, lurreko zein itsasoko parke eolikoaren garapena eta ezarpena bultzatuz, hasitako parke fotovoltaikoak amaituz eta proiektu berriak abiaraziz.
- Biomasa eta geotermiako proiektuak garatzea erkidego-sareetan.
- Hondakin organikoaren biogasa hartzeko eta sortzeko plantak eraikitzea sustatzea.
- Hidrogenoaren ekonomia berria bultzatzea, erregai berde gisa.
- Biomasa eta bioekonomia bultzatzea, erregai fosilen murrizketa errazteko eta gure nekazaritza- eta basogintza-sektorearen balio erantsia handitzeko.
- Administrazio publikoaren berariazko eremutik, energia berriztagarriaren % 100 erostea eta bestelako energia-iturrien instalazioa egitea eraikin publikoetan. Gainera, administrazio publikoetan karbono-aztarna neutroa bultzatuko da, sektore pribatuarentzako paper eredugarri eta dinamizatzaile gisa.
- Aurrekoaz gain, garraio eta mugikortasun jasangarrietan aurreratu egingo da garraio publikoa bultzatuz eta ibilgailu pribatuen flota berritzea sustatuko da, eraginkorrak diren eta beste erregai batzuk erabiltzen dituzten ibilgailuekin ordeztuz. Era berean, garraioaren eta mugikortasun elektrikoaren (ibilgailu elektriko) sektorean energia elektriko berdearen zabalkundea eta erabilera sustatuko ditugu, emisio baxuko ibilgailuen alde eginez eta ibilgailu elektrikoentzako kargaguneen ezarpena sustatuz, hori guztia garraioaren sektorea deskarbonizatzeko helburuarekin.

3) Ikerketa energetikoko euskal estrategian sakontzea, enpresa-egitura eta enplegua berpizteko palanka gisa.

Euskal enpresen eta zentro teknologikoen lehiakortasuna indartuko da, energiaren eremuan, ikerketako, garapen teknologikoko eta enpresa-egiturako arloak sustatuz, betiere espezializazio adimenduneko RIS3 Euskadi euskal estrategian zehaztutako lehentasun estrategikoekin bat eginez.

Zehazki, konpromisoa hartzen dugu olatuen energia eta hidrogenoaren produkzioa bezalako eremuetan euskal posizionamendu industrialak eta teknologikoa errazten dituzten ekimenak sustatzeko.

Halaber, euskal industrien trantsizio energetikoa bultzatuko da, honako laguntza-lerro hauek indartuz: aurrezpen eta eraginkortasun energetikoak; energia berriztagarrien erabilera eta CO₂-ko igorpenen murrizketa klima-aldaketaren aurka borrokatzeko.

4) Bidezko energia-trantsizioa bermatzea.

Bidezko trantsizio energetikoko plan estrategiko bat onetsiko dugu, pertsonarik ahulenen gizarte-babesa sustatzeko eta txirotasun energetikoko egoerak saihesteko. Konpromisoa hartzen dugu Euskadi zaugarritasun energetikorik gabeko lurraldea izatea lortzeko eta zerbitzu energetiko eskuragarri, fidagarri eta modernoetarako sarbide unibertsala bermatzeko.

16. Klimaren aldeko ekintza. Klima-aldaketaren aurkako borroka.

Euskadi garapen jasangarriarekin eta nazioartean adostutako helburu klimatikoekin konprometitutako erkidego bat da. Eusko Jaurkitzaren Klima-larrialdiaren Adierazpenak konpromiso hori indartu du eta erreferentziatzko erkidego gisa kokatzen gaitu klima-aldaketaren aurkako borrokan. Apustu irmoa egiten dugu Euskadin “Basque Green Deal” Klimaren aldeko Akordio Sozial zabala lortzearen alde, gure lurraldeak, Parisko Akordioarekin eta Europako Itun Berdearekin (European Green Deal) bat etorritik, batez besteko tenperatura globalak 2 gradu zentigradoak gainditzea saihesten laguntzeko eta, 2050ean, berotegi-efektuko gasen emisioan herrialde neutroa izateko.

Konpromisoak

1) Irmoki egitea aurrera karbonoan baxua den ekonomia baterantz, enplegua sortzeko eta garapen industrial zein teknologikorako abagune gisa.

Konpromiso honek esan nahi du klima-aldaketa euskal administrazioen gainerako politika sektorialen zeharkako politika gisa integratu behar dela. Horretarako, ekimen hauek garatuko dira:

- Garraioaren deskarbonizazio progresiboa, trenbide-garraioaren alde eginez.
- Eskualde eta udalerrri mailan mugikortasun jasangarriko planen garapena sustatzea.
- Bizikleta herritarrentzako garraio biderik jasangarriena bezala sustatzea gure herri eta hirietan.
- Lurraldearen erresilientzia areagotzea klima-aldaketaren ondorioak kontuan hartzen dituzten lurralde- eta hirigintza-plangintzako politika publikoekin.
- Klimaren aldeko ekintzan zeharkako garapen teknologikoa eta berrikuntza sustatzea.
- Teknologia garbien euskal zerrenda handitzea, zerga-kenkarietara lotuz.
- Ekoberrikuntzako eta berriz landatzeko proiektuak indartzea, zuhaitz-azalera 10.000 hektarea handituz; horrek urtean CO₂ko 25.000 tona xurgatzea ahalbidetuko du.

2) Klima-gobernantzako eredu berri bat sustatzea.

Helburu horrekin, aurreko legegintzaldian onetsitako Administrazio Publikoen Jasangarritasun Energetikoaren Legea erabat hedatuko dugu. Era berean, “klima-aldaketaren legea” onetsiko dugu, besteak beste, 2050eko horizonterako berotegi-efektuko gasen emisioen neutraltasuna lortzeko (karbono-neutraltasuna). Horrekin batera, klima-aldaketaren eremuko erakunde arteko koordinazioarako organoak eta mekanismoak ezarriko dira.

Estrategia Klimatikoaren eta Estrategia Energetikoaren arteko beharrezko koordinazioaren alde egiten dugu, zehazki, adierazitako parametroetan. Udalen eremuarekiko lankidetzara ezarriko da energia eta klima-ekintzako plan bateratuen garapenerako; horrela, aukera izango dute, Udalsarea 2030 sarearen bidez, toki- zein lurralde-eremuetatik klima-ekintza hedatzen jarraitzeko. Horrekin batera, udal-mailako parte-hartze aktiboa bultzatuko da Global Covenant of Mayors for Climate and Energy Itunean.

17. Ingurumen-estrategia. Uraren kalitatearen hobekuntza eta biodibertsitatearen defentsa.

80ko hamarkadan, Euskadik herritarren osasuna eta ingurumenaren egoera orokorra mehatxatzen zituzten kutsadura-arazo larriak zituen. Ordutik hona, ingurumen-babeseko politikak aplikatu izan dira, betiere politika europarrekin bat etorritz. Esfortzu horri esker, ingurumen-adierazle nagusiak hobetu ahal izan dira, bai uraren kalitateari dagokionez, bai lurzorua zein airearen kalitateari dagokionez. Halaber, biodibertsitatearen defentsan eta errespetuan aurrera egin dugu. 2030eko horizontean eta Garapen Jasangarrirako Helburuen arabera, bultzada berria emango dugu ingurumen-estrategia zeharkako politika gisa kokatzeko; hain zuzen ere, horrek espezie guztientzako eta gizakiarentzako oparotasun- eta ongizate-faktoretzat hartuko du ingurumenaren defentsa. Ikuspegi horretatik, konpromiso hauei erantzun diegu:

Konpromisoak

1) Uraren eskuragarritasuna eta kalitatea eta kudeaketa jasangarria bermatzea.

Hori da Euskadiko ingurumen-estrategiaren helburu nagusi bat. Hori betetzeko, ekimen hauek garatuko ditugu:

- Ur edangarriko sareen kudeaketa eraginkorra optimizatzea, eraginkorrak ez diren sistemaren galerak murriztuz eta egungo hornidura-sareak eraldatuz, ur edangarriaren erabilera kontrol eta segurtasun handiagoak ematen dituzten sare adimendunak bihurtzeko.
- Teknologia berriak aplikatzea ureztatze-sistemetan, ur-kontsumoa optimizatzeko, bereziki, klima-aldaketaren eraginak gehiago pairatuko dituzten Euskadiko guneeetan.
- Hondakin-uren arazketa- eta saneamendu-zerbitzu eta instalazioak hobetzea. Helburua da, 2030eko horizontean, saneamendu-sistema osoa bukatuta egotea eta tratamendurik gabeko isurketak ia-ia zerora murriztea.
- Hondakin-urek eragindako kutsaduraren kontrola, arauketa eta ikusapena indartuko dira eta teknologia ekologiko eta jasangarri berrien garapena bultzatuko da hondakin-uren tratamenduan, balorizazioan eta berrerabileran.
- Baliabide hidrikoen erabilera eraginkorra sustatuko da euri-uraren drainatze-sistema jasangarrien bidez, uraren sektorean ekonomia zirkularra sustatuz eta ura berrerabiltzea bultzatzen duen kontratazio berdea indartuz.
- Uraren hiri-zikloaren kudeaketa integrala hobetuko da, uraren zuzentarau europarrarekin bat datorren tarifa-sistema homogeen baten bidez, tarifak kostu hauekin lerrotzea ahalbidetuko duena: ura hartzeko, banatzeko eta ustiatzeko kostuak eta saneamendu- eta arazketa-kostuak.
- Arro hidrografikoaren uraren kalitateari dagokionez, saneamenduko, hornidurako eta uholdeen aurreko defentsarako oinarritzko azpiegiturak egikaritzeko dira.

- Gure ibaietako uraren % 70 kalitate onekoa edo oso onekoa izatea lortzea 2025ean.

2) Ingurumen-politika aurreratua eta ingurune naturalaren eta ekosistemen hobekuntza sustatzea, biodibertsitatea eta lurreko zein itsasoko habitat nagusien defentsa sustatuz.

Helburu horrekin, ekimen hauek proposatzen dira:

- Abian jartzea Ingurumenaren V. Esparru Programa 2030.
- Ingurumen-administrazioaren Legea onartzea, funtsezko tresna baita gure industria eta bere emisioak hobetzeko eta bere prozesuak ingurumenari dagokionez eredugarria den industria baterantz aurrera egiteko, zehazki, ingurumen-baimeneko prozedura sinplifikatuz eta azkartuz. Horrez gain, Ondare Naturalaren Kontserbaziorako Legea onetsiko da, Euskadiko ondare naturala babestea, kontserbatzea, kudeatzea, jasangarritasunez erabiltzea, lehengoratzeta eta hobetzea bermatzeko xedearekin.
- Lurzorua babesteko euskal estrategia onestea. Gutxienez ere, kutsatutako lurzoruen 400 hektarea lehengoratzeta.
- Kutsadura atmosferikoa kontrolatzeko plan berri bat garatzea.
- 2020 Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Programa sustatzea.
- Natura 2000 Guneen eta Naturan Oinarritutako Konponbideen kudeaketa eraginkorra garatzea.
- Udal zein eskualde mailan kutsadura akustikoa murrizteko ekintza-planak egitea sustatzea eta 2.000 Natura Sarea bultzatzea.
- Foru aldundiekin elkarlanean eta Zerga-koordinaziorako Organoaren bidez, Europar Batasunarekin lerrokatutako zerga-politika berde bat proposatuko dugu.
- Lurralde-antolamenduan "ingurumen-aldagaia" txertatzea eta aldizkako segimendu-txostenak egitea lurralde-antolamenduaren eremuan, ingurumen-adierazleen bilakaera aztertzeke.

18. Ekonomia zirkularren garapena.

Laugarren iraultza industrialak jauzi kualitatiboa dakar garapen teknologikoan, baina, horrez gain, hazkunde ekonomikoa materialen kontsumoarengandik banatzea eskatzen du.

Hitzematen dugu ekonomia zirkularreko eredu berri bat bultzatuko dugula, non produktuen eta materialen bizitza-zikloa ahalik eta denbora gehien luzatuko den.

Eredu ekonomiko berri honen alde egiteak haxe esan nahi du: “atera, produzitu, erabili eta botatzearen” ideiatik “murriztu, berrerabili eta birziklatzearen” ideiarda pasatzea. Hortaz, berrerabilera eta prebentzioa dira hitz gakoak. Ekonomia zirkularreko eredu berri honek enplegu berde berriak sustatzea eta berrikuntza piztea dakartza eta, horrela, Euskadiren lehiakortasuna eta hazkunde jasangarria ere hobetzen dira.

Hedatuko dugu Euskadiko Ekonomia Zirkularrerako Estrategia 2030.

Konpromisoak

1) Enplegu berdea eta berrikuntza sustatzea ekonomia zirkularren eremuan.

Konpromiso honek esan nahi du gazteen eta profesionalen prestakuntza eta trebakuntza garatu behar direla ekonomia zirkularren eremuan eta, horrez gain, Europar Batasunarekin lerrotatutako ekonomia zirkularri buruzko enplegu-programa bat abiarazi behar dela.

Horretarako, ekonomia zirkularren berrikuntza-zentro bat eta ekonomia zirkularri buruzko prestakuntza-programa bat abiaraziko dira, zehazki, unibertsitatearekin eta lanbide-heziketako zentroekin elkarlanean.

Aurrekoarekin batera, ekonomia zirkularra eta ekoberrikuntza ere izango dira 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plan berriaren funtsezko elementuak, Euskadiko lehiakortasunaren eta hazkunde jasangarriaren motor gisa.

Sektore industrialari bereziki zuzendutako berriarazko plan bat abiaraziko da materialen eraginkortasuna % 30 handitzeko, zehazki, produkzio-eredu berriak hobetuz eta garatuz eta produktu industrialen ekodiseinua indartzuz.

Produktu zehatz batzuetan, “ingurumen-aztarna” proiektu pilotu gisa ezartzea.

Gainera, Basque Ecodesign Center erreferentziatzko zentro europar gisa bultzatuko da, baita “ETE zirkularra” izeneko ETEak babesteko programa bat ere. Halaber, 2030 Bioekonomia Euskadi estrategia hedatuko da.

2) Hondakinak murriztea eta horien birziklapena eta balorizazioa areagotzea.

Enplegua, berrikuntza eta produkzio-prozesuen hobekuntza sustatzeaz gain, hondakinen balorizazioa eta kudeaketa eta materialen berrerabilera jorratuko dira.

Helburu horrekin, zentro teknologikoekin elkarlanean, ikerketa-proiektuak garatuko dira, hondakin industrialen aprobetxamendua hobetze aldera.

Arriskutsuak ez diren hondakin industrialen gaikako bilketarako, karakterizaziorako, biltegiatzerako eta balorizaziorako kudeaketa publikoko zentro bat abian jartzea sustatuko da, erreferentziatzko puntako zentro europar bat izan dadin.

Lege-araudi zehatza barne hartzen duen hondakinen estrategia bat sustatuko dugu, non hiru lurralde historikoen helburu komunak ezartzen diren. Horrez gain, estrategiak lurralde osorako gobernantza komuneko oinarriak ezarriko ditu eta erkidego gisa hondakinik gabeko lurralde bat izatera eramango gaituzten estrategia zehatz guztiak finkatuko ditu.

Zehazki estrategia honetan eta ekonomia zirkularrerako estrategia europarrarekin bat eginez, ekotasa bat edo hondakin industrialen isurketa-kanon bat ezarriko da ekonomia zirkularra eta balorizatu ezin diren hondakinak murriztea sustatzeko, industria-egituraren lehiakortasunik handieneko elementu gisa.

Elikaduraren eta hondakin organikoen eremuan, elikagaiak xahutzearen aurkako legegintzako ekimenak bultzatuko dira, elikadura-hondakinen sorkuntza % 30 murrizteko xedearekin. Gainera, elikagaien soberakinak lehengoratzeko erraztuko da, lehentasuna emanez gizakien erabilerari.

Europako helburuekin bat eginez, planetarentzat bereziki kaltegarriak diren hondakin-mota zehatz batzuei dagokienez jardungo da. Horri dagokionez, ekintzak sustatuko dira ukitutako eragileekin elkarlanean, kontsumitzen diren plastikoko ontzien % 75 birziklagarriak izatea lortzeko eta, horrez gain, birziklatu ezin diren erabili eta botatzeko plastikoko poltsak kenduko dira.

Bere jarduera birziklapenaren sektorean garatzen duten enpresak indartuko dira eta eraikuntza- eta eraispin-hondakinen birziklagarritasuna areagotuko da, zehazki, Europar Batasunak sustatutako "Iceberg proiektuaren" barruan.

Erosketa berde publikoa bultzatuko da eta tratamendurik gabeko lehen mailako hiri-hondakinen isurketarik ez egoterantz aurrera egingo da, hain zuzen ere, udalekin elkarlanean.

IV. BIZIKIDETZA ETA AUTOGOBERNUA, LORTU BEHARREKOA: Autogobernu handiagoa eta hobeagoa lortzeko konpromisoa, giza-garapen jasangarrian aurrera egiteko.

JARDUKETA-ARLOAK. KONPROMISO PROGRAMATIKOAK:

19. Justizia.

20. Segurtasuna.

21. Bizikidetzaren eta Giza Eskubideak.

22. Garapenerako lankidetzaren.

23. Euskadi. Basque Country. Euroeskualdea.

24. Baliabide publikoen kudeaketa erantzulea eta gardena.

25. Autogobernu handiagoa eta hobeagoa. Estatutu-itunaren eguneraketa.

19. Justizia.

Justizia Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 16. Helburuan sartzen den funtsezko zerbitzu publiko bat da. Orain arte garatutako bidean aurrera egin nahi dugu, gero eta justizia modernoago, arinago, eraginkorrago eta digitalizatuago bat lortzeko xedearekin, Europar Batasuneko justizia-administrazioko sistematik aurreratuenekin bat etorritz. Horrez gain, justizia hori hurbilagoa eta errestauratiboa izango da eta pertsonengan zentratuko da, bereziki, pertsonarik ahulenengan.

Konpromisoak

1) Sistema judizial moderno.

Justiziari esparru estrategiko bat emango diogu, benetako babes judiziala gizarte demokratiko, bidezko, anitz eta garatu baten elementu egituratzailea izan dadin.

Helburu horrekin, jarduketa-ardatz hauek garatuko dira:

- Justiziaren Plan Estrategiko bat onestea, pertsonengan zentratutako justizia arina, eraginkorra eta digitalizatua eraikitzeko parametroak ezarriko dituena.
- Bulego judizial berria ezartzea dagoeneko abian dauden bulegoen ebaluazioa egin ostean.
- Azpiegituren programa integral bat egikaritzea, energia-eraginkortasuna, mugikortasun jasangarria eta irisgarritasun unibertsala kontuan hartzen dituena.
- Justizia-administrazioko langileen baldintzak hobetzea, lan-baldintzen IV. akordioa garatuz, lanpostuen zerrendaren balorazioa amaitzeko, behin-behinekotasun tasa baxuak mantentzeko eta prestakuntza- eta ordainsari-planak sustatzeko.
- Era berean, Auzitegiko Medikuntzako Euskal Institutua modernizatuko da eta sistema judizialaren dibulgazioa bultzatuko da "Justizian hezte" programaren bidez.

2) Justizia arina, eraginkorra eta digitalizatua.

Konpromisoa hartzen dugu justizia-administrazio hurbil, arin eta moderno baten eraketan aurrera egiteko, kalitatearen berme gisa, zehazki, berrikuntza eta digitalizazioa sustatuz.

Horretarako, Justizia Digitaleko Plan berri bat onetsiko dugu, epaitegi eta auzitegien digitalizazio integrala lortzeko xedearekin. Plana honetara bideratuko da: espediente judizial elektronikoa amaitzea; izapide digitalak egoitza judizial elektronikoaren bidez garatzea eta bideo-konferentzien bidez jarduketak sustatzea.

Hurbiltasuneko justizia indartuko da, bake-epaitegietan baliabide materialak eta giza baliabideak areagotuz.

"Familiarteko topaguneen" handipen- eta deskontzentratzio-prozesua indartuko da, udalekin dagozkien hitzarmenak sinatuz.

Udalekin eta beste operadore juridiko batzuekin, hausnarketa bat garatuko dugu Euskadiko egungo mugaketa- eta barruti-egituraren inguruan.

3) Pertsonengan zentratutako justizia hurbilagoa eta errestitutiboa.

Justizia babesteko zerbitzuen hedapena eta horietarako orientazioa sustatuko ditugu, hain zuzen ere, zerbitzu-kartak garatuz.

Justizia errestitutiboko zerbitzua indartuko da, gatazkak ebazteko bestelako bitartekoak sustatzeko eta finkatzeko plan baten ezarpenarekin.

Bitartekaritza judizialaren doakotasuna bermatuko da. Justizia errestitutiboa finkatuko dugu zigor- zein familia-arloko ordenetan eta judizioz barneko negoziatio- edo bitartekaritza-praktikak sustatuko ditugu jurisdikzio-ordena hauetan: administrazioarekiko auziena, soziala eta zibila.

Aurrera egingo da hizkuntza-normalizaziorako planean, Euskadiko hizkuntza ofiziala den aldetik, herritarrak justiziaren eremuan euskara erabiltzeko duten eskubidea betearazteko.

Gazte Justiziaren V. Plana onetsi eta ezarri egingo da, gatazken ebazpenean bitartekaritzaren, kontzilioaren eta konponketaren alde egiten duen gazte justiziako euskal zerbitzu bat garatuz, gazteen berrerortze-tasa murrizteko eta % 15aren azpitik kokatzeko xedearekin. Era berean, plaza nahikoak daudela ziurtatuko da, zigor-arloko legea urratu duten adingabeei judizialki ezarritako neurri guztiei erantzuteko. Kanpoko profesionalek aldizka gainbegiratuko dituzte adingabe arau-hausleak barneratzeko hezkuntza-zentroen funtzionamendu-sistemak eta langileen lana.

Fiskaltzaren eta polizia judizialaren jarduketa-unitatea indartuko da desagertutako pertsonei dagokienez.

Jarduera judiziala berraktibatzeke jarduketa-plan bat ezarriko dugu, horrela Covid-19aren ondorioei aurre egiteko.

Arreta berezia emango zaie indarkeria matxistaren biktimei, Emakumearen aurkako Indarkeriaren Biktimen Plana garatuz. Horrez gain, auzitegiko balorazio integralerako unitateen jarduketa eta talde psikosozialak indartuko ditugu, arriskuaren detekzio goiztiarrerako eta adingabeen egoeraren inguruko balorazio eraginkorra egiteko indarkeria matxistako kasuetan. Ondorio horietarako, justiziaren zerbitzu guztiak egokituko dira Istanbulerako Hitzarmenak jasotzen duen emakumearen aurkako indarkeriaren definiziora.

Ildo beretik, biktima horiei arreta emateko berariazko atal bat abiaraziko da, langileen eta materialen zuzkidura nahikoarekin indarkeria matxista ooren biktimei babes integrala ematea lortzeko. Halaber, Emakumearen aurkako Indarkeriaren aurrean Jarduteko Plana garatuko da, zehazki, honetan sakontzeko helburuarekin: erakunde arteko koordinazioa; emakumearen aurkako indarkeriako auzitegien langileen prestakuntza; instalazioen egokitzapena eta biktimei informazio, arreta eta laguntza integralak emateko zerbitzuak indartzea (Zurekin Programa).

20. Segurtasuna.

Gure xedea da Euskadin kriminalitate-tasak murrizten jarraitzea eta Europar Batasuneko tasarik baxuenen artean kokatzea, hau da, zigor-arloko 40 arau-hauste baino gutxiago 100 biztanleko. Hori lortzeko, segurtasun-eredu berri bategan aurrera egiteko konpromisoa hartzen dugu, honako ezaugarri hauei erantzungo diena: Pertsonek zerbitzura dagoen segurtasun hurbila; prebentziozko segurtasuna; segurtasun berritzailea eta segurtasun integrala eta interkonektatua.

Konpromisoak

1) Segurtasun hurbilagoa, gardenagoa eta pertsonen zerbitzura.

Gure konpromisoa da hurbiltasuna, gardentasuna eta kontu-ematea funtsezko ardatz gisa kokatzea, segurtasuneko eta poliziaren jarduketako euskal sistema horien inguruan artikulatzeko. Helburu horrekin, herritarrekin elkartzeko etengabeko sistema bat ezarriko da, segurtasunaren eremuan, bere kezka ezagutzeko eta bere eskariei prebentzioz erantzuteko. Horrez gain, gizarte zibilarekiko eta herritarren elkarrekin komunikaziorako bide egonkorrak indartuko dira, egiaztatutako informazioa helarazteko denbora errealean, horrela sare sozialetan “fake news” edo albiste faltsuak hedatzea saihestuz.

2) Prebentziozko segurtasuna.

Kolektiborik zaurgarrietan berariazko prebentzio-programak ezarriko dira, segurtasun-arriskuak saihesteko. Besteak beste, drogen kontsumoaz eta jokoarekiko menpekotasunaz ari gara, baita gazteen kolektiboaren bestelako portaera-menpekotasun batzuez ere.

Prebentziozko segurtasunaren ildo beretik, edozein erradikalizazio biolento prebenitzeko programak indartuko dira, sinesmen edo iritzi desberdinak ez errespetatzeagatik eragindako bereizkeria-, xenofobia- edo arrazakeria-adierazpenak barne, baita fanatismo totalitarioa bereizten duen gorrotora erakartzeko eta horretan hezteko tresna berriak ere, propaganda jihadistarekiko ahulenak diren kolektiboetan sakonduz. Halaber, indartuko dira emakumeen aurkako indarkeriako arrisku-egoeren detekzio eta prebentzio goiztiarrerako programak eta prebentzioa areagotuko da Interneten erabilera seguruari dagokionez, bereziki, haurren eta nerabeen kolektiboaren artean.

Bestalde, zibersegurtasun-gorabeheren aurrean sentikorrek diren azpiegiturak babesteko prebentzio-sistema bat sortuko da eta ikerketa-sistema zein espezialista-taldeen prestakuntza egokituko dira, ingurumen-delituak, salerosketa-sareak eta Interneten bidezko finantza-delituak bezalako delitu-forma berriei prebentzioz erantzuteko.

3) Segurtasun berritzailea.

Tresna teknologiko berriak apurka-apurka ezarriko dira pertsonen babesa indartzeko; sistema informatikoak eta komunikazioak eguneratuz eta agenteei banakako kamerak emanez, bere jarduketan gardentasuna bermatzeko eta delituzko egitateen aurrean frogak hobekitu emateko.

Ustelkeria-, ekonomia- eta zerga-delituak ikertzeaz eta jazartzeaz arduratzen diren Ertzaintzaren unitateak indartuz eta horiei baliabideak emanez jarraituko dugu.

Bide-segurtasunaren eremuan, bide-segurtasunarekin lotutako kontzientziazio-programak indartzen jarraituko dugu, trafikoaren kudeaketa Europar Batasunak ezarritako parametroetan hobetzeaz gain.

4) Segurtasun integrala eta interkonektatua.

Ondorio horietarako, Segurtasun Publikoko 2025 Plan berria onetsiko da, segurtasunean esku hartzen duten organo guztien esku-hartze eta koordinaziorako gida gisa.

Aurrera egingo da Ertzaintzaren interkonexioan eta Estatu zein nazioarteko mailako beste polizia-estamentu batzuekiko datuen eta informazioaren trukean.

Larrialdien eta babes zibilaren eremuan, udaltzaingoekiko eta Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibilerako Euskal Sistemarekiko lankidetzeta-mekanismoetan sakonduko da, larrialdietarako zentro adimendun bat abiaraziz eta hondamendietan laguntzeko unitateak sortuz, beharrezkoa izatekotan, lurralde artean eta autonomia erkidegotik kanpo jarduteko gaitasuna izango dutenak.

21. Bizikidetzaren eta Giza Eskubideak.

2011ko urriaren 20an, behin betiko bukatu zen jarduera terrorista eta, horren ostean, zehazki, 2018an, ETA desegin zen. Horrela, Euskadik atzean utzi egin du terrorismo, indarkeria eta banaketako iragan bat.

Akordioa sinatu genuen alderdi politikook 2016ko akordioan partekatutako premisak berresten ditugu eta hauxe gehitzen dugu:

-) Adierazi nahi dugu gure erabakia lankidetzaren prozesu batekin jarraitzea dela, bakea eta bizikidetzaren normalizazioa irmoki finkatzeko xedearekin.
-) Azkenaldian aniztasun-irismenik handienarekin lortutako adostasunetan oinarrituta, salatzen dugu indarkeriaren legitimotasunik eza helburu politikoak lortzeko eta, horrekin batera, Giza Eskubideen errespetu zorrotzarekiko konpromisoa berresten dugu, ñabardurarik gabe onartuz herritar guztien duintasun berbera, zerbaiten kide izatearen sentimenduen edo ideologiengatik. Horrez gain, berretsi nahi dugu euskal gizartearen aniztasuna defendatzen jarraituko dugula.
-) Bizikidetzaren egiaz, memoriatik eta justiziatik eraikitzeko konpromisoa mantentzen dugu, hausnarketa plural bat sustatuz, non argi eta garbi adieraziko den ez dagoela inolako argudiorik (ezta gatazkaren testuingururik edo teoriarik, aurkatutako bandoen inguruko tesirik, zeinu desberdineko urraketen salaketarik, Estatu-arrazoirik eta etorkizunaren nagusitasunik ere) ETAREN indarkeria edo Giza Eskubideen beste edozein urraketa txikiagotzeko, justifikatzeko edo zilegi egiteko.
-) Iragana ahazten duen etorkizunerako begirada batek biktimen ohorea eta memoria ez baztertzea defendatzen dugu. Lan egingo dugu, horiekiko elkarrizketatik eta adostasunetik, guztiek izan ditzaten merezi dituzten aintzatespena eta konponketa, bazterketarik gabe eta horien biktimizaziorako kausen inguruko paralelismorik ezarri gabe.
-) Gure aburuz, bizikidetzaren normalizaziorako, lege-aukeren esparruaren barruan, presoen gaia, espetxe-politika eta birgizarteratzea jorratu behar dira, hain zuzen ere, gizarte-errealitate berrira egokituz.
-) Seguru gaude terrorismoaren eta indarkeriaren amaiera bizikidetzaren gizarte-egituraketa eta gizarteratze bihurtu behar direla, konpromisoa hartuz elkarrizketa-balioekin, Giza Eskubideen gaineko hezkuntzarekin eta kultura demokratikoarekin.

Une egokia da bidezko bizikidetzaren baketsua eta inklusiboa finkatzeko asmoa partekatzen dugula berresteko, eragindako kaltearen bidegabekeriaren memorian, giza eskubideen errespetuan eta pluralismoan oinarrituko dena. Testuinguru honetan eta adierazitako premisetan oinarrituz, Eusko Jaurlaritzaren bizikidetzaren proiektua bizikidetzaren eta giza eskubideen plan estrategikoko baten bidez bideratuko da. Plana bi eremu handi hauetan egituratuko da: bizikidetzarako euskal agenda eta giza eskubideen agenda globala. Giza duintasunaren eta giza eskubideen errespetua, promozioa eta defentsa plan horren printzipio gidaria izango dira, zehazki, ukazina den printzipio etiko honetatik abiatuta: ez zen egon eta ez dago inolako arrazoirik pertsonen duintasuna, osotasuna eta bizitzarako eskubidea ezeztatzeke.

Printzipio gidari horietatik abiatuta, konpromiso hauek hartzen ditugu:

Konpromisoak

1) Biktimen eskubideen defentsa.

Berresten dugu gure konpromisoa ETaren, GALen eta bestelako taldeen biktimei zein polizia-abusuen biktimei dagozkien egia, justizia, memoria, konponketa eta solidaritateko eskubideekin. Hori guztia parekatzerik eta bazterketarik gabe eta edozein terrorismo- edo indarkeria-forma justifikatzeko edo testuinguruan kokatzeko teoria oro ukatuz. Konpromiso hori Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egiteko 4/2008 Euskal Legea garatuz bideratuko da eta, gainera, biktimak eta gizartea bizikidetzarako eta etorkizunerako elkartzeko Batera Proiektua sustatuko da.

Horretarako, nagusikeria-abusuak eragindako giza eskubideen urraketen biktimei aitorpena eta konponketa egiteko 12/2016 Legea ere garatu beharko da.

Biktimei dagokienez egiteke dauden eginkizunei dagokienez, erabat argitu ez diren kasuen errealitatea nabarmendu behar da. Horiek argitu arte, aitorpen-esfortzu gehigarria merezi dute.

2) Terrorismoko eta indarkeriako iraganaren memoria kritikoa sustatzea.

Memoria kritikoa konpromisoa iraganeko edozein terrorismo- edo indarkeria-formaren legitimazio, konpentsazio edo minimizazio ukatuz eta orain edo etorkizunean gertakari berberak errepikatzea irmoki aurkatuz gauzatzen da. Hala, memoria hori bizikidetzaproiektu sozial bat partekatzea bideratuko da eta terrorismoak eta motibazio politikoko bestelako indarkeria batzuek eragindako bidegabekeria aitortzean oinarrituko da.

Konpromiso hori Gogora 2021-24 Jarduketa-planaren bidez gauzatuko da, baita horren dibulgazio-, ikerketa- eta kudeaketa-baliabideak finkatuz ere. Era berean, Gogoraren egoitzako eta Gernikako Bonbardaketaren Museoko erakusketa-proiektuak zein Gasteizko martxoaren 3aren inguruko erakusketak hartuko ditu barne.

Gainera, Gogorak zeharkako irismena eta zentzu etikoa dituen bizikidetzaren inguruko itun sozial bat garatuko du, premisa honetan oinarrituko dena: ez zegoen, ez dago eta ez da egongo terrorismoa edo eskubideen beste edozein urraketa justifikatzeko arrazoi politikorik.

Konpromiso beraren barruan, Euskadiko Memoria Historiko eta Demokratikoaren Legea onartzea sartzen da, erreferentziatzat hartuz aurreko legegintzaldian aurkeztutako zirriborroa.

3) Espetxe-politika eta birgizarteratzea.

Konprometituta gaude indibidualizazio, humanitate, eragindako kaltearen konponketa eta birgizarteratzeko lege-printzipioen promozio aktiboan oinarritutako espetxe-politika batekin. Hain zuzen ere, horren ondorioetako bat da presoak bere familia-ingurunearengandik hurbilago dauden espetxeetara lekuz aldatzea babestea, Konstituzioak eta espetxe-legezkotasunak orientatutako terminoetan.

Konpromisoa espetxe-politikan eskuduna den Espainiako Gobernuarekiko elkarriketaren eta lankidetzaren bidez bideratuko da. Izan ere, politika horren funtsezko orientazioa birgizarteratzea izan behar da; lehenetsunez kudeatu behar ditu gizakiengan eta osasunarengan eraginik handiena duten arazoak eta presoak bere familia-ingurunearengandik hurbil dauden espetxeetara hurbiltzea erraztu behar du, Konstituzioak eta espetxe-legezkotasunak orientatutako terminoetan.

Bestalde, espetheen kudeaketa EAera transferitzea jasoko da, Gernikako Estatutua osorik betez eta garatuz, Gobernu Kontseiluak 2017ko irailean babestutako eta Eusko Jaurlaritzaren Autogobernuaren Ponentziara bidalitako Euskal Autonomia Erkidegoari egin beharreko Transferentzien Eguneraketari buruzko 2017ko Txostenak jasotako terminoen barruan eta Espainiako Gobernuak formalki 2020ko otsailaren 20an bidalitako Eusko Jaurlaritzak eskatutako transferentziei buruzko balizko negoziazioetarako kronograma-proposamen orientagarriarekin edo horren adostutako eguneraketekin bat eginez.

4) Giza eskubideen politiken koordinazioa.

Giza eskubideen euskal agenda planetaren erronkek markatzen dute eta giza eskubideen agenda globalarekiko konpromiso bat eskatzen du.

Hezkuntzaren eremuan, hauen bidez antolatuko da: Hezkuntza eta Giza Eskubideen Esparru Programa; dibulgazio-ekimenen programa eta Giza Eskubideen aldeko Pedagogia-baliabideen Aieteko “Eskura” Zentroaren finkapena.

Horrez gain, hauxe egin beharko da: dibertsitate erlijiosoaren kudeaketa positiboaren bultzatu; EAEko Gurtzarako zentroi buruzko Lege-proiektuaren onetsi; Erlijio arteko Kontseilua sortu eta “ADOS Batzordearen” jarduketa-programa bultzatu.

Erradikalizazio biolentoaren prebentzioari dagokionez, gizarte-hezkuntzako Uztartu programa hedatuko da.

Nazioarteko bakean laguntzeko euskal programa bat garatuko da eta giza eskubideen defendatzaileak babesteko ekimenak mantendu egingo dira. Gainera, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin lankidetzan aritu beharra egongo da Etikasi Programaren esparruan; zehazki, programa horrek ikasleentzako hezkuntza-bisitak aurreikusten ditu gerrak edo indarkeriako bestelako esperientzia traumatikoek markatutako Europako hirietara.

22. Garapenerako lankidetzak.

Begirada Garapen Jasangarrirako Helburuen 2030 Agendan jarrita, gaur egun, lankidetzak-politika ezin da soilik ulertu espezializatutako ekintza-eremu gisa, baizik eta garapenerako estrategia global eta oso baten parte gisa. Hain zuzen ere, lankidetzak-politika hori, giza eskubideen eta garapenerako politiken koherentziaren ikuspegi batetik, Eusko Jaurlaritzaren ekintza guztian aplikatzen da. Nahitaezkoa da egungo agertokiari eta euskal administrazioak bere garapenerako politikak sustatu behar dituen formari erantzuten dien legezko esparru berri bat, herrialdeetan eta herrialdeen artean desberdintasunak murrizten laguntzen duen garapenerako lankidetzak deszentralizatua artikulatzeko.

Konpromisoak

1) Euskal herritarren, erakundeen eta eragileen eta gizarte-antolakuntzen artean partekatutako garapenerako lankidetzako politika irekia.

Justizia sozialarekiko eta aberastasunaren birbanaketarekiko konpromisoa, errealitateak eta mentalitateak eraldatzeko; hortaz, garapenerako finantzaketa-baliabide egonkorak bideratuko dira.

Aldi berean, lankidetzarako euskal eragile tradizionalen (GGKE) gaitasunak indartuko dira eta garapenerako eragile berrien arteko aliantzak eta konpromisoa bultzatuko dira, horien papera funtsezkoa delako Euskadiko garapenerako lankidetzak hedatzeko eta finkatzeko. Helburua da lankidetzak teknikoko eta itunpeko lankidetzako esperientzia berriak garatzea, nazioarteko lankidetzarako babesa eusten duen gizarte-oinarria zabaltzen dutenak. Zentzu horretan, dagoeneko abian dauden ekimen ezagunak (auzolankide) hartuko dira erreferentziatzat.

2) Garapenerako politiken koherentzia.

Eusko Jaurlaritzaren politikan giza eskubideetan, genero-berdintasunean eta garapenerako politiken koherentzian oinarritutako zeharkako ikuspegi bat ezartzeko konpromisoa. Konpromisoa Garapenerako Lankidetzaren Euskal Lege berri bat eginez eta onetsiz gauzatu egingo da, zehazki, ikuspegi hauekin: Garapenerako Lankidetzaren V. Plan Zuzentzailea, beste lehentasun batzuen artean, Afrika indartuz; garapenerako politiken koherentzia erreal bateranzko bultzada irmoa; Eusko Jaurlaritzako sail desberdinak bere jarduketaren-eremuekin lotutako lankidetzak-ekimenetan sartzeko ekintza zehatzen sustapena eta erakundeen barneko zein erakunde arteko koordinazioa, bereziki sakonduz Euskal Fondoarekiko aliantzan.

3) Gizarte-erlaketarako hezkuntza.

Iparraldea-Hegoaldea binomioa gaintzen duen agenda global berriarekin bat eginez, gure konpromisoa adierazten dugu gizarte-erlaketarako hezkuntzarekin. Horren ardatz nagusia da herritarren laguntzea, gizartearen zein banakoen pentsamendu kritikoa eta gizarte-konpromisoa sustatzeko eta, hortaz, "HABIAN 2030" Estrategia finkatuz.

4) Lankidetzaren kalitatea, eragina eta berrikuntza.

Konpromisoa Eusko Jaurlaritzan bertan eta Euskadiko lankidetzarako egitura osatzen duten beste erakunde batzuen artean ebaluazioaren kulturaren instituzionalizazioan sakontzeko; horrez gain, indartuko egingo dira gardentasuna eta ezagutzaren zein komunikazioaren kudeaketa. Horrekin guztiarekin batera, Garapenerako Lankidetzarako Euskal Agentziaren paper aktiboa indartuko da, Europa mailako lankidetzak deszentralizatuaren berezko ereduaren sustatzailea gisa.

23. Euskadi Basque Country. 2030 Agenda.

Euskadi atzerrian proiektatzeko, estrategia argia eta zehatza, esfortzu publiko eta pribatuak eta herrialde-marka bat behar dira: “Euskadi Basque Country”, berezko balio eta indarretan oinarrituta. Kanpo-proiektzio horren lehentasunezko erreferentzia-esparrua Europa da.

Mugaz gaindiko eremuari dagokionez, Communauté d’Agglomération du Pays Basque, hau da, Iparralderekin harremanak finkatzearen eta sakontzearen alde egiten dugu, baita “Euskadi-Akitania-Nafarroa” Euroeskualdea indartzearen alde ere, ardatz atlantiko europarrean lidergorako eta bultzadarako espazio bat eratzeko.

Euskadi emigrazio-herri bat izanik, gure konpromisoa da euskal diasporarekiko loturak estutzen jarraitzea, euskal diaspora tradizionala zein euskal emigrazio berria barne hartzen dituen benetako erkidego globala artikulatzeko. Azkenik, atzerriko euskal agenda hertsiki lotuta egon behar da Nazio Batuen 2030 Agendarekin, horrekin erabat ados gaudelako. Abiapuntu horietatik, konpromiso hauek proposatzen ditugu:

Konpromisoak

1) “Euskadi Basque Country” kanpoan proiektatzea.

Nazioartekotzerako euskal esparru-estrategiarekin lerrokatutako “Euskadi Basque Country” markaren kanpoko sustapenerako plan bat onetsiko dugu.

Planak hauxe aurreikusiko du:

- Sektore anitzeko jarduketan finantzaketa, Euskadi marka atzerrian sustatzeko.
- Euskadiren atzerriko delegazioen erakunde-sarea indartzea, atzerrian posizionamendu eta proiektzio egokiak sustatzeko helburuarekin, horrela enpresen, kulturaren eta erakundeen eremuetako nazioartekotze-proiektuak hedatzea errazteko.
- SPRIren bulegoekiko eta “Basque Trade and Investment” nazioartekotzeko euskal agentziarekiko baterako eta lankidetzako jarduketa.
- Nazioarteko bazkide estrategikoen sarea finkatzea eta handitzea, sektore anitzeko eta alde biko lankidetzako baterako proiektuak garatuz.

2) Munduko Euskal Diasporarekiko loturak indartzea.

Euskal Etxeen ekimenak eta proiektuak babesteko programak handituko dira, gazteriari zuzendutako berariazko lan-plan batekin, belaunaldi-erreleboa bermatzeko helburuarekin. Euskal Etxeen sare fisikoaz gain, “Basque Global network” sare birtuala finkatu eta hedatu egingo da, munduan benetako euskal erkidego globala eratzeko.

Horrez gain, euskal emigrazio berriaren mapa bat ezarriko da, euskal diaspora berri honetara egokitutako arreta- eta lotura-politikak diseinatuz.

Bestalde, atzerrian zaugarritasun-egoeretan dauden euskaldunei arreta emateko programa indartuko da eta aholkularitza emango zaie itzultzea erabakitzen duten pertsoneri, eskuragarri dituzten programen eta ekimenen berri emanez.

3) Euskadi-Nafarroa-Akitania Berria Euroeskualdea bultzatzeko apustu irmoa.

Bultzada hori ekimen hauetan oinarrituta artikulatuko dugu:

- Mugaz gaindiko lankidetzak irekiagoa eta parte-hartzaileagoa sustatzea.
- Prestakuntza eta enplegua indartzea mugaz gaindiko eremuan.
- Nafarroarekiko eta Communauté d'Agglomération du Pays Basque edo Iparralderekiko lankidetzak indartzea kulturaren eremuan, kirolean eta, bereziki, euskararen eremuan, mugaren bi aldeetako "euskararen lurralde" guztien hizkuntza komun gisa.
- Mugaz gaindiko eta Euroeskualdeko lehiakortasuna eta berrikuntza babestea, espezializazio adimenduneko eremu komunitario ikerketa-proiektuetan eta proiektu industrialetan parte hartuz.
- Euskadi-Nafarroa-Akitania Berria Euroeskualdeko lurralde-antolamenduaren politika integratua garatzea eta Euskadiren parte-hartze aktiboa indartzea Pirinioetako Lan-erkidegoan, Espainia-Andorra-Frantzia Lan-erkidegoaren programa operatibo berria oinarrituta (POCTEFA).

4) Euskadiren parte-hartze aktiboa proiektu europarrean.

Adierazten dugu Europako proiektuaren eraikuntzan eta finkapenean aktiboki parte hartzeko konpromisoa dugula.

Helburu horrekin eta Espainiako Gobernuarekiko harremanen, Estatuko Administrazio Orokorrarekiko itunaren eta CARUE akordioetan autonomia-erkidegoek Europar Batasunaren kontseiluetan zuzenean parte hartzeko aurreikusitakoa praktikan aplikatzea ahalbidetzen duen antolakuntza-sistemaren esparruan, uste dugu autonomia-erkidegoek Espainiaren Europar Batasuneko delegazioan parte hartzearekin lotutako hobekuntzak egiten jarraitu behar dela. Horrekin batera, hala badagokio, Euskadiren parte-hartzea eta ordezkaritza hobeto artikulatu behar dira euskal autogobernari eragiten dizkieten Europar Batasuneko Kontseiluetan, batez ere, bere eskumen eskusiboko gaiak jorratzen direnean.

Euskadik hurrengo hamarkadarako plan estrategiko europarren definizioan eta egikaritzapenean lagun dezake eta lagundu behar du: "Next Generation Europe" eta "Horizonte Europa" programa. Ildo horretatik, hitzematen dugu aktiboki lan egingo dugula euskal parte-hartzea areagotzeko programa zein proiektu europarretan, bereziki, ikerketaren, ekosistema industrialen eta prestakuntzaren eremuetan, bai unibertsitate-hezkuntzan, bai lanbide-heziketan.

Gure xede partekatua da Euskadi eragile nabarmena izatea Europak hurrengo hamarkadan egikaritu beharko dituen trantsizio digitaleko, trantsizio berdeko eta osasun-gizartearen eremuko trantsizioko prozesuetan.

5) Garapen jasangarrirako erronka globalak lortzen laguntzea: 2030 Agenda.

Lehendakaritzaren koordinazio-eginkizuna egikaritzuz, Euskal Autonomia Erkidegoak Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuak betetzeko egiten duen ekarpenaren segimendua eta proiektzioa egingo dira eta, urtero, Garapen Jasangarrirako Helburuen bilakaera-mailaren berri emango zaio Eusko Legebiltzarrari.

24. Kudeaketa publiko gardena eta erantzulea.

Modernizazio soiletik harago, uste dugu beharrezkoa dela administrazioa berriz diseinatzea sustatzen duen etapa berri bati ekitea, herritarren eskari eta eskakizun berriei hobeto erantzuteko. Administrazioa berriz diseinatzeko prozesu hori euskal administrazio berria eratzen duten lau oinarri hauetatik abiatzen da: Administrazio hurbila, sinplea eta eraginkorra, bikoiztasunak saihesten dituen. Administrazio irekia eta gardena, kontuak denbora errealean ematen dituen. Administrazio berritua eta digitala, finkatutako eta prestatutako giza baliabideekin. Baliabide publikoak erantzukizunez kudeatzen dituen administrazio bat.

Oinarri horietatik abiatuta, hauxe proposatzen dugu:

Konpromisoak

1) Administrazio hurbilagoa, sinpleagoa eta eraginkorragoa, bikoiztasunak saihesten dituen.

Gure asmoa da administrazioaren sozietate- eta erakunde-egituraren sinplifikazioan aurrera egitea, sinpleagoa eta eraginkorragoa izan dadin.

Horretarako, Sektore Publikoaren Legearen onespina proposatzen dugu, Eusko Jaurlaritzak erakundeen egituran duen paper koordinatzailea bermatuko duena eta erakunde-maila desberdinen arteko balizko bikoiztasunak saihesten dituzten lankidetzak- eta koordinazio-mekanismoak barne hartzen dituen.

Halaber, lege honek euskal sektore publikoa osatzen duten erakundeen, nagusiki, enpresen eta fundazio publikoen kontrol-sistemak indartuko ditu, baita administrazio publikoen itunpeko zerbitzuak ematen dituzten eta finantzaketa gehiena bide horretatik jasotzen duten entitateen kontrol-sistemak ere.

Administrazioaren eta herritarren arteko harreman-eredua berriz diseinatzea proposatzen dugu, filosofia honetan oinarrituz: "Sinplifikatzeko berritu". Helburua da herritarrekiko harremanerako leihatila bakar bat abian jartzea eta, gutxienez ere, administrazio-prozeduren % 20 sinplifikatzea, Eusko Jaurlaritzaren informazio-orrialde guztietan eta, bereziki, bere webgune korporatiboan hizkuntza sinplea erabiliz. Laburbilduz, administrazioa sinplifikatzea printzipio hauen pean: sinpleagoa, errazagoa, hurbilagoa.

2) Administrazio irekiagoa eta gardena, kontuak denbora errealean ematen dituen.

"Herritarren parte-hartzerako eta gardentasunerako legea" onestea, administrazioaren herritarrekiko gardentasuna bermatzeko, herritarren parte-hartzea sustatzeko gai publikoetan eta gobernu-programa betez garatzen diren ekintzen eta ekimenen kontuak denbora errealean ematea ahalbidetzeko. Halaber, gizarte elkarrizketan sakontzeko, beharrezko araudia garatuko dugu, politika publikoen eraikuntzan eta egikaritzapenean, administrazio publikoaren eta sindikatuen eta enpresa-antolakuntzen arteko etengabeko elkarrizketa bultzatzeko.

Gure ustez, gobernu-programa herritarrekiko gizarte-kontratu bat da. Horrenbestez, gizarte-auditoretzako eta herritarrek ahalduzko prozesuak bultzatuko ditugu. Open Data eta Open Government estrategiak indartuko ditugu; herritarren parte-hartzea eta horien iritzien entzute aktiboa areagotuko ditugu eta adierazleen sistema berriz ere diseinatuko dugu, kudeaketa publikoaren denbora errealeko informazio- eta ebaluazio-prozesu etengabe batean.

3) Administrazio berritua eta digitala, finkatutako eta prestatutako giza baliabideekin.

Gure konpromisoa da “euskal enplegu publikoaren lege” bat onestea, euskal administrazio publikoaren bitarteko kontratuen tasa altuak murrizten dituena, zehazki, bitarteko langileak finkatzeko prozesuen eta enplegu-eskaintza publiko berrien bidez, funtzionarioak berritzea eta horien belaunaldi-erleboia ahalbidetzeko.

Funtzio publikorako sarbide-sistemak eguneratu eta berrikusiko dira, gardenagoak eta arinagoak izan daitezen, erabateko bermearekin betez berdintasun, merezimendu eta gaitasuneko printzipioak.

Berrikuntza publikoa bultzatuko dugu funtzionario-egitura horizontalagoen bidez, langile publikoek erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzea sustatzeko.

Administrazio digitalago baterantz aurrera egingo dugu; horretarako, “gobernalaren” euskal estrategia abiaraziko dugu, administrazioen arteko eta sektore pribatuarekiko elkarreragingarritasuna amaituko dugu eta herritarren karpeta bateratu bat sortuko dugu. Araudi- eta administrazio-prozesuen sinplifikazioan eta modernizazioan aurreratuko dugu, herritarren eskariei arinago eta lasterrago erantzuteko eta araudiaren lanketa azkartzeko.

Esparru honetan, administrazioaren eremuko adimen artifizialeko proiektu pilotu bat abiaraziko da, hori izanik adimen artifizialeko euskal zentroaren aplikazio-arloetako bat. Horrela, teknologia berriak eta berrikuntza teknologikoa baliatuko ditugu, gobernuaren ekintza eta herritarrei ematen zaien zerbitzua hobetze aldera.

4) Baliabide publikoak erantzukizunez kudeatzen dituen administrazio bat.

Proposatzen dugu plangintza estrategikoa garatzea herrialde-erronka handiei eta hiru trantsizio globalei aurre egiteko: energia-ingurumen trantsizioa; trantsizio teknologiko-digitala eta trantsizio sanitario-soziala.

Gure konpromisoa da baliabide publikoak zorrotasunez erabiltzea eta zorpetzea erantzukizunez kudeatzea, gizarte-politikak bermatzeko eta COVID19aren pandemiak eragindako krisi ekonomikoari eta enplegu-krisiari erantzutea bultzatzeko.

Horretarako, finantza- eta zerga-politika erabiliko dugu enpleguaren, garapen ekonomikoaren, enpresa errotzearen eta berrikuntzaren eta gizarte-kohesioaren alde, Finkatuz enpresa-errotzerako funtsak handituz. Horrekin batera, ETEen finantzaketa indartuko dugu arrisku-kapitaleko funtsen bidez eta Finantzen Euskal Institutuaren bidez, funts jasangarrien emisioa bultzatzeaz gain, gizarte-kohesioa eta ingurumen-jasangarritasuna bultzatzeko.

Zerga-iruzurraren aurkako borroka administrazio zuzen eta arduratsu baten funtsezko elementu bat izango da; horrenbestez, zerga-iruzurraren aurka borrokatzeko plan integral berri bat onetsiko da foru aldundiekin elkarlanean.

Azkenengo legegintzaldiko esperientziak erakutsi du gaitasuna dugula baliabide publikoak zorrotzasunez kudeatzeko eta fiskalitate progresiboago eta bidezkoago batean aurrera egiteko. EAJ-PNVk eta PSE-EEK adierazten dugu hitzemandako fiskalitatearen berrikuspena egiteko asmoa dugula; hala eta guztiz ere, orain, berrikuspen horrek elementu hauek hartu beharko ditu kontuan: Covid19aren krisiaren ostean sortutako errealitate ekonomiko berria; enpleguaren balizko bilakaera; gure enpresen gaitasunak eta lehiakortasuna eta Espainiako Gobernuak eta, dagokigun proportzioan, Europar Batasunak aurreikusitako ez-ohiko ekarpenak. Agertoki berri honetan, bi alderdiok konpromisoa hartzen dugu fiskalitate berri baten inguruko hausnarketa sakona egiteko erakunde eskudunekin batera. Fiskalitate berri horrek enplegua sortzen duen ekonomia babestuko du, zerbitzu publikoak indartuko ditu eta Europako fiskalitatearekiko konbergentzia eta progresibitateerantz joko du.

25. Autogobernu handiagoa eta hobea.

EAJ-PNVk eta PSE-EEK (PSOE) konpromiso argia hartu izan dugu erakunde-egonkortasuneko printzipioarekin eta konpromiso hori udal, foru eta erkidego mailan hartutako erabaki desberdinetan gauzatu da, azkenaldian, Espainiako Gobernua eratzeko ere adierazi egin dena Estatu mailan.

Bi alderdiok positiboki baloratzen dugu eredu hau eta hori garatzen jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu, leialtasunetik eta osagarritasunetik, erakundeen egonkortasuna errazteko elkarrizketaren eta akordioaren bitartez.

Autogobernua herritar guztientzako ongizate handiagoren sinonimoa da. Autogobernua, horren defentsa eta transferitu beharreko eskumenen erreklamazioa estatutu-itunaren eguneraketari aurre egiteko funtsezko oinarriak dira, Eusko Legebiltzarreko autogobernuari buruzko ponentziak aurreko legegintzaldian egindako lanei jarraiki.

Printzipio horietatik abiatuta, adierazi nahi dugu konpromisoa dugula Euskadiko autogobernua handitzeko eta hobetzeko, hain zuen ere, konpromiso hauetan oinarrituz: lortutako autogobernuaren legegintza-garapena handitzea, “autogobernua barrurantz” lortutako autogobernuaren defentsa, eraginkortasunez erabiliz indarreko mekanismo politikoak, juridikoak eta erakunde-mekanismoak. Gernikako Estatutuan aitortutako autogobernua osatzeko onartutako konpromiso politikoak eta erakunde-mailako konpromisoak betetzeko lan egitea, zehazki, Eusko Jaurlaritzak eskatutako transferentziei buruzko balizko negoziazioetarako kronogramaren eta adostutako balizko eguneraketen arabera.

Konpromisoak

1) Autogobernuaren legegintza-garapena handitzea: autogobernua barrurantz.

Konpromisoa hartzen dugu autogobernua “barrurantz” handitzeko eta hobetzeko, lege-proiektuak eta, hala badagokio, lege-proposamenak onartuz, betiere Eusko Jaurlaritzak gobernu berria eratu osteko lehenengo hiru hilabeteetan behin betiko onetsiko duen legegintza-programa baten arabera. Programa honetarako lehenengo hurbilketa batean, zehatza ez den hasierako zerrenda bat jasotzen dugu, aurreko legegintzaldian egindako lanetatik abiatuta. Horrek islatzen du autogobernuaren legegintza-garapenean aurrera egiteko asmoa dugula herritarren onurarako.

Halaber, politika estrategikoen koordinazioan sakonduko dugu gainerako erakundeekin (foru aldundiak eta udalak), ezarritako koordinazio-organoak eta mekanismoak ezarriz edo, hala badagokio, erakunde arteko lanerako eta lankidetzarako espazioen sorkuntza babestuz, gizarte gisa gainditu beharko ditugun erronka handiei aurre egiteko xedearekin.

LEGE-PROIEKTUEN/PROPOSAMENEN HASIERAKO ZERRENDA
EAEko Gurtzarako Zentroena.
EAEko herritarren parte-hartzearena eta gardentasunarena
Euskal Enplegu Publikoa
Euskal Sektore Publikoarena
Xedapen orokorren lanketarako legearen aldaketa
Administrazio publikoen zehatzeko ahalaren legearen aldaketa
Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legearen aldaketa
Kirol arloko Lanbideetan Sartzea eta Jardutea
Ondare naturalaren kontserbazioa
Ingurumen-administrazioa
Klima-aldaketa
Ekarpenen legea
Euskal Autonomia Erkidegoko diru-laguntzen araubidea.
Berdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeria deuseztatzeko legearen aldaketa
Mugikortasun jasangarria
Landa-garapeneko Legearen aldaketa
Euskal Enplegu Sistema
Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko legearen aldaketa
Aurrezki-kutxak eta banku-fundazioak
Hezkuntza
Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoa eta Kirola.
Euskadiko Dokumentu Ondarea eta Artxibo Sistema
Gazteria
Administrazio orokorreko eta erakunde autonomoetako kidegoak eta eskalak
Kasazio-errekurtso zibila
Osasun Publikoa
Kontsumitzaileak Babesteko Legea
Euskadiko Memoria Historiko eta Demokratikoaren Legea

2) Lortutako autogobernuaren defentsa. Indarreko mekanismo politikoak, juridikoak eta erakunde-mekanismoak eraginkortasunez erabiltzea.

EAJ-PNV eta PSE-EErentzat, positiboa izan da bi alderdiok euskal autogobernuaren garapenean izandako lankidetzak. Hain zuzen ere, hori adierazi genuen Eusko Legebiltzarrean onetsitako estatutu-garapenari buruzko 1993ko eta 1995eko txostenetan, baita aurreko legegintzaldian autogobernari buruzko ponentziaren aurrean aurkeztutako txostenean ere.

Ordutik hona, transferentzia ugari egin dira. Zehazki, aurreko legegintzaldian, transferentzia berriak egin dira gai hauetan: errepideak, trenbide-lineak, farmazia-produktuak, eskola-asegurua eta enplegu-erregulazioko espedienteek ukitutako langileen aurre-erretirorako laguntzak. Hala ere, egia da oraindik ere lan gogorra dagoela egiteke, ahalik eta lasterren bukatzeko Eusko Jaurlaritzak eskatutako transferentziei buruzko balizko negoziatioetarako kronograma-proposamen orientagarria.

EAJ-PNVk eta PSE-EEK konpromisoa hartzen dugu lortutako autogobernuaren defentsa bermatzeko, horren garapena sustatzeko eta Eusko Legebiltzarrak edo Jaurlaritzak bere eskumenen eremua egikaritzuz onetsitako politika publikoetan sartzeari, husteari, baldintzatzeari edo murrizteari eragiten duten jarduketak salatzeko.

EAJ-PNVk eta PSE-EEK ulertzen dugu Konstituzioaren 156. artikuluan jasotako zerga- eta finantza-politikari buruzko koordinazio-eskumenen ondorioz har daitezkeen neurriek Euskal Ekonomia Ituna errespetatu behar dutela eta dagozkien alde biko organoetan adostu behar direla. Hortaz, hori aplikatzeko edo gauzatzeko, alde biko topaketa-organoa edo Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoa elkartu behar da, denbora eta forma egokietan.

Autogobernuaren defentsan eskuduna den sailak ofizioz edo gainerako sailek eskatuta koordinatuko du Estatuko araudi-ekimenen konstituzio-legezketasunaren eta Gernikako Estatutuarekiko errespetuaren inguruko txostenen lanketa. Txosten horiek autogobernuaren defentsan eskuduna den sailak egingo ditu, zehazki, ukitutako sail sektorialarekin kontsultatu ostean. Euskal autogobernuaren urraketak antzematen direnean, gatazka judizialak saihesten dituzten prebentzio-konponbideak bilatzen saiatuko da, zehazki, dagokion "lankidetzak-gutunaren" bidez. Era berean, lankidetzako alde biko batzordearen aurrea negoziatzea lehenetsiko da, euskal autogobernua zaintzeko eta horren konstituzio-judizializazioa saihesteko xedearekin.

Lankidetzako prebentzio-neurriek funtzionatzen ez badute, autogobernuaren defentsan eskuduna den sailak, ukitutako sail sektorialarekin kontsultatu ostean, Gobernu Kontseiluari aurkeztutako dizkio euskal autogobernuaren, Euskadiri esleitutako eskumenen eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakundearen antolaketaren defentsan oinarritzen diren mota guztietako konstituzio-prozesuak edo prozesu judizialak jartzeko proposamenak.

Eusko Jaurlaritzak eragile gisa esku hartzen duen prozesuetan eta Estatuak EAEk ezarritako arauen eta egintzen aurka jarritako errekurtsioen ondoriozko prozesuetan, lankidetzako alde biko batzordearen aurrean autogobernuaren defentsan eskuduna den sailak negoziatzea lehenetsiko da, ukitutako sail sektorialaren laguntzarekin. Hori guztia euskal autogobernua ahalik eta baldintzarik onenetan mantentzeko eta konstituzio-judizializazioa saihesteko, baita gure eskumen-eremua txikitzeko efektuak dituen doktrina bat finkatzen duten autogobernuaren gaineko interpretazio hutseko akatsak eragitearen arriskuak saihesteko ere.

3) Transferitzeke dagoen autogobernua aldarrikatzea. Onartutako erakunde-konpromisoak eta konpromiso politikoak betetzea.

EAJ-PNVk eta PSE-EEK konpromisoa hartzen dugu Espainiako Gobernuarekin batera lan egiteko, transferitu ahal diren eskumen, gai eta zerbitzuei buruzko negoziazioak gauzatzeko, Gobernu Kontseiluak 2017ko irailean babestutako eta Eusko Jaurlaritzaren Autogobernuaren Ponentziara bidalitako Euskal Autonomia Erkidegoari egin beharreko Transferentzien Eguneraketari buruzko 2017ko Txostenak jasotako terminoen barruan eta Espainiako Gobernuak formalki 2020ko otsailaren 20an bidalitako Eusko Jaurlaritzak eskatutako transferentziei buruzko balizko negoziazioetarako kronograma-proposamen orientagarriarekin bat eginez. Izan ere, jakin badakigu beharrezkoa dela horiek elkarren artean adostuta eguneratzea, batez ere, kontuan hartuta covid 19aren pandemiaren eragina.

GAIK	MINISTERIO ESKUDUNAK	KRONOGRAMA
Enplegu-erregulazioko espedienteek ukitutako langileen ohiko erretiroaren aurretiazko laguntzak	Lana eta Gizarte-ekonomia	2020ko martxoa
Aseguruak	Gai Ekonomikoak eta Eraldaketa Digitala	2020ko abendua
Segurtasun-zerbitzu pribatuak	Barnealdea	
Meteorologia	Trantsizio Ekologikoa eta Erronka Demografikoa	
Nekazaritza-aseguruak	Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura	
Errepide bidezko garraioa	Garraioa, Mugikortasuna eta Hiri-agenda	
Zinematografia babesteko funtsa	Kultura eta kirolak	
Arrainkien eta itsas hazkuntzen merkatua	Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura	
Turismo-paradoreak	Industria, Merkataritza eta Turismoa	
ISBN eta ISSN zenbakien esleipena	Kultura eta kirolak	
Kostalde-antolamendua eta kudeaketa	Trantsizio Ekologikoa eta Erronka Demografikoa	
Espetxeen kudeaketa	Barnealdea	
Kreditu ofiziala Kreditua eta Banka Balore-merkatua	Gai Ekonomikoak eta Eraldaketa Digitala	
Ikerketa eta laguntza teknikoko zentroak	Lana eta Gizarte-ekonomia	
Hidrokarburoak	Trantsizio Ekologikoa eta Erronka Demografikoa	
Itsas-salbamendua	Garraioa, Mugikortasuna eta Hiri-agenda	
Estatuko sektore publikoa	Ogasuna	

Erakunde-administrazioa eta berrikuntza teknologikoa (IMPI eta IDAE zaharrak)	Industria, Merkataritza eta Turismoa Trantsizio Ekologikoa eta Erronka Demografikoa	
Trenbide-garraioko eginkizunak FEVE zaharraren zenbait lineatan eta aldiriko lineatan	Garraioa, Mugikortasuna eta Hiri-agenda	
Aireportuak	Garraioa, Mugikortasuna eta Hiri-agenda	
Interes orokorreko portuak	Garraioa, Mugikortasuna eta Hiri-agenda	
Immigrazioa	Gizarteratzea, Gizarte Segurantza eta Migrazioak	
Atzerriko tituluak eta ikasketak unibertsitate-ikasketetan	Hezkuntza eta Lanbide-heziketa	
Ibilgailuen matrikulaziorako eta zirkulaziorako baimenak	Barnealdea	
Udal hauteskunde-araubidea	Barnealdea	
Arrantza-ikuskapena	Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura	
Obra publikoen Ikasketa eta Esperimentazio Zentroa	Garraioa, Mugikortasuna eta Hiri-agenda	
Gizarte Segurantzaren kudeaketa ekonomikoarekin lotutako gaien inguruko azterlanak abiarazi	Gizarteratzea, Gizarte Segurantza eta Migrazioak.	2021eko abendua

4) Estatutu-itunaren eguneraketa.

Euskal XII. Legegintzaldian zehar, EAJ-PNVk eta PSE-EEK konpromisoa hartzen dugu azkenengo bi legegintzaldietan eta, bereziki, azkenengo bi ekitaldietan Eusko Legebiltzarrean garatutako lanetan sakontzeko, euskal autogobernua eguneratzeko prozesuarekin amaitzeko, ahalik eta adostasunik handienetik eta ezarritako eta aurreikusitako lege-bideei jarraiki, estatutua erreformatzeko lege-proposameneko proiektu bat aurkeztea ahalbidetzeko.

EAJ-PNVk eta PSE-EEK (PSOE), azkenengo legegintzaldietan egindako lan gogorren ostean eta, adostasun ugarietz gain, desadostasun batzuk ditugula egiaztatuta, 2016ko azaroan sinatutako akordioa berresten dugu; bi alderdiok uste dugu horren inguruko eztabaidak alderdi politikoei dagozkiela eta ez, ordea, gobernuari.

Horrenbestez, aitortzen dugu ekimen legegilea eta politikoa alderdi politikoei dagokiela eta ez eratuko den gobernuari. Hala ere, argi dago gobernua Eusko Legebiltzarrak bere eskumen-eremuan eta indarreko legezketasunaren barruan zentzu horretan har ditzakeen akordioetara lotuta egongo dela.

Hortaz, gobernagarritasun-akordio hau sinatzen dugun bi alderdiok 2016ko azaroan sinatutako itunaren edukiak berresten ditugu eta askatasuna aitortzen diogu elkarri, bakoitzak bere postulatuak eta planteamenduak defendatzeko autogobernuari dagokionez. Era berean, konpromisoa hartzen dugu Euskadin zein bestelako erakunde-eremuetan zentzu horretan sor daitezkeen eztabaidak edo proposamenak ez eragozteko.





Gai honetan ekimen legegileren bat sustatzekotan, bi alderdiok uste dugu ekimen hori Eusko Legebiltzarraren gehiengo osoz adostu eta onetsi beharko litzatekeela eta, gero, Gorte Nagusiei bidali beharko litzaiekeela, ezarritako lege-bideen arabera izapidetzeko eta, hala badagokio, herritarren erabakiaren pean jartzeko, horiek Erreferendum batean berresteko.

Gasteizen, 2020ko irailaren 1ean

EAJ-PNV

PSE-EE

Andoni Ortuzar Arruabarrena
Euzkadi Buru Batzarreko Presidentea

Idoia Mendia Cueva
Idazkari Nagusia

Iñigo Urkullu Renteria
Lehendakaria